

# Jakin <sup>177</sup><sub>178</sub>

martxoa-ekaina  
2010



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen  
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*

.....



KULTURA SAILA

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*



ZENBAKI HONETAN

**7**

**GAI NAGUSIA** Garapen iraunkorra eta  
gizarte erantzukizuna

**11** Sarrera

**IGNAZIO AIESTARAN**

**19** Garapen iraunkorraren bilakaera historikoa

**EGUZKI URTEAGA**

**33** Ekologiaren iraunkortasuna

**MIREN ONAINDIA**

**51** Aldaketa eta konpromisoa

**SILVIO FUNTOWICZ / ROGER STRAND**

**65** Erantzukizuna eta Iraunkortasun-Zientzia

**IGNAZIO AIESTARAN**

**81** Globalizazioa, osasuna eta iraunkortasuna

**KOLDO MARTINEZ**

**101** Enpresaren gizarte erantzukizuna

**OLGA FOTINOPOULOU**

**115** Gizarte erantzukizuna UPV/EHUn

**A. MASEDA / I. AMIANO / J. ASTOLA**

**GAIK**

**135** Gaur egungo erronkak euskal literaturaren  
irakaskuntzan

**IDURRE ALONSO**

**EGUNEN GURPILEAN**

**157** **HAIZEA BARCENILLA**

**INAKI IRAZABALBEITIA**

**GOIZALDE LANDABASO**

**LIONEL JOLY**

**JOSU LARRINAGA**

© **Jakin**

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria

**Jakin**

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07

[jakin@jakingunea.com](mailto:jakin@jakingunea.com)

[www.jakingunea.com](http://www.jakingunea.com)

---

2010eko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	55 €	—
Ale arrunta	9,20 €	12 €
EUROPAN		
Harpidetza	70 €	—
Ale arrunta	11,70 €	15,50 €
EUROPATIK KANPO		
Harpidetza	85 €	—
Ale arrunta	15 €	18 €

Jabegoa: Jakinkizunak, S.L. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X  
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

## SUMMARY



### **SUSTAINABLE DEVELOPMENT AND SOCIAL RESPONSIBILITY**

#### **Historical evolution of sustainable development**

Professor Eguzki Urteaga provides a brief summary of the the concept of sustainable development, from the first research sponsored by the Club of Rome in the 70s to the 2009 Copenhagen Summit. **EGUZKI URTEAGA**

#### **Present-day sustainable development: sustainability of the ecology**

Miren Onaindia, Coordinator of the UNESCO Chair on Sustainable Development and Environmental Education at the UPV/EHU, shows us the problems facing sustainable development from the ecological standpoint. The author introduces the concept of ecosystem service, which enables the damage that has been done to the environment over the past few decades as a result of human activity to be studied in more detail. **MIREN ONAINDIA**

#### **Change and commitment**

The researchers Silvio Funtowicz and Roger Strand discuss the discourse existing about scientific and technological risks, maintaining that a review of the concept of responsibility in view of risk is necessary. The authors argue that commitment in times of change constitutes a better starting point. **SILVIO FUNTOWICZ / ROGER STRAND**

#### **Responsibility and the Science of Sustainability in a global world: steps towards a new paradigm**

Professor Ignazio Aiestaran analyzes the emergence of the Science of Sustainability —a new field of science that has emerged from the Earth System Science. The author sets out the objectives and analytical, methodological, regulatory and strategic contents of the programme for this new multidisciplinary science. **IGNAZIO AIESTARAN**

## Globalization, health and sustainability

Koldo Martínez, a Doctor and MA in Bioethics, reflects on relationships existing between globalization and health. Health contains social determinants that depend on the asymmetric process of globalization. The author draws attention to the changes that would be necessary in order for the effect of globalization to be beneficial to all the world's inhabitants, both in the North and the South. **KOLDO MARTINEZ**

## Corporate social responsibility from the standpoint of the labour law

Professor Olga Fotinopoulou introduces the notion of corporate social responsibility within the framework of a debate that studies the implications between business and society within the current context of globalization from different points of view: economics, philosophy, sociology, labour law, commercial law and civil law... **OLGA FOTINOPOULOU**

## Social responsibility in the UPV/EHU

Amaia Maseda, Iratxe Amiano and Jasone Astola, the Vice-rector of Social Responsibility and University Projection, Director of Social Responsibility and Director of Equality at the UPV/EHU (University of the Basque Country) respectively, analyze the different aspects, principles and issues surrounding the concept of social responsibility, and its implications within the sphere of activity of the university, especially in the UPV/EHU.

**AMAIA MASEDA / IRATXE AMIANO / JASONE ASTOLA**

## CURRENT CHALLENGES FACING THE TEACHING OF BASQUE LITERATURE

Professor Idurre Alonso kicks off with a look back at the teaching of literature over the last two centuries in order to analyze the current situation regarding the teaching of Basque literature. She then goes on to carry out a diagnosis of current teaching and lastly, proposes a series of challenges with a view to the future. **IDURRE ALONSO**

## NEWS TODAY

This section gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. Current affairs in the field of art, technoscience, literature, socio-linguistics and globalization will be analyzed this year. This section draws on various specialists: Haizea Barcenilla, Inaki Irazabalbeitia, Goizalde Landabaso, Lionel Joly, and Josu Larrinaga. **VARIOUS AUTHORS**

## ZENBAKI HONETAN



Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 177/178. zenbaki bikoitza da eta 2010. urteko bigarrena eta hirugarrena.

Zenbaki bikoitz honetako *Gai nagusia* sailean garapen iraunkorraren eta gizarte erantzukizunaren arteko erlazioei buruz egiten da gogoeta. Izan ere, 1970eko hamarkadatik aurrera hasi zen garapen iraunkorrari buruzko diskurtsoa finkatzen, naturaren eta gizartearen orainari eta geroari buruzko ikusmolde berri bati atea irekiz. Aurreko mende bukaeran, beste ekimen bat gehitu zaio garapen iraunkorrari: enpresaren munduaren inguruan jaiotako gizarte erantzukizuna. Egun, metodologia eta ikerkuntza gero eta sakonagoak ditu arlo horietan, baita gure artean ere. Ezin guztiak hona ekarri, baina zenbaki honetako zazpi artikuluetan horietako batzuk jorratzen dira: garapen iraunkorraren kontzeptuaren historia soziologikoa, iraunkortasuna ekologia akademikitik, zientziaren erantzukizuna Europan, nazioarteko iraunkortasun-zientziaren ibilbide bat, bioetikatik osasun eta bizi-kalitateari buruzko aurkezpen bat, zuzenbide eta enpresa-erantzukizunaren arteko lotura, eta gizarte erantzukizuna unibertsitatearen plangintzan.

Lehen-lehenik, Ignazio Aiestarani eskertu nahi diogu eskaini digun lan-kidetza, bera arduratu baita saila diseinatu eta egileekin harremanetan jartzeaz. Lehen sarrera-artikulua ere berak idatzi du. Bertan, gaiaren gaurkotasuna eta garrantzia azpimarratzearekin batera, zazpi artikuluen egileak aurkezten dizkigu.

Lehen artikuluan, beraz, Eguzki Urteagak garapen iraunkorraren kontzeptuari buruzko nazioarteko eztabaidaren bilakaera historikoa aztertzen du, 70eko hamarkadan Erromako Klubak sustatutako lehen ikerketetatik 2009ko abenduan Kopenhagen egindako goi bilera arte.

Bigarren artikuluan, garapen iraunkorraren auzia ekologiaren ikuspegi-tik lantzen du Miren Onaindiak. Hain zuzen, ekosistemen zerbitzuen kon-

tzepua aurkezten du Onaindiak, gizakiak ekosistemetatik jasotzen dituen ondasun eta onurei buruzkoa, alegia. Horren bidez, giza ekintzak ingurumeneari eragiten duen hondamena zorroztasun handiagoz azter liteke.

Silvio Funtowicz eta Roger Strandek, hirugarrenean, arrisku zientifiko eta teknologikoen auziari buruz dihardute, arriskuaren aurreko erantzukizunaren kontzeptua berrikustea premiazkoa dela aldarrikatuz. Ekintza eta erabaki zientifiko-teknologikoetan parte-hartze modu berriak antolatze aldera, aldaketaren aurreko konpromisoa arriskuaren aurreko erantzukizuna baino abiapuntu egokiagoa dela argudiatzen dute.

Laugarren artikuluan, iraunkortasun-zientziaren agerpenaz ari da Ignazio Aiestaran, hamarkada honetan bertan lur-sistemaren zientziatik sortutako zientzi esparru berria. Natur eta gizarte zientziak lotzen dituen eta besteak beste erantzukizun etikoaren kontzeptua barne hartzen duen zientzia transdiziplinar berri horren xede eta eduki analitiko, metodologiko, arauemile eta estrategikoak aurkezten dizkigu Aiestaranez.

Koldo Martínezek, bosgarrenean, globalizazioaren, osasunaren eta iraunkortasunaren arteko erlazioei buruz egiten du gogoeta. Horrela, globalizazioaren eragina munduko hiritar guztientzat onuragarria izan dadin hainbat arlotan egin beharreko aldaketek hausnartzen du artikulua; horien artean kokatzen da medikuntza iraunkorra.

Seigarren artikuluan, Olga Fotinopoulouk enpresaren gizarte erantzukizunaren kontzeptua eta bere edukia aztertzen ditu, horren bitartez enpresa eta gizartearen arteko erlazioak globalizazioaren testuinguruan hainbat ikuspuntutatik lantzen baitira: dela ekonomia, soziologia edo filosofiatik, dela lan zuzenbide, merkataritza zuzenbide zein zuzenbide zibilaren ikuspegitik.

Azkenik, Amaia Maseda, Iratxe Amiano eta Jasone Astolak gizarte erantzukizunaren funtsezko printzipio, gai eta arazoak azaltzen dituzte, eta horren ondorioak unibertsitateen esparruan, bereziki UPV/EHU. Gainera, unibertsitate horretzat gizarte erantzukizuna gizon eta emakumeen berdintasunarekin lotzea ezinbestekoa dela azpimarratzen dute.

*Gaiak* sailean, bestalde, euskal literaturaren irakaskuntzaren egoerari buruzko Idurre Alonsoren artikulua bat dator. Lehenik, literaturaren irakaskuntzak azken bi mendeotan izan dituen xedearen garapena jasotzen du. Ondoren, irakaskuntza horrek gaur egun duen egoeraren diagnosis eskaintzen du, hezkuntza-legeak, eskola-liburuak eta ikastetxeetako jarduna aztertuz. Azkenik, euskal literaturaren irakaskuntzak etorkizunerako dituen erronkak proposatzen ditu.

*Egunen gurgpilean* saila dator azken orrialdeetan. Ohi denez, azken hila-beteotako berrien iruzkin labur eta biziak dakartzate Haizea Barcenillak Artean, Inaki Irazabalbeitiak Teknozientzian, Goizalde Landabaskok Literaturan, Lionel Jolyk Soziolinguistikian eta Josu Larrinagak Glokalia atalean. ¶



# Garapen iraunkorra eta gizarte erantzukizuna

- 11** Sarrera  
**IGNAZIO AIESTARAN**
- 19** Garapen iraunkorraren bilakaera historikoa eta  
sortutako eztabaidak  
**EGUZKI URTEAGA**
- 33** Garapen iraunkorra gaur. Ekologiaren iraunkortasuna  
**MIREN ONAINDIA**
- 51** Aldaketa eta konpromisoa  
**SILVIO FUNTOWICZ / ROGER STRAND**
- 65** Erantzukizuna eta Iraunkortasun-Zientzia mundu global  
batean: paradigma berri baterako urratsak  
**IGNAZIO AIESTARAN**
- 81** Globalizazioa, osasuna eta iraunkortasuna  
**KOLDO MARTINEZ**
- 101** Enpresaren gizarte erantzukizuna  
lan zuzenbidearen ikuspegitik  
**OLGA FOTINOPOULOU**
- 115** Gizarte erantzukizuna UPV/EHU  
**AMAIA MASEDA / IRATXE AMIANO / JASONE ASTOLA**

# Sarrera

**IGNAZIO AIESTARAN**

EHUko Filosofia Saileko irakaslea

Azken urteotan garapen iraunkorra eta gizarte erantzukizuna elkartu dira, natura-sistemen eta gizarte-sistemen arteko zubi bat eraiki nahian. Sobera jakina, «garapen iraunkorra» finkatu zen lehenengo aldiz Nazio Batuentzat eginiko *Our Common Future* (Gure etorkizun komuna) izeneko txostenean, 1987an. Gro Harlem Brundtland Norvegiako lehen ministro andreak agiri hori zuzendu zuenez, maiz «Brundtland Txostena» da dokumentu luze horren izenburu ezagunena. Bertan garapen iraunkorra modu honetara mugatzen da: «orainaren premiak asebetetzen dituen garapena, etorkizuneko belaunaldiek euren beharrianak asebetetzeko izan behar duten gaitasuna arriskuan jarri barik». Horrela azpimarratzen zen gaur «belaunaldi arteko elkartasuna» deiturikoa.

Geroago, hala 1991n Nazio Batuen eta Naturarentzako Mundu Funtsaren (WWF) ingurumen programak, nola 1992an Rio de Janeiroko goi-bileran egindako Nazio Batuen ingurumen eta garapenaren inguruko biltzarrean, lehenengo definizioa osatu zuten, bizi-kalitatea gehituz. Hortik aurrera, garapen iraunkorrak bizi kalitatearen hobekuntza in-

plikatzen du, baina, nola ez, betiere ekosistemen mugen barruan. 1992ko goi-bileratik Tokiko Agenda 21 izeneko estrategia eta metodologia zabaldu ziren, batez ere udaletan eta eskualdetan ahalegin iraunkorrak bultzatzea eta kudea zitezten. Horrela, nazioarteko agenda tokian tokiko plangintzan gauzatzen hasten zen. Bide batez, gaur «belaunaldi barruko elkartasuna» deiturikoa sartu zen arlo honetan.

Aurreko mende bukaeran, bertze ekimen bat gehitu zitzaion garapen iraunkorrari: enpresaren munduaren inguruan jaiotako gizarte erantzukizuna. Nazio Batuen Idazkari Nagusi Kofi Annanek Davosko Munduko Foro Ekonomikoan 1999ko urtarrilean iragarritako munduko ituna 2000ko uztailean abiatu zen modu ofizialean, Nazio Batuen Egoitzan. *Global Compact* (Itun globala) izeneko ekimen horrek giza eskubideen, laneko arauen eta ingurumenaren arloak bultzatu zituen. Jarraian, 2001eko uztailean, Europako Komunitateen Batzordeak *Liburu Berdea. Enpresen erantzukizun sozialerako Europako eremua sustatzea* plazaratu zuen. Aldi berean, *Global Reporting Initiative* nazioarteko erakundeak iraunkortasunari buruzko korporazio-txostenak bultzatu zituen, non enpresa batek ingurumenari, gizarteari eta ekonomiari lotutako alderdi eta adierazleak biltzen eta adierazten baititu. Horrela, garapen iraunkorraren kontzeptuari bertze ideia metodologiko bat gehitu zitzaion, hots, «kontabilitate hirukoitzarena». Horren bidez, iraunkortasuna garatzeko beharrezkoak dira iraunkortasun ekonomikoa, soziala eta ekologikoa. Gaur garapen hirukoitz hori bertze erakunde batzuetan (sindikatuetan, unibertsitateetan, udaletan, administrazioan) hedatuz doa.

Horrez gain, ekologiaren eta erantzukizunaren arteko lotura ez da gai berria. Hans Jonas filosofoak, 1979ko *Das Prinzip Verantwortung - Versuch einer Ethik für die technologische Zivilisation* (Erantzukizunaren printzipioa - Zibilizazio teknologikoaren etika baterantz) liburuan, lehen aldiz jorratu zuen erantzukizuna mundu zientifiko eta teknologikoan, mehatxuaren edo beldurraren heuristika dela medio,

etorkizuneko zientzian aplikaturiko «zuhurtasun-printzipioa» aurreikusiz. Zuhurtziazko eta arretazko neurri hori 70eko hamarkadan Alemanian garatu ondoren, 1990eko Garapen Iraunkorrerako Bergen-eko Deklaraziora, 1992ko Maastricht-eko Itun edo Europar Batasunaren Tratatura, 1992ko Rio de Janeiroko goi-bileraren deklaraziora, eta 2000n Nizan Europako Komunitateen Batzordera eta Europako estatuetera igaro zen molde desberdinetan.

Gaur metodologia eta ikerkuntza gero eta sakonagoak dira arlo honetan: alderdi etikoak, kutsu pragmatikoak eta il-do arauemaileak loratzen dira ohizko pentsamenduarekiko lehian. Gure artean ere bai, zorionez: gero eta aditu gehiago daude, gero eta erakunde interesgarriagoak, gero eta mugimendu biziagoak. Ezin dira monografiko bakar batean sartu nondik norako norabide guztiak. Hala ere, auzi eta metodologia berri batzuk agertuko dira irakurlearen eskuetan: garapen iraunkorraren kontzeptuaren historia soziologikoa, iraunkortasuna ekologia akademikotik, zientziaren erantzukizuna European, nazioarteko iraunkortasun-zientziaren ibilbide bat, bioetikatik osasun eta bizi-kalitatearen arteko aurkezpen bat, zuzenbide eta enpresa-erantzukizunaren arteko lotura, eta gizarte erantzukizuna unibertsitateko plangintzan. Hemengo ekarpenek teoria eta praktika batera aurkezten dituzte, modu batean zein bertzean. Horrez gain, beti lorgarria izan ez arren, zenbaki berezi honetan emakumezko eta gizonezko sinaduren arteko oreka mantendu da; iraunkortasunaren konponbidearen erdiak gutxienez emakumezkoa izan beharko du —nahiz eta historian zehar iraunkortasunik ezaren arazoek kasik gizonen eskuen jatorria izan duten, berdintasun-printzipioa urratuz—. Hurrengo paragrafoetan monografiko honetan parte hartu duten egi-leei buruzko testuinguru laburra azalduko da.

Eguzki Urteagak garapen iraunkorraren kontzeptua eta horren inguruko eztabaidak aurkezten dizkigu. EHUko Soziologia Saileko irakaslea da. Hainbat arlotan jorratu du bere ikerkuntza: «Zientzia, Teknologia eta Gizartea» ikasketak,

zientzia eta teknologiaren irudikapenak Euskal Herrian, soziolinguistika, fenomeno sozial modernoak, soziologia garaikidearen krisia, espainolen eta frantsesen portaera soziopolitikoak, garapen iraunkorraren historia eta kritika, hezkuntzaren soziologia, bertzeak bertze. Hamaika artikulua, argitaraldi eta liburu atera ditu, horien artean *Soziologia moderna eta garaikidea* liburua 2002an eta *Les plans locaux d'immigration en Espagne* 2008an. 2009ko *Zientzia eta teknologiaren irudikapenak Euskal Herrian* lanaren egilekidea ere bada. Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitateko irakaslea du, eta CNRS laborategiari loturiko IKER-kidea ere bai.

Miren Onaindiak garapen iraunkorraren ikuspen ekologikoa erakutsiko digu, naturaren zerbitzuak eta oinarrizko baldintzak agerian utziz. EHUko Garapen Iraunkor eta Ingurumen Hezkuntzarako UNESCO Katedraren koordinatzailea da, baita EHUko Landare Biologia eta Ekologia Saileko katedraduna ere. Nazioarteko hainbat proiektutan hartu du parte: Oxfordeko Unibertsitatean, Universidad Veracruzana-ko Instituto de Investigaciones Biológicas-ean eta Bordeleko Unibertsitatean. Oxfordeko Unibertsitatean ere izan da irakasle bisitaria, baita Euskadiko Biologoien Elkargoko dekanordea ere 1996tik. Lanpostu akademiko anitzetan egon da, eta nazioarteko artikulua eta argitaraldi ugari sortu ditu. Proiektu asko zuzendu eta ikertu ditu; adibidez, azken boladan, Milurtekoko Ekosistemen Ebaluazioa Bizkaian.

Silvio Funtowicz eta Roger Strandek ohizko erantzukizunez haratago doan zientzia ekarriko digute gogora, aldaketa eta konpromisoaren arteko «*sound science*» edo zientzia zuhurra aldarrikatzen duten bitartean. Funtowiczek matematika, logika eta ikerketaren metodologiako irakasle izan zen Buenos Airesen, eta 80ko hamarkadan Research Fellow izan da Ingalaterrako Leeds-eko Unibertsitatean. Egun Europako Komunitateen Batzordearen European Institute for the Protection and Security of the Citizen (IPSC), European Commission - Joint Research Centre erakundeko kidea da, Ispran (Italia). Jerome R. Ravetz-ekin liburu ospetsu bat ka-

rrikaratu zuen 1990ean, *Uncertainty and Quality in Science for Policy*, eta artikulu eta hitzaldi asko prestatu ditu bere bizitzan zehar. Ravetz eta Funtowiczek «zientzia post-normal»-aren metodologia asmatu zuten, ekonomia ekologikoan eta ingurumen-kudeaketa soziopolitikoan eragin izugarria izan duena.

Roger Strand Bergen-eko Unibertsitateko Zientzien eta Humanitateen Ikerketarako Zentroko zuzendari eta irakaslea da. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Ingurumen-Zientzia eta Teknologiaren Institutuan irakasle bisitaria, eta Osloko Unibertsitatean ikerlari bisitaria izan da. Bergen-eko Unibertsitatean NANOETHICS proiektuaren ikerlari nagusia ere bada. Europako NanoSTAG taldearen barruan, nanoteknologiaren alderdi sozial eta etikoen arloan buruzpideak eman ditu 2001ean. Zientzia eta Teknologiaren Etikari buruzko Norvegiako Batzorde Norvegiarreko kidea da, eta Mendebaldeko Norvegiako Medikuntza-Ikerketarako Etikaren Batzordekoa ere bai. *FP6 Ethical Reviews* argitaraldian zientziaren etikan aditua izan da. Ikerlari transdiziplinarra, 2006tik 2009ra Nanoteknologiaren Ondorio Etiko eta Sozialen Diziplinarteko Ikerketak proiektua bultzatu du nagusiki. Artikulu askotan agertu ditu bere sakontasuna eta freskotasuna lan-eremu zail horietan.

Ignazio Aiestaranek Iraunkortasun-Zientziaren paradigmen ibilbidea eskaintzen dio irakurleari, auzi metodologikoak eta erantzukizunaren etika zientzian agerian utziz. EHUko Filosofia Saileko irakaslea da, eta EHUko «Filosofia mundu global batean» Unibertsitate Masterrean ematen du metodologia horietako ardatzen bat. Enpresa batean *Global Reporting Initiative* erakundeko iraunkortasunari buruzko korporazio-txostena bete zuen teknikari gisa 2006an. Organización Universitaria Inter-americanak bultzaturiko *Episteme - International Journal of Science, Ethics, and Transdisciplinarity* aldizkariaren zuzendaria da. 2008tik *American Association for the Advancement of Science* erakundeko «Science and Human Rights» programan hartu du parte. Azken bola-

dan, EHUKo Garapen Iraunkor eta Ingurumen Hezkuntzarako UNESCO Katedrak lagunduriko «Iraunkortasuna paradigma post-kuhniar gisa» proiektuaren ikerlari nagusia da.

Koldo Martínez, Medikuntzan doktorea, Nafarroako Ospitaleko Zainketa Bereziko Mediku Espezialista da. Bioetikako Master Europarra Lovainako Unibertsitate Katolikoan, baita Gizakien sexualitatean Masterra ere. 2009tik Oinarrizko Bioetikaren eta Bioetika Klinikoaren Elkarteko burua da. Euskara Kultur Elkargoaren presidentea ere bada. Proiektu askotan eta hitzaldi anitzetan azaldu ditu medikuntza-etika, bioetika, eutanasia, deliberamendua, osasuna globalizazioan eta bertze hainbertze. Bere curriculumum batean kabitzen ez direnetakoa da. Zenbaki honetan aspalditik jorratzen ari den gai bat ukitu du: osasuna eta bizi-kalitatea globalizazioaren baldintzetan, Iparraldeko eta Hegoaldeko ezberdintasunetatik.

Olga Fotinopoulouk, EHUKo Enpresa Zuzenbidea Saileko irakaslea, oraindik gehiegi landu ez den gai bat garatu du: enpresaren gizarte erantzukizuna zuzenbidearen ikuspegitik. Mundu globalizatuan barruko eta kanpoko gizarte erantzukizunak zerikusi handia du interes sozialekin, onerako zein txarrerako. Enpresaren gizarte erantzukizuna borondatezkoa izan arren, lan-arauen eta eskubideen eremuan sartzen da behin baino gehiagotan. Globalizazioan langileen baldintzei eta enpresa-munduari dagokienez, 2006ko *La determinación de la Ley aplicable al contrato de trabajo internacional. Estudio del Convenio de 19 de junio de 1980, hecho en Roma, sobre la ley aplicable a las obligaciones contractuales* liburua da nagusi, argitaraldi askoren artean.

Azkenik, baina ez garrantzi gutxiagorekin, Amaia Maseda, Iratxe Amiano eta Jasone Astolak modu ezin hobean ixten dute monografikoa. Amaia Maseda EHUKo Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako errektoreordea da, Finantza Ekonomia I (Enpresen Kontabilitatea eta Administrazioa) Saileko irakaslea izateaz gain. Nevadako Unibertsitatearen eta EHUREn arteko Current Research bil-

dumaren argitalpen batzordeko zuzendaria ere bada, berzuek bertze. Iratxe Amiano EHUko Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria da, baita Finantza Ekonomia I (Enpresen Kontabilitatea eta Administrazioa) Saileko irakaslea ere. Jasone Astola EHUko Berdintasunerako zuzendaria da, eta Konstituzio Zuzenbide eta Pentsamenduaren eta Gizarte-eta Politika-Mugimenduen Historia Saileko irakaslea da, baita EHUko «Ikerketa Feministak eta Generokoak» Unibertsitate Masterreko kidea ere. Hirurok gai estrategiko eta giltzarria proposatzen dute: nola aplikatu gizarte erantzukizuna hezkuntza-munduan eta unibertsitatean, adierazle, alderdi, xede eta printzipio ezberdinak ahalegin batean. Proposamen hori ez da hutsala, 2010ean EHUko Iraunkortasunerako Ibilbide Orria aurkeztu baitzuten eztabaida eta parte-hartze publikorako. Maiz errepikatu da garapen iraunkorra ez dela helmuga, ibilbidea baizik. Hemen ibilbide berri bat dugu etorkizun handiko eremu batean.

Bukatu baino lehenago, Joan Mari Torreal dai eta Joxe Azurmendiri eskerrak eman nahi dizkiet, *Jakin* aldizkariaren atea beti irekita utzi dizkidatelako. Aldizkari honek iraunkortasunaren alderdi bat ere erakusten digu, euskarazko kultura bizirik mantenduz. Eta erran gabe doa Xabier Eizagirrerri eskerrak ematea, berak beti hitz on bat ahoan baitu, pazientzia handiko gomendio erabilgarriak eman, ematen eta emanen dizkidalako.

Eta esker anitz, bihotz-bihotzez, hemengo egileei, lan honetarako beti prest, ahalegin handia egin baitute gai hau gu artean zabal dadin. Adiorik ez, ongi zaituztet.

Eta azken lerroan, azken pentsamendua: XXI. mendea iraunkorra izanen da, ala ez da ezer izanen.¶



# Garapen iraunkorraren bilakaera historikoa eta sortutako eztabaidak

**EGUZKI URTEAGA**

EHUko Soziologia Saileko irakaslea

Garapen iraunkorra «hogeita hamar gloriosoen» amaieran agertzen den kontzeptu bat da; alegia, eraldaketa sozio-ekonomiko sakon baten boladaren ondoren, jakinik bere ezaugarriak hazkunde ekonomikoa, erabateko enplegua eta bizi maila gailena direla. Ingurugiroaren eta garapenaren galderak orduan agertzen dira, txanponaren bi aldeak balira bezala. Aitzitik, gizadiak dauzkan arazoan aurrean aterabide lez aurkezten den garapen iraunkorrak enigma bat izaten jarraitzen du. Garapen ekonomikoa, munduko biztanleriaren ongizatea, desberdintasun sozialen aurkako borroka eta biosferaren dinamikaren babes nola uztar daitezke? Kapitalismoan eta prezioen bidezko erregulazioan konfiantza eduki daiteke ala, alderantziz, kapitalismoaren ondorio lazgarriak mugatuko dituen arauak osatzea ezinbestekoa da? Horrela, bada, arau horiek eragile pribatu ala publikoek eratu behar dituzte? Galdera horiei erantzuteko ezinbestekoa da garapen iraunkorra nozioari buruzko nazioarteko eztabaidaren bilakaera historikoa aztertzea.

## Hazkundeari buruzko eztabaida

1972an, *The Limits of Growth* izenburua duen txostenean, Meadows-ek eta MITeko bere ikerketa taldeak ikuspegi orokor bezain sistematiko bat hobesten dute (Meadows, Meadows, Randers, Behrens 1972). Izan ere, ingurugiroari loturiko arazoak planeta osora hedatzen dira eta batzuek besteekin jarduten dute. Ikerketa hori ordenagailuz egindako simulazio batean oinarritzen da, Forrester eta bere kolaboratzaileek eraikitako modelo nahiko sinplea oinarritzat hartuz. Parametroak bost dira: biztanleria, elikagaien ekoizpena, industrializazioa, kutsadura eta berriztagarriak ez diren natur baliabideen erabilpena. Mundu mailako ekosistema horren dinamiken ondorioz, fenomeno horiek indartzen dira eta zirkulu bertutetsu batera daramate: geroz eta kontsumitzaile eta beraz kutsatzaile kopuru handiagoa dago mundu finalizatu batean. Aukeratutako eszenatokia mota batekoa ala besteoa izan, hazkunde nabarmen horrek sistemaren porrota dakar.

Egileek espero dute eztabaida horrek kontzientzia hartze bat eragingo duela:

ziur gaude munduko ingurugiroaren muga materialen eta lurraren baliabide ustiapen ez arrazoituak sor ditzakeen ondorio tragikoen kontzientzia hartzea ezinbestekoa dela gizakien jarreraren eta ondoren gizarte osoaren egituraren erabateko berrikuspena eramango duen pentsatzeko modu berriak ager daitezen.

Eztabaida sortzearen nahiaz gain, txostenaren egileek oreka egoera egonkor baten eta gizarte egonkor baten etorrera faboretu gura dute, zeren biztanleria eta kapitala ezgonkorrak diren osagai bakarrak dira egonkorra izan behar duen planeta batean. Giza jarduera guztiek ez dute eragiten berriztagarriak diren materien ala ingurugiroa modu atzerazinean kaltetzen duten gehiegizko kontsumo bat, hala nola hezkuntzak, osasunak, oinarrizko ikerkuntzak, giza harremanek ala kirol jarduerak. Hori dela eta, modu mugagabea garatzen ahalko lirarteke. Hamabost urtean biztanleria eta

inbertsioa egonkortzen badira, mundu mailako bizi-maila materiala eta gizatiarra hobetzea posible litzateke. «Hazkundera eza» lemaz at, Erromako Klubak mundu mailako aberastunaren banaketaren arazoa planteatzen du. Horretarako, Hegoaldeko herriek hazi behar dute, gutxienez bolada batean, Iparraldeko herrien hazkundera eten behar delarik. Bai-roch-en (1971) pentsaeran presente dagoen ideia bat da, hirugarren mundua irteerarik gabeko kalezulotik ateratzeko.

Meadowsek argitaratutako liburuaren arrakasta editorialak eztabaida sakon bezain zabal bat eragin du. Kritikek kokolan jartzen dituzte modelizazioa, ikerketaren emaitzak eta egitasmoaren sustatzailearen izaera: ekonomialari neoklasikoek azpimarratzen dute Forrester eta Meadowsen ereduak ez diela ekoizpen funtzioari eta prezioen bidezko erregulazio mekanismoei erreferentzia egiten, eta iragarpen horiei sinesgarritasuna emango liekeen datu enpirikoen gabezia edo gutxienez ahulezia salatzen dute. Polemika areagotu egiten da 1972ko lehen hilabeteetan, Meadows txostenaren ondorio nagusiak *The Ecologist* liburuan batzen direlarik. Mugarik gabeko eta iraunkorra den garapenaren helburua arbuatzen da, dituen ingurugiro eta gizarte ondorioengatik (aniztasun biologikoaren murrizketa eta langabezia masiboaren arriskuak azpimarratzen dira), eta epe luzean herri-tar guztien beharrak asetzeko gai den gizarte egonkor batekin ordezkatzeko proposatzen dute. Pertsona ezagun askok Biziraupenerako plan hori sustengatzen dute.

Era berean, 1972ko otsailean, Europar komisioren lehen-dakarioordea den Mansholt-ek zera proposatzen du, Europak beste osagai batzuk (ingurugiroa barne) kontuan hartuko litzuzkeen plan ekonomiko bat osa dezala, besteak beste zerga neurriak eta garbitasun zein birziklatze arauak errespetaraziko litzuzkeen ziurtagiri sistema bat sortuz (Reichenbach, Urfer 1974). Era berean, eskatzen du ikerkuntza erabilgarritasunera norabidetzea, hazkundera bideratu ordez.

Erromako Klubak sustatutako eztabaidak jarraitzen du Mesarovic eta Pestel-i (1974) eskatzen zaien bigarren txos-

tenaren bidez. Bertan, hasierako eredu orokorraren eransgabeketa agerian uzten dute, hainbat eskualde azpisistema agerian utziz. Eskualdeko hondamendi batzuen gertaera aurreikusitako ostean, egileek garapen indiferentziatua eta soilik kuantitatiboa garapen organiko eta kualitatibo bati aurkatzeko diote. Helburua, batik bat, eskualde baten garapen arrazoitua zehaztea da, biztanleriarentzako eskuragarri diren baliabideak eta mota guztietako bortxak zein elkarmenpeketasunak agerian utziz. Garapen iraunkor kontzeptua lehen aldiz 1980an agertzen da, *Kontserbazioaren mundu estrategia* izenburua duen liburuan (Peccei 1981).

## Estokolmoko gailurra

1972ko ekainean, Estokolmon, Nazio Batuek gizakiari eta bere ingurugiroari buruz lehen gailurra antolatzen dute, lema ofiziala «lur bakar bat» delarik. Bertan, planetaren zaurgarritasuna eta fenomenoekoen elkarmenpeketasuna azpimarratzen dira. Erronka horiei aurre egiteko, Estokolmoko biltzarren helburua:

zibilizazioen biziraupena baimenduko duten jarrera kolektibo ereduak zehaztea da. Ezin daiteke gaur egun ikusten den garapen zientifiko, diruzalatasun ekonomiko eta nazio harropuzkeriaren arteko nahasketa eskaini belaunaldi berri.

Deialdi hori egin arren, ez da luraren batasun politiko bat suertatu, Vietnameko gerrak markatzen duen testuinguruan. Garapenaren eta ingurugiroaren arteko gatazka agerian uzten duen biltzar horrek, blokeen arteko antagonismoari aurre egin behar dio: Iparralde eta Hegoaldearen artean, baita Mendebalde eta Ekialdearen artean ere, nahiz eta Sobietar Batasuna eta herri komunista batzuk ez bertan egon, Alemaniako Errepublikak Demokratikoa ez baita ezagutua. Txina biltzarrean egon arren, ez du eztabaidetan parte hartzen. Hirugarren munduko herrien lehentasuna, aldiz, beren garapen sozioekonomikoa bermatzea da, Estokolmoko adierazpenaren aitzinsolasak ideia hori bere egiten duelarik:

Garapen bidean dauden herrietan, ingurugiro arazo gehientsuenak azpigarapenaren ondorio dira. Hori dela eta, herri horiek beraien indarrak garapenean jarri behar dituzte, beraien lehentasunak eta ingurugiroaren babesa zein hobekuntza kontuan hartuz.

Herri industrializatu gehienen ingurugiro politikak, bestalde, berriak bezain ahulak dira. Lankidetzeta hobetzeko borondatea erakusten badute, ez dute Europa ala mundu mailan kokatzea aurreikusten. Biltzar horretan, proba nuklearreri buruz ebazpen bat onartzeaz gain, ingurugiro gaiez arduratuko den erakunde berezi bat sortzea erabakitzen da. Halaber, Ingurugirorako Nazio Batuen Egitaraua sortzen da, egoitza Nairobin (Kenia) kokatuz.

## Ekogarapena

Urte bat beranduago, Strong-ek ekogarapen kontzeptua sortzen du, garapena eta ingurugiroa uztartzeko asmoz. Nazio Batuen Ingurugiro Programaren sinposioak esamolde hori berriz hartu eta sakonduko du 1974an Cocoyoc-en izandako jardunaldietan (UNEP 1981). Hiru osagaien gainean oinarritzen da: erabakien autonomia, beharren asetze zuzena eta ardura ekologikoa, iraunkortasunaren beste hainbeste osagaietan deklinatzen direlarik. NBIPk ekogarapena bere estrategiaren ardatz nagusi bilakatzen du 1980ko hamarkada arte. Timbergen-ek 1987an koordinatutako hirugarren txostenean toki berezia betetzen du ekogarapenak, jakinik ekonomialari horrek Nobel saria lortu duela eta garapen gaitan aditua dela. Bertan gomendatzen da nazioarte mailako lankidetzaren arloan arau orokorrak finkatuko dituen itun-marko bat osatzea, nahiz eta une horretan liskar eta arazo geopolitikoak pilatzen diren.

Erromako Klubaren hirugarren txostenak gai horiek jorratzen ditu, kontuan izanik hazkunde ekonomikoa leuntzen dela (1973tik gora) eta Bretton Woods-en eraikitako nazioarteko finantza sistema desegiten dela (1971). Hala eta

guztiz ere, garapen bidean dauden herriek Iparraldeko herriekiko daukaten menpekotasuna ez da murrizten eta desberdintasun sozialen ugaltzeak bortizkeria eragingo duela-ko kezka dago. Zentzu horretan, Estatu Batuek Vietnamen ezagutu duten porrotak lurrikara politiko bat eragiten du. Gerra testuinguru horretan, armamenturako lehia areagotzen da eta material zein diru baliabide oparoak bereganatzen ditu. Hamarkada bat aurretik sortu den Lurralde Petrolio-Esportatzaileen Erakundeak dinamismo berria ezagutzen du, petrolio enpresen nazionalizazioarekin eta petrolioaren prezioaren biderkatzearekin. Hortik aurrera, energia eta materia erreserbei heltzeko arazoa birplanteatzen da, batik bat herri garatuentzako.

Timbergerrek zuzendutako txostenak dio baliabide natural, tekniko eta zientifikoak «gizadiaren ondare komun» bezala ikus daitezkeela: estatuak beraien baliabideen eskumenak utziko lituzkete, nazioarteko erakundeek gizakien onerako modu zuzen bezain eraginkorrean kudea ditzaten. «Mundu mailako subiranotasun deszentralizatu» hori martxan jarri bitartean, Estatu Batuen garapen estrategiak oinarritzko beharren asetzeari jartzen du gogoia. Hori dela eta, mundu mailako hazkunde ekonomikoa suspertu beharko litzateke, baita nazioarteko merkataritza liberalizatu ere. Ideia liberalak nagusitzen diren mailan, ekogarapen kontzeptua baztertzen da garapen iraunkor nozioaren mesederako. Trukaketa semantiko horretan (Weber 1994: 261), Kissinger-ek eta amerikar administrazioak Cocoyoceko ebazpenaren aurrean eduki duten erreakzioak zerikusi zuzena eduki du.

## Kontserbazio estrategiak

Halaber, garapen iraunkorra agertzen da zientzia ekologikoa ez delarik ingurugiro krisiaren larritasuna deskribatzera eta azaltzera mugatzen, baizik eta erronka horri erantzuteko proposamenak egiten dituelarik. Nazioarteko erakundeek kontserbazioaren inguruan antolatzen dituzte beraien estra-

tegiak, nahiz eta kritika ugari jaso. Izan ere, estrategia horren tresnarik erabiliena, natur eremu babestuarena da. Praktika kolonialisten jarraipenean, alde batetik, bertako biztanleen bazterketan oinarritzen da, ingurugiroaren praktika suntsitzaileak dituztelako aitzakiapean, eta, beste aldetik, nazioarteko jardueren barneratzean, turismoaren sustapenaren bitartez. Kontserbazioaren munduak kontserbazio politiken hirugarren fase bat bultzatuko lukete, non bertako politiken osaketaren parte hartzean ekingo luketen. Ekuazioa horrela laburbil daiteke: kontserbazioa + parte hartzea = garapen iraunkorra.

*Kontserbazioaren mundu estrategia* garapen iraunkorrerako estrategia bat bultzatzen duen nazioarteko lehen dokumentua da. NBIP, FAO, Unesco eta WWFren babesak lortu duen txosten horrek, naturaren kontserbazioa eta gizartearen garapena uztartzeko helburua betetzeko egitarau bat azaltzen du. Hiru helburu nagusi bereizten ditu: bizitzarako funtsezkoak diren sistemen eta prozesu ekologikoen mantenua (elikagaien birziklatzea, ur naturalaren arazketa...), espezieen eta ekosistemen erabilpen iraunkorra, eta aniztasun biologikoen babesak. Joera hori justifikatzeko argudio ekonomiko zein moralak erabiltzen dira: bioteknologiaren garapenari esker, baliabide genetikoak berrikuntzarako eta irabaziak lortzeko baliabide garrantzitsu bilakatuko dira. Baso tropikalek baliabide horien zati handi bat batzen dutenez, beraien kontserbazioa Hegoaldeko herrien garapenaren estrategian sar daiteke. Geneen nazioarteko merkataritzaren garapen itxaropenak bio-prospekzioko kontratuen izenpetzean oinarritzen dira.

1986an, IUCNk (International Union for Conservation of Nature) Otawan kontserbazioari eta garapenari buruz antolatutako munduko biltzarrean, garapen iraunkorraz hitz egiten da. Rio-ko gailurra baino urte bat lehenago, IUCNk (1991) bere munduko strategiaren bertsio eraberritu bat plazaratu du, non garapen eta kontserbazio arazoak hausnarketa berean batzen diren gizakien bizi baldintzak hobere-

tzeko asmoarekin, ekosistemen zama gaitasuna gainditu gabe eta bizitzaren aniztasunaren babesba zainduz. Helburu hori lortzeko, hazkunde demografikoa egonkortzeaz gain, planetako biztanleria faboretuenen kontsumo maila murriztu beharko litzateke. Jarrerak aldatzeko, martxan jarri behar diren tresna ekonomiko zein juridikoen bidez, IUCNk «bizitza iraunkorraren etikan» ekiten du, gizakiak, beste espezieak bezalaxe, bizi komunitateko partaide baitira.

## Brundtland txostena

1983an, Nazio Batuetako biltzar nagusiak Ingurugiroari eta Garapenari buruzko Mundu Batzordea (IGMB) sortzea erabakitzen du. Lan talde hori herri desberdinetako ardura-dun politikoez osaturik dago, beti ere Brundtlanden lehen-dakaritzapean. Erakunde horren eginkizunak hirukoitzak dira: 1) ingurugiro eta garapen arazoen inguruan diagnosi bat egitea eta ekintza berritzaile, zehatz bezain errealista barentzako proposamenak egitea; 2) sendotzeko eta aldaketak eragiteko gaitasuna daukaten nazioarteko lankidetzak modakitate berriak identifikatzea; eta 3) inplikaturak dauden eragile guztien kontzientzia hartzea eta mobilizazioa eragitea. Bost urtetan lan egin ostean, batzorde horrek *Guztien geroa* (1987) izenburua duen txostena plazaratu du, non garapena eta ingurugiroa uztartzen diren. Hain zuzen ere, garapen modu batzuek ingurugiroa kaltetzen badute, era berean, ingurugiro kaltetuak garapenerako oztopo bat suposa dezake.

Hori dela eta, krisia anitza da, zeren ukitzen dituen alor desberdinak (biztanleria, elikaduraren segurtasuna, bioaniztasunaren pobretzea, energia murrizketa ala kutsadura) elkarri lotuta daude.

Ikuspegi horretan, garapen iraunkorra ez da oreka egoera bat, baizik eta aldaketa prozesu bat, non baliabideen ustiaketa, inbertsioen aukeraketa, garapen teknikoaren norabidea eta aldaketa instituzionala ere egungo zein geroko beharren arabera erabakitzen diren. (CMED 1987: 31)



IGMBk garapenaren aro berri bat sortu nahi du gizadiaren beharrei erantzuteko, urtero helburu zifratuak aurreratuz: %5 eta %6ko hazkundera garapenaren bidean dauden herrientzako eta %3 eta %4koa herri industrializatuentzako. Hazkunde horren kalitatea aldatzea komeni da «besteak ez zapalduz eta energia zein materia gutxien erabiltzen dituzten teknikak baliatuz». Administrazio publikoek eta industria enpresek ingurugiroa beraien erabakietan sartu behar dute, eta garapenaren definizio zabal bat edukitzea komeni da, elikadura, osasuna ala enplegua bezalako behar sozialak kontuan hartuz. Helburu hori herrien arabera moldatu beharko litzateke, baldintza ekologikoak eta sistema sozioekonomikoak oso desberdinak izanik. Batzuek beraien kontsumo moduak aldatu behar dituzten bitartean, beste batzuek hazkunde demografikoa moteldu behar dute. Hori dela eta, helburu nazionalak jartzeko premia ikusten du kontserbazioaren eta garapenaren helburuetara hurbiltzeko, gogoan izanik naturaren babesak obligazio morala duela beste pertsonetikiko eta hurrengo belaunaldiekiko.

Txosten horretatik at, hainbat gertakizunek 1980ko hamarkada markatzen dute, bereziki aldaketa geopolitiko sakon bat eragingo duen Berlineko Harresiaren erorketak. Brundtlandek garapen iraunkorraren problematikaren orokortzean segurtasun galderek daukaten garrantzia azpimarratzen du, Palm-en eta IGMBren txostenekin dauzkan jarraitutasunak agerian utziz. Alor militarrean distentsio leun bat gertatzen bada, 1986ko apirileko Txernobileko istripuak nuklear zibilaren arazoa berpizten du. 1987an, hainbat urtez negoziatu ostean, ozono geruzaren murrizketan inplikaturik dauden substantziei buruzko Montrealeko protokoloa lehen urrats modura agertzen da aldaketa klimatikoari buruzko nazioarteko negoziaketetan. 1970eko hamarkada beldurak eta natur baliabideen agortzeak markatu badute, 1980koaren erdiaz geroztik, biosferaren arazketa gaitasunaren mugen kontzientzia hartzea nagusitu da. Era berean, oinarrizko materien prezioen beherakadak, petrolioaren pre-

zioaren garestitzeak eta herri garatu batzuen finantza politikaren aldaketak, batik bat garapenerako laguntza publikoaren murrizketaren bidez, zorpetzearen hazkundera eta krisi sozioekonomikoaren areagotzea eragin dute.

Hogei urte beranduago, 1972ko ereduan aldaketa batzuk sartuz, Meadows txostenaren egileek prospekzio berriak burutu dituzte. Errekurtsoen kontsumoa, sortutako kutsadura eta sistema ekonomikoaren bilakaera kontuan hartuz, erakusten dute nagusitu den garapen eredia ez dela jasangarria. Muga batzuk jadanik gainditu dira, ozono geruzaren murrizketak erakusten duen bezala. Hala ere, denbora joan ahala, Erromako Klubaren gomendioak aurrerapen teknikoak eskaintzen dituen aukeretan jartzen dute arreta, produktuak eta zerbitzuak sortzeko beharrezkoa den materia eta energia kantitatea murrizteko ideiarekin (Weizsacker, Von Lovins, Von Lovins 1997).

## Rioko gailurra

1992ko ekainaren 3 eta 14 bitartean, Nazio Batuek ingurugiroaren eta garapenaren goi-bilera antolatzen dute Rion. Bere handitasunarengatik (40.000 partaide, 108 estatu- eta gobernuburu, 172 estaturen ordezkariak), Rioko bilkura Nazio Batuek ordura arte antolatu duten handiena da. Halaber, garapen iraunkor nozioaren mediatizazioaren unea izango da. Goi-bilera ofizialaren alboan, *foro* bat antolatu da, non GKEek, festa giroan, manifestaldiak, ekitaldiak eta jardunaldiak antolatu dituzten. Enpresa mundua ere bertan dago. Goi-bilera ofizialeko idazkari nagusia den Strong, bere karrera profesionalaren zati bat petrolio industrian egin duela kontuan izanik, enpresen parte hartzea sustatzeaz gain, bere ikuspuntua kontuan hartua izan dadin ahalegindu da.

Hamar egunez hitz egin ostean, hainbat testu onartu dira. Kezka demografikoak toki gutxiago betetzen badu, naturari eta natur baliabideen agortzeari buruzko erreferentziak ugaltu dira. Era berean, arreta edo prekaizio printzipioa ai-

patzen da, eta Agenda 21 deituriko egitarauak ehun bat ekin-tza zehatz batzen ditu XXI. mendean garapen iraunkorra errealitate bilaka dadin. Neurri horien aplikapena 600.000 milioi dolar kostatuko litzateke, alegia, munduko armamentuaren kostu bera. Halaber, nazioarteko hainbat konpromiso hartu dira: bi itun-marko izenpetu dira, bata aldaketa klimatikoari buruzkoa eta bestea aniztasun biologikoaren murrizketari buruzkoa.

## Johannesburgoko goi-bilera

2002ko abuztuaren 26 eta irailaren 4 bitartean Johannesburgon antolatu den goi-bilerak Riokoan adostutako neurrien gauzaper mailan jartzen du gogoia. Era berean, jasangarritasunaren alderdi sozialari arreta berezia ematen zaio, pobrezari eta prekarietateari batik bat, geroztik segurtasun arazoak eta finantza krisiak lehentasunak bilakatu badira ere. Behatzaile guztiak ados daude onartzeko gauzaperak urriak direla oso eta amaierako adierazperak aurrekoa berriz hartzen duela. Ekintza planak konpromiso orokorrak agertarazten ditu. Berriz ere, tarte nabarmena ageri da Hegoaldeko herriei egiten zaizkien laguntza konpromisoen eta benetan ematen zaizkien laguntzen artean.

Aitzitik, Johannesburgoko goi-bilera gobernuek eta eragile pribatuek izenpetu dituzten akordioak ezagutarazteko lekua izan da (200 akordio guztira), administrazioak, enpresak, GKEak eta sindikatuak Agenda 21 gauzatu zedin inplikatu baitira. Batzuek eragile horien ezagupena txalotzen badute, besteak kezkatuta daude neurri gehienak puntualak baitira eta eragileen borondatean oinarritu direlako, maiz ebaluaketa mekanismorik gabe. Egia da enpresen protagonismoa areagotzen ari dela eta kasu batzuetan garapen iraunkorraren aitzindariak direla. *World Council for Sustainable Development* gisako aintzatespena lortu duen BCSD enpresa, horrela, garapen iraunkorraz arduratzen den eta eronka horri erantzuteko gaitasuna daukan erakunde bat

da. Hala ere, enpresa hori epe ertain zein luzean eta mundu mailan kudeatzera ohituta dago, beste enpresa askorekin gertatzen ez den bezala.

## Kiotoko protokoloa eta Kopenhageko goi-bilera

Zortzi urtez negoziatu ostean, azkenean Kiotoko protokoloa gauzatzen da, nahiz eta ez dion klima aldaketaren erronkari erantzuten. Adituek burututako «milurtekoko ekosistemien ebaluaketak» ingurugiroaren egoera negargarria azpimarratzen duen une berean, bioaniztasunari sagaraturtako negoziaketek ez dute ez aurrera ez atzera egiten. Estatu Batuek protokoloa ez izenpetu izanak bere indarra kolokan jarri du. Ohar horiek eta estatuek politika handinahiak osatzeko eta gauzatzeko dauzkaten zailtasunek herritarren eszeptizismoa elikatu dute. 2009ko abenduaren 7 eta 18 arteko goi-bileraren porrotak ez ditu zalantza horiek uxatuko.

Izan ere, aldaketa klimatikoari buruzko nazioarteko XV. goi-bilera Kopenhagen antolatu da, aldaketa klimatikoari buruzko Nazio Batuen hitzarmen markoaren eskutik, 1995az geroztik egiten duen moduan. Helburua Kiotoko protokoloa ordezkaturako duen dokumentua adostea da, azken hori 2012an amaitzen baita. 34.000 pertsonak parte hartu dute bertan, 192 herrialdeko ordezkariak, adituek, GKEetako kideak, estatu- eta gobernuburuek, baita komunikabideek ere. Goi-bilera horrek 2007an Balin (Indonesia) hasitako prestakuntza prozesuari amaiera eman dio, partaideek adostutako egutegiak eta prozedurak jarraituz.

Antolatzaileen arabera, goi-bileraren helburua «klimari buruz juridikoki loteslea den akordio batera iristea zen, mundu osorako baliagarria, eta 2012tik landa gauzaturako litzatekeena». Azkeneko helburua CO<sub>2</sub>ren emisioak %50 jaistea zen 2050erako, beti ere 1990ekoekin alderatuta; helburu hori lortzeko, herri bakoitzak bide erdiko helburuak jarri behar zituen. Horrela, herri industrializatuek, 2020rako negutegi efektua duten gasen emisioa %25 eta %40 bitartean

jaitsi beharko lituzkete, 1990ekoak erreferentzia gisa hartuz; eta 2050ean beherakada %80 eta %90 bitartean kokatu beharko litzateke.

Negoziaketaren arazo nasugiak hiru motatakoak izan dira:

1. *Herri industrializatuen gas karboniko emisioak.* 2007an, Europar Batasunak CO<sub>2</sub>ren emisioak murrizteko plan bat aurkeztu zuen, non 2020rako beherakadak %20koa izan behar zuen (2008an onartua), nahiz eta ez ziren modalitate zehatzak finkatu. Estatu Batuetako lehendakari berriak ere bere herriaren isurketak murrizteko prestutasuna erakutsi zuen. Hasiera batean, 1990eko emisio mailetara itzultzeko asmoa agertu bazuen, 2050erako isurketak %80 gutxituz, horretarako energia berriztagarrien apustua eginez, Obamak Kopenhagen hartutako konpromisoak askoz txikiagoak izan dira bai emisioen mailan bai garapen bidean dauden herrien laguntzari dagokionez.

2. *Garapen fasean dauden herrien emisioak.* Herri horiek daukaten erronka nagusia agerikoa da: garapen ekonomikoa eta kohesio soziala nola sustatu ingurugiroa kaltetu gabe? Herri horien arabera, aldaketa klimatikoaren zati handiena Iparraldeko herrien eskaerak elikatzen du, Mendebaldearen ardura historikoa bistakoa da eta, ondorioz, laguntzek opa-roagoak izan beharko lukete. Halaber, bidegabekotzat jotzen dute erregai fosilen ekoizpena, salmenta eta erabilpena zigorzea. Aitzitik, garapen bidean dauden herri batzuk beraien isurketak gutxitzea konprometitu dira. Hain zuzen ere, 2009ko martxoan, Mexikok bere buruari lehen helburuak jarri dizkio, 2050erako emisioak %50 murriztea. Era berean, goi-bilera antolatu baino bi hilabete lehenago, Txina bere emisioen intentsitatea gutxitzea konprometitu da eta, 2009ko azaroan, Brasilek deforestazioaren ondorioz sortutako isurketak %80 beheratzea erabaki du 2020rako.

3. *Herri pobreak laguntzeko lankidetzak.* Nazio Batuen arabera, Mendebaldeko herriek herri pobreak lagundu beharko lituzkete aldaketa klimatikoari aurre egin diezaioten. Horretarako, Egokitzapen funtsa sortu du, aldaketa klimati-

koak herri horien ekonomian eduki ditzakeen ondorioen aurrean babes daitezten. Arazoa da herri industrializatuek ez dutela funts hori finantziatu nahi, nahiz eta Europar Batasuna 7.200 milioi euro ordaintzeko prest agertu den, beti ere garapen bidean dauden herriek aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzeko nahia erakusten badute.

Beraz, agerikoa da garapen iraunkorrek arrakasta mediatiko zein politiko itzela ezagutu badu ere, zailtasunak daukela hitzetatik ekintzetara igarotzeko.¶

### Bibliografia

- Braillard, Ph. (1982), *L'imposture du Club de Rome*. Paris: PUF.
- Chartier, D. (2004), «Aux origines des flous sémantiques du développement durable: une lecture critique de la Stratégie mondiale de la conservation de la nature», *Ecologie et politique* 29: 173-183.
- CMED (1987), *Notre avenir à tous*. Montreal: Editions du Fleuve.
- Lascoumes, P. (2002), *L'Eco-pouvoir. Environnements et politiques*. Paris: La Découverte.
- Meadows, D.H., Meadows, D.L., Randers, J., Behrens, W.W. (1972), *Halte à la croissance?* Paris: Fayard.
- Peccei, A. (1981), *100 pages pour l'avenir*. Paris: Economica.
- Raynaut, C. (1997), *Sahels. Diversité et dynamique des relations sociétés-nature*. Paris: Karthala.
- Reichenbach, R., Urfer, S. (1974), *La croissance zéro*. Paris: PUF.
- Rist, G. (1996), *Le Développement. Histoire d'une croyance occidentale*. Paris: Presses de Sciences Po.
- Rodary, E., Castellanet, C. (2003), «Les trois temps de la conservation», in Rodary, E. et al., *Conservation de la nature et développement. L'intégration impossible?* Paris: GRET/Karthala.
- UNEP (1981), *In Defense of the Earth. The Basic Texts on Environment: Founex, Stockholm, Cocoyoc*. Nairobi: UNEP Executive Series 1.
- Urteaga, E. (2008), «El debate internacional sobre el desarrollo sostenible», *Investigaciones geográficas* 46: 127-140.
- Urteaga, E. (2009), «Las teorías económicas del desarrollo sostenible», *Cuadernos de Economía* 89: 113-169.
- Weber, J. (1994), «Environnement, développement, marché: pour une économie anthropologique. Entretien avec Ignacy Sachs», *Natures, sciences, sociétés* 2(3): 258-265.
- Weizsacker, E.U., Von Lovins, A.B., Von Lovins, L.H. (1997), *Deux fois plus de bien-être en consommant deux fois moins de ressources*, Terre Vivante.

# Garapen iraunkorra gaur. Ekologiaren iraunkortasuna

**MIREN ONAINDIA**

EHUko Garapen Iraunkor eta Ingurumen Hezkuntzarako  
UNESCO Katedraren koordinatzailea

Naturak hasten eta mantentzen ditu materiaren eta energiaren zikloak biosferan

Materia biziaren antolaketa maila gorenak ikertzen dituen zientzia da ekologia; hala, organismoak, populazioak, komunitateak eta ekosistemak ikertzen ditu. Margalefen arabera, naturaren itxurazko nahasmen izugarri zabalean erregularatasunak bilatzen dituen zientzia da ekologia, eta entitate sinpleagoak aztertzen dituzten beste zientzia batzuen printzipioak erabiliz (fisikaren edo kimikaren printzipioak, esaterako) erregularatasun horiek azaltzen saiatzen da (Margalef, 1992).

Ekologia hitza Haeckel biologo alemanak erabili zuen aurrenekoz 1869an. *Naturaren ekonomiaren* ikerketatzat hartzen zuen Haeckelek, eta organismoen eta haien ingurunearen arteko elkarreaginaren ikerketa zientifikotzat definitu zuen. Grezierazko *oikos* (etxea) terminotik dator hitza; beraz, organismoen *etxean bizitza ikertzea* esan nahi du ekologiak. Gero, *naturaren egitura eta funtzioaren ikerketa* gisa definitu zuten zientzia hori; horrenbestez, ekologiaren gaur egungo ikuskerak berea duen adiera funtzionala gehitu zioten.

Sistemen teoria orokorra garatu ahala, ekosistemen ekologiaren eremu zehatza eta kuantitatiboa garatzen hasi ziren ekologoak; horien artean Ramón Margalef eta Eugene Odum. Aitu horiek *Ekosistemen ikerketa* gisa definitu zuten ekologia (Odum, 1964). Margalefen definizioaren arabera, espezie askotako banakoek ezaugarri jakineko ingurune baten baitan osatutako sistema da ekosistema. Sistema horretan espezieak eta ingurunea elkarreragineko prozesu dinamiko batean nahasirik daude, eta prozesu hori, funtsean, bi erataraz adieraz daiteke: materia eta energiaren truke moduan, edo jaiotza eta heriotzen segida moduan. Prozesuaren emaitzetako bat da garapena espezieen mailan, eta segida ekologikoa ekosistemaren mailan. Horraino Margalefen definizioa. Ekosistemaren baitan elkarreraginak ez dira estatikoak; aitzitik, desoreka eta erregulazio etengabeen mende daude. Horren ondorioz, sistemak homeostasirako ahalmena dauka, eta, horri eskerrak, bere egitura eta funtzioari eusten dio hein batean, kanpoko eta garapeneko nahastei aurre eginez.

Gizakiak sortu edo eragindako inguruneak ere (baratzak, natura erreserbak, etab.) ikertzen dituzte ekologoek, baita giza eraginak naturan dituen ondorioak ere; kutsadura eta berotze globala, besteak beste (Begon *et al.*, 2006).

Ekosistemaren alde biotikoa organismoek osatzen dute; dibertsitate biologikoa edo biodibertsitatea osatzen dute, hain zuzen, organismo horiek. Lurreko bizitza-formen aniztasuna da biodibertsitatea. Orobat, ekologiaren ikuspegitik, espezieen eta haien hurbileko ingurunearen arteko elkarreraginen dibertsitatea ere adierazten du kontzeptu horrek. Elkarreragin horretan, ekosistema bat sortzen dute espezieek eta inguruneak. Normalean hiru maila bereizten dira biodibertsitatean: genetikoa edo espezie barneko dibertsitatea; espezieen arteko dibertsitatea; eta ekosistemen dibertsitatea; hots, komunitate biologikoen dibertsitatea. Komunitate biologiko horien batuketan integratuak biosfera eratzen du.

Biodibertsitatea eta ekosistemen funtzionamendua lotuta daude zuzen-zuzen (Koellner & Schmith, 2006). Eremu bate-



ko dibertsitate biologikoa osatzen duten elementuak energia eta materiaren erregulatzaileak dira, eta, hala, eginkizun garrantzitsua betetzen dute lurzorua eta itsasertzeko inguruneak erregulatu eta egonkortzeko. Mendi-mazela eta ibaiertzetan, kasu, landare-espezieen egiturak eta dibertsitateak babestu egiten du lurzorua isurketa-uren higaduratik. Lurzoruko mikroorganismoen biodibertsitatea arduratzen da mantenu-gaiak birziklatzeaz, eta, era berean, biodibertsitateak berebiziko garrantzia du atmosfera eta klimaren hainbat prozesutan.

Naturak energia-sistema bat eta mantenu-gaien ziklo bat hasi eta mantentzen du biosferan, eta sistemari bere osotasunean eutsiz gero, denboran zehar haren funtzionatzeko ahalmenari ere eusten zaio. Biodibertsitatean gertatutako aldaketek aldatu egiten dituzte ekosistemen ezaugarriak, baita ekosistemek gizateriari ematen dizkieten zerbitzuen ezaugarriak ere (Hooper *et al.*, 2005).

## Ekosistemen zerbitzuek onura nabarmenak sortzen dituzte giza ongizaterako

Landareak, animaliak eta planetako dibertsitate biologikoa osatzen duten beste organismoak eta ekosistemen zerbitzu-fluxuak behar ditu gizakiak bizitzeko. Gizarteak ekosistemetatik lor ditzakeen onurak dira zerbitzu horiek. Harreman zuzena dago ekosistemen funtzionamenduaren eta gizartearenganako onura- eta zerbitzu-fluxuen artean.

Kontzeptuaren oinarrian ideia hau dago: gizarteak hobeto ezagutu eta baloratu behar ditu ekosistemetatik sortzen diren onurak eta zerbitzuak. Hasiera batean, John Holdrenek iradoki zuen ideia hori, naturako ekosistemek gizartera eta ekonomiara bidaltzen dituzten fluxuak azaltzeko (Daily, 1997). Ekosistemen zerbitzuen kontzeptua oso garrantzitsua da; izan ere, naturak eskaintzen dituen onurak eta zerbitzuak, begien bistako egiteko ahalegina da.

Ekosistemen zerbitzuak hiru eratakoak dira: alde batetik, hornidurazkoak; besteren artean, elikagaiak eta ura, energia

eta materialak hornitzen dituzte ekosistemek. Bestetik, erregulaziozkoak: klimaren erregulazioa, uholdeak, gaixotasunak, uraren kalitatea, besteak beste. Eta, azkenik, kultura arloko zerbitzuak daude. Alde guztiak loturik daude eta, horrenbestez, baliabide batzuen erabilerak erregulazio-zerbitzuetan izan dezake eragina. Adibidez, lurraren erabileran izandako aldaketa batzuek (deforestazioak, esaterako) toki-ko euria murriztu ohi dute eta basamortutzea eta uraren eskasia areagotzen dute. Ekosistemen eraginaren beste adibide bat da klimak eragindako hondamendien ondorioak leuntzeko duten gaitasuna; hala, hezeguneak, basoak eta mangladiak desagertzearen ondorioz, urakanen indarra gertatzeko ahalmena galdu dute ekosistema askok.

Ekosistemen zerbitzuak kontzeptua kritikatu egin izan dute zenbait zientzialarik, McCauleyk esaterako, erabileraren alderdi hori azpimarratzen duelako. Kritikari horien arabera, naturak berezkoa, bere baitakoa, du balioa. McCauleyren irudiko, kontzeptua baliagarri izan daiteke baldintza jakin batzuetan kontserbaziorako, baina lehenetsi beharrekoa da naturak bere baitan duen balioa ezagutzea eta hedatzea (McCauley, 2006). Ikuspegi horri buruz, onartu behar da naturak berez balio izugarria duela: hasi biodibertsitateak berak (3,5 bilioi urteko eboluzioaren emaitzak) duen baliotik eta paisaia kulturek (utziezinak diren aldetik dirutan kalkulatu ezin diren ondare horiek) duten balioraino. Alabaina, terminoa bera ezin egokiagoa da, aintzat hartuta bai zientzialariek eta bai kudeatzaileek gero eta maizago erabiltzen dutela ekosistemen zerbitzuak kontzeptua baliabideen kudeaketarekin loturiko gaietan (Reid, 2006).

## Ekosistemen zerbitzuak modu jasanezinean erabiltzen ditugu

Gizakiok erabili eta eraldatu egin ditugu Lurreko ekosistemak baliabideen eskakizun gero eta handiagoari irtenbidea emateko, batez ere azken 50 urteotan, teknologiaren eta bio-

teknologiaren aurrerapenei esker. Planetaren eraldaketa horrek onura nabarmenak ekarri ditu gizakien ongizaterako eta ekonomiaren garapenerako. Alabaina, azken urteotan agerian geratzen ari da onura horiek zer kostu izan duten. Nabarmenena baliabideen eskasia da, baina, era berean, prozesu erregulatuzaileen hondatzea ere azpimarratzekoa da: airearen eta uraren araztea, eskualdeko eta tokian tokiko klimaren erregulazioa, naturaren arriskuak eta izurriak, prozesu horiek guztiak nabarmen degradatu dira.

Gizateria gaur egun eta gutxi gorabehera azken bi hamarkada eta erdi hauetan izugarritzko abiaduran ari da erabiltzen naturaren baliabideak, naturaren sistemak berak ordezkatu ditzakeena baino askoz azkarrago. Nazio Batuek *Milurtekoko Ekosistemen Ebaluazioari* buruz egindako txostenaren arabera (Millennium Ecosystem Assessment, 2005), aztertutako ekosistemetako zerbitzuen %60 hondatzen ari da edo modu jasanezinean erabiltzen da. Zerbitzu horien artean daude ur geza, harrapaketa-arrantza, airearen eta uraren araztea, eskualdeko eta tokiko klimaren erregulazioa, naturaren arriskuak eta izurriak. Ekosistemetan egin diren aldaketen eraginez, aukera handiagoa dago aldaketa ez linealak gertatzeko, eta bortitzak izateko arriskua ere handiagoa da. Aldaketa horiek, noski, ondorio garrantzitsuak dituzte giza ongizaterako. Horien adibide dira, besteak beste, gaixotasunak agertzea, uraren kalitatearen alterazio bat-batekoak, itsasertzeko uretan «hildako eremuak» sortzea, arrantza-tokien kolapsoa eta eskualdeko klimen aldaketak. Gainera, ekosistemen zerbitzuen degradazioa nabarmen okertu daiteke mende honen lehen erdialdean eta eragozpen handia izan daiteke Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko. Nazio Batuek 2015. urterako finkatutako helburuak dira horiek; besteren artean, pobrezia, gosea eta gaixotasunak murriztea. Horretarako, izan ere, ingurumenaren iraunkortasuna funtsezkoa da.

Europako Ingurumen Agentziaren azken datuek diote Europan 15.500 espezetik gora (38.000 aztertu dira) galzorian daudela. Espezie horien artean denetarik dago: ugaztunak,

hegaztiak, anfibioak, gimnospermoak eta ezagutzen ez diren milioika mikroorganismo. Habitat naturalak galtzen ari dira leku guztietan: Europako basoen %1-3 besterik ez da berezkoa, inpakturik jaso gabea (EEA, 2006). Gainera, sistema naturalak gero eta gehiago ari dira homogeneousatzen eta espezie ubikistak (*weedy species*) ari dira gailentzen espezie espezialisten gainetik (Mace, 2005). Hori are nabarmenagoa da tokiko eta eskualdeko mailetan (Onaindia & Amezaga, 2000; Onaindia *et al.*, 2004).

Egoera horrekin loturik, begien bistakoa da Europako ekosistemen zerbitzuen degradazioa. Horren seinale dira, besteak beste, uholdeen maiztasuna eta larritasuna areagotzea (ibaiarroen deforestazioak eta ibaien bideratzeak larriagotu egiten du gainera arazoa), lurzoruen emankortasuna galtzea, polinizatzaileen populazioen aldi behingo kolapsoak (pestiziden eraginez, inondik ere), uztetan eta basoetan izurrien hedatzea (labore bakarra lantzeagatik errazago zabaltzen dira) eta lurzoruetan karbonoa finkatzea (aldaketa globala).

## Natura-ondarea balioetsi behar dugu

Natura-ondarea gure ingurumena da funtsean. Ingurumenetik (lurzorutik, mikrobioetatik eta faunatik, atmosferatik, uretatik, hezeguneetatik) sortu eta ondasun eta zerbitzuen fluxu bat hornitzen duten ondasunen stocka, horra natura-ondarearen definizioa. Ondasunen eta zerbitzuen fluxuak funtsezkoak dira ekonomiarako; hori dela eta, ekosistemen zerbitzuen hornidura (egungoa eta/edo potentziala) bermatu beharra jotzen dute zientzialariek iraunkortasunaren ideia oinarri. Izan ere, gure gizarteak iraungo bazu, ezinbestekoak dira zerbitzu horiek.

Ekosistemen zerbitzuak hondatzea *natura-ondarea* galtzea da, nahiz eta galera hori ez den adierazten errentaren ohiko neurrien indizeetan. Esaterako, herrialde batek bere baso guztiak ebaki ditzake eta arrantza-tokiak akaba ditzake eta, hala ere, bere BPG igo (Perrings, 2005).

Zerbitzuetako asko doako eta mugagabetzat jotzen dira. Alabaina, merkaturatu gabeko onurak merkaturatutakoak baino altuagoak dira normalean eta, batzuetan, baita balio-tsuagoak ere. Ekosistemen zerbitzuak aintzat hartzen direnean, modu iraunkorrean kudeatutako ekosistema naturalaren gaur egungo balio garbia askotan handiagoa da modu intentsibotan kudeatu edo moldatutako sistemarena baino. Esaterako, orain arte egin den ikerketarik sakonenetako batean, Mediterraneoko zortzi herrialdetako basoei loturiko balio ekonomiko merkaturatua eta merkaturatu gabea aztertu zen, eta egiaztatu zen egurraren eta zuraren balioa, oro har, herrialde bakoitzeko basoen balio ekonomiko osoaren heren batera ere ez zela iristen. Aldiz, basoaren erabilera zuzenaren baitan ez dauden beste balio batzuk aintzat hartuta (egur bilakatu ezin diren basoko produktuak, aisialdiko jarduerak, ibai-arroen babesa, karbonoaren harrapaketa eta basoaren erabilera pasiboa, kasu), horien guztien balioa basoen balio ekonomiko osoaren %25 eta %96 artekoa zela estimatu zuen ikerketa horrek (Millenium Ecosystem Assessment, 2005).

Gaur egun, ingurumenaren hondatzea dela medio, ekonomia-jarduera asko garatzeko muga nagusia natura-ondarea bera da askotan, ondare manufakturatua bezainbeste edo gehiago. Esaterako, arrantzaren kasuan, zer arrantzatu izatea muga handiagoa bihurtu da arrantzatze teknologia edo arrantza-ontzien kopurua baino. Gisa berean, egurraren produkziarako muga nagusia basoen eskasia da, eta ez zerrategien falta. Eta petrolioaren muga behinena hobi geologikoen agortzea eta atmosferak CO<sub>2</sub> xurgatzeko duen gaitasuna murriztea da, fintzeko ahalmena baino gehiago.

Berezko basoak eta arrain-populazioak muga bihurtzen hasten direnean, baso-landaketetan eta arrain-hazkuntzan inbertitzen hasi beharra izaten da. Horrelakoetan, natura-ondare ekoitziaren edo manufakturatuen beste azpi-kategoria bat sortzen da: «landutako natura-ondarea». Ondare horren adibide dira nekazaritzako, basogintzako, akuikulturako eta abeltzaintzako produktuak. Kategoría hori funtsezkoa da gi-

zakion ongizaterako, hortik sortzen baitira elikagai gehienak. Natura-ondarea lantzeko ahalmena izatea oso garrantzitsua da, horri eskerrak natura-ondarea eta ondare horretatik sortutako zerbitzuak zabaltzeko gaitasuna nabarmen hazten baita. Landutako natura-ondarea (nekazaritza) ondare manufakturatuek (traktoreak, gasolioa, ongarriak) eta natura-ondareak (lurzoru organikoa, ura) osatzen dute, baina azken-azkenean faktore mugatzailea natura-ondarea da.

Natura-ondarea baloratzeko metodologia konplexua da; izan ere, natura-ondarea ebaluatzeko, giza jardueraren eraginez eta giza ongizatean egindako ekarpenen eraginez magnitude biofisiko eta ekologikoetan gertatu diren aldaketak ezaugu behar dira (Farber *et al.*, 2006). Ekologia eta ekonomia (hau da, etxearen ikerketa eta etxearen administrazioaren ikerketa) adiskidetzeko ahaleginetatik sortu dira ingurumen ekonomiaren eta ekonomia ekologikoaren ikuspegi nagusiak. Ekosistemek, ondasun eta zerbitzuen sortzaile diren aldetik, betetzen dituzten funtzioak analisi ekonomikoan integratzeko modua jorratzen dute ikuspegi horiek.

Sistemek eskaintzen dituzten ingurumen-zerbitzuen garrantzia agerikoa da Costanzak eta haren laguntzaileek egindako estimazioetan (Costanza *et al.*, 1997). Horien arabera, planeta osorako aztertutako zerbitzuen urteko batez besteko balioa hauxe da: 33 bilioi \$ urtean ( $10^{12}$ \$), kontuan izanda estimazioa ez dela guztiz osoa aplikatutako metodoak ez direlako erabat ziurrak eta zehatzak eta bioma eta zerbitzu batzuk ez direlako aintzat hartu analisisian. Datu hori planeta osoko une horretako Barne-Produktu Gordinarekin alderatuz gero (18 bilioi \$ urtean), kontura gaitzke sistema ekologikoek zer garrantzi duten ekonomian, BPGaren ia bi halako (Pimentel *et al.*, 1992). Polinizatzaileek mundu osoan duten balioa ere kalkulatu da, baita uztetan duten eragin garrantzitsua ere; kontuan hartzekoa da datua: 65-70 mila bilioi \$ urtean (Kevan & Phillips, 2001).

Nahiz eta ekosistemen balioa neurtzeko aplikatzen diren metodoak zailak eta ez guztiz zehatzak izan, beharrezkoa da

sistema ekologikoek ekonomiari egiten dioten ekarpena behar bezala balioestea, era horretara gizartea kapital baliotsu horretaz ez gabetzeko. Izan ere, gizarteak, iraungo badu, nahitaezkoa du natura-ondare hori.

Vemuri eta Costanza (2006) areago doaz eta nazioaren ongizaterako adierazle bat proposatzen dute, natura-ondarearen balioa barne hartuko duena: National Well-Being Index (NWI) deritzona, hain zuzen. Egileek erakusten dute Giza Garapenaren Indizea (giza ondarea eta eraikitakoa edo manufakturatutakoa barne hartzen dituen) eta ekosistemen zerbitzuen balioaren indize bat (natura-ondarearen balioa estimatzeko km<sup>2</sup> bakoitzaren balioa kalkulatu) oso faktore garrantzitsuak direla aztertutako herrialdeetan ongizatearen gogobetetze-maila azaltzeko. Bi adierazle horiek bariantzaren %72 azaltzen dute, egile horien arabera.

## Ekologiaren iraunkortasuna oinarritzko baldintza da

Natura-ondarea giza eskalarako mugagabetzat eta doaneko ondasuntzat hartzen zen garaia joan zen; gaur egun, garapenerako mugatzat hartu beharko litzateke natura-ondarea. Ideia horixe dago ingurumenaren edo ekologiaren iraunkortasuna kontzeptuaren oinarrian. Ekologiaren iraunkortasunak esan nahi du natura-ondareari eustea; hau da, planetak produzitzeko duen ahalmenaren barruan bizitzea. Ekologiaren iraunkortasuna premia bizia da giza ikuspegitik; iraunkortasun horren helburua da giza ongizatea hobetzea, erabilitako lehengaien iturriak babestuz eta hondakinen hustubideak ziurtatuz.

Ingurumenaren edo ekologiaren iraunkortasunari buruzko funtsezko definizioa jasotzen da *input-output* arauan. *Output arauak* adierazten du jarduera jakin baten isurketek muga batzuen barruan egon behar dutela; tokiko ingurumenak isurketa horiek xurgatzeko daukan asimilazio-ahalmenaren muga barruan, hain zuzen, era horretara etorki-

zunean gerta daitezkeen isurketak xurgatzeko ahalmena de-gradatu ez dadin. *Inputaren arauak* bi balizko ditu, berriztagarriak eta ez berriztagarriak: a) *berriztagarriak*: baliabide berriztagarrien ustiatze-tasak baliabide horiek sortzen dituen sistema naturalak birsortzeko duen ahalmenaren arabera-koa izan behar du; b) *ez berriztagarriak*: baliabide ez berriztagarrien ustiatze-tasak ikerketaren eta inbertsioaren bidez ordeztu berriztagarriak garatzeko tasaren parekoa izan behar du. Baliabide ez berriztagarriak erabiltzeagatik sortutako diru-sarreraren zati bat ordeztu berriztagarriak garatzeko inbertitu beharko litzateke (Goodland & Daly, 1996).

Jardun iraunkorren ahalegina da biosferaren desoreka prebenitzea eta gizateriarentzako, baita etorkizuneko belaunaldientzako ere, ingurumena baldintza egokietan mantentzea. Egile batzuek ekologiaren legetan oinarritutako sistema ekonomikoa proposatzen dute, haien irudiko, planeta modu iraunkorrean erabiliko bada, ezinbestekoa delako printzipio ekologikoetan oinarritutako ekonomia (Cairns, 2006). *Iraunkortasun indartsua* kontzeptuak eskatzen du natura-ondareari eustea; izan ere, ordeztu ezintzat jotzen da. Garapen iraunkorrak, sinple azalduta zera esan nahi du: planeta honetan bizi behar dugula betirako bertan bizi nahiko bagenu bezala (Porrit, 2005).

## Elkarri erabat loturik daude ekologiaren iraunkortasuna eta gizartearen iraunkortasuna

Gizarte eta ekologiaren sistema osatzen duten elementuak azaltzeko logikan, aurrez aipatu eta definitu dugun natura-ondareaz gain, hori dira giza ondarea, gizarte-ondarea eta ondare manufakturatua. Horiek guztiak osatzen dute komunitate baten ondarea. Giza ondarean biltzen dira pertsonak, hezkuntza, osasuna, erakundeak, kultura-kohesioa... Eta ondare manufakturatuan, berriz, errepideak, etxeak, industriak eta, oro har, eraikitako produktuak. Gizarte- eta ekonomia-alderdiak (pobrezia, giza eskubideak) funtsezkoak dira garapen



iraunkorrerako, baina iraunkortasunerako baldintzetako bat da ekosistema natural baten barruan eta haren mugen baitan bizitzen ikastea; izan ere, ezin badugu gure biziraupen biofisikoa ziurtatu, ezingo dugu bestelako helbururik ere bete.

Modu globalean hartuta, ekologiaren iraunkortasuna eta gizartearen iraunkortasuna txanpon beraren bi alde dira. Izan ere, alde batetik, gizartearen iraunkortasuna ekologiaren iraunkortasunaren baitan dago: ekosistemen zerbitzuak (uren iragaztea, klimaren egonkortzea, etab.) eta baliabideak (elikagaiak, materialak) sortzeko naturak duen berezko gaitasuna hondatzen jarraituz gero, ondorioak larriak izango dira bai gizabanakoentzat eta bai herrialdeentzat: gero eta presio eta gatazka gehiago, osasun publikorako eta pertsonen segurtasunerako mehatxu gero eta gehiago... Bestalde, ekologiaren iraunkortasuna gizartearen iraunkortasunaren mende ere badago: biztanleria hazten ari da eta gizarte-sistemak ez du aukerarik ematen guztien beharrianak betetzeko; horren ondorioz, gero eta zailagoa da natura-ingurunea zaintzea eta babestea. Basoak ebaki egiten dira nekazaritzarako, larreak larregi ustiatzen dira, akuiferoak hondatu egiten dira, ibaiak eta itsasoak gehiegi erabiltzen dira, nahiz eta naturaren zati bat erreserba-eremu txikietan edo natura-parkeetan gorde. Gainera, kontuan izan behar da gizartearen eta ekologiaren arazoen muinean, giza jokabidea eta hortik sortzen den gizarte-dinamika dagoela.

Iraunkortasunera eramango gaituen prozesua da garapen iraunkorra. Hona hemen Brundtlandek nola definitu zuen (Brundtland, 1987): «Gaur egungo beharrianak asetzen dituen garapena, etorkizuneko belaunaldiek beren beharrianak asetzeko ahalmena arriskuan jarri gabe». Definizio horrek ondorio etikoak ditu, gaur egun bizi diren belaunaldiez gaindiko elkartasunari begirakoak; etorkizuneko belaunaldienganako elkartasunari begirakoak, hain zuzen. Baina horri gehitu behar zaio gaur egungo belaunaldien arteko elkartasuna ere; egoera okerreanean dauden lekuetan bizi diren belaunaldienganako elkartasuna, alegia.

Iraunkortasuna lortzeko bidean helburu garrantzitsuenetako bat da giza ondarea prestatzea, hezkuntza, osasun eta lanpostuen sorrera aldetik. Premiazkoa da garapenaren eta ingurumenaren artean sinergiak sortzea, *win-win* erako estrategietan: pertsonengan, prestakuntzan, osasunean eta baliabideen erabilera eraginkorraren sustapenean inbertituz.

Mundua hasi da onartzen gaur egun nagusi diren ekonomia-garapenerako ereduak ezin direla mundu osora hedatu, eta hortik sortu da, hein batean, iraunkortasunaren premia. Herrialde garatueta bizi bakoitzeko kontsumoaren eta hondakin-produkzioaren egungo mailak (ELGA) ezin dira zabaldu planetako gaur egungo biztanleria osora, eta are gutxiago etorkizuneko belaunaldien biztanleriara. Hori gertatuko balitz, natura-ondarea suntsituko genuke eta, ezin ahaztu, ondare horren baitan dago etorkizuneko jarduera ekonomikoa. Orobat, onartu beharrean gaude gehiegizko xahutzeak eta garapen-ereduen desorekak, etorkizun ez oso urrunean proiektatuta, egoera jasangaitzera eramango gaituela ingurumenaren eta biofisikaren ikuspegitik, eta horrek ere ekarri du iraunkortasunaren beharra. Iraunkortasunerantz bidea egiten hastea premia da; izan ere, mundu osoan hondatzen ari dira ekosistemak, eta horrek muga nabarmena ezartzen du denbora aldetik. Ez daukagu denborarik ametsetarako, espazio berriak sortu, ilargia kolonizatu edo itsasoaren azpian hiriak eraikitzeke eldarnioetan ibiltzeko; daukagun ingurumen bakarretik geratzen zaiguna salbatu behar dugu eta jada hondatuta dagoena lehengoratzeko inbertsioak egin behar ditugu (Goodland & Daly, 1996).

Natura-baliabideen erabilerak, oro har, gizakion ongizatea areagotzea ekarri du, baina ingurune eta pertsona-multzoz guztiek ez dute onura eta etekin bera jaso; areago, batzuei kaltea ere ekarri die erabilera horrek. Degradazioaren kostuak beste talde batzuetara edo etorkizuneko belaunaldietara igaro daitezke, eta horrek, bistan da, gatazkak sortzen ditu. Munduko biztanleriaren %20 inoiz ez bezalako

ongizate materialaz gozaten ari da, eta, aldiz, gutxienez beste %20 erabateko pobrezia-egoeran bizi da. Hain zuzen, aberatsenen %20k pobreenen %20k baino 60 aldiz gehiago irabazten du eta arrakala hori bikoiztu egin da azken 30 urteotan (Wackernagel & Rees, 1996).

Aurreko hamarkadan beharrezkoak izan ziren definizioak eta kalkulu kuantitatiboak; esaterako, planetarako aztarna ekologikoa kalkulatu zen. Gizateria osoak baliabideak eskuratzeko (elikagaiak, ura, hiri-lurzorua, energia) eta isurketak (karbono-dioxidoa) xurgatzeko beharko lukeen azalerari esaten zaio aztarna ekologikoa. Erabiltzeko moduan dagoen lurzoruarekin alderatu eta ondorioa da batez beste baliabideen erabilera Lurraren karga-ahalmena baino %20 handiagoa dela gutxi gorabehera. Gizakion eskariak 1980. urteaz geroztik gainditzen du planetaren ahalmena eta gaur egun ahalmen hori baino %20 handiagoa da eskaria (Wackernagel, 2002). Europan, esaterako, aztarna ekologikoa karga-ahalmenaren halako bi da batez beste (WWF, 2008).

Iraunkortasun globalera iristeko, pobreenen kontsumo-mailak hazi egin behar du eta, aldi berean, aztarna ekologiko globalak murriztu. Hori lortzea erronka zaila da egiaz; politika, erakunde eta jardueren esparru guztietan aldaketa garrantzitsuak egin behar dira horretarako.

## Badira irtenbideak ekologiaren bidetik

Naturak, eboluzioaren 3,8 bilioi urtetan, diseinu adimentsuko egiturak sortu ditu, eta horiek imita ditzakegu gizakion asmoetarako. *Biomimikak* naturaren ereduak ikertzen ditu eta haien diseinuak imitatzen ditu edo haien diseinu eta prozesuei erreparatzen die gizakion arazoak konpontzeko. Naturak garatutako egiturak egokituz teknologia iraunkorrak nola diseinatu ikastea, horra biomimikaren funtsa. Natura ikusteko eta balioesteko beste modu bat da eta natura-inguruetik ikas dezakegun horretan oinarritutako ikuspegia ekartzen du (Benyus, 2002).

Biomimikak naturako ideia hoberenak aztertzen ditu; besteak beste, zeta eta armiarmen begiak, maskorren zelulak eta giza garuna, fotosintesi-funtzioa eta DNA. Eta behin aztertuta, hainbat giza erabileratarako egokitzen ditu. Industriako aplikazio asko biomimikan oinarritutako ikerketen emaitza dira; adibide franko daude. Naturatik jasotako jakintza eredutzat hartu duten industria-diseinuen artean nabarmentzekoa da, adibidez, Lotusan margoa; Alemaniako enpresa batek sortu zuen margo hori loto-hostoaren egitura mikroskopioan oinarrituta. Egitura horrek edozein mota-tako partikula itsastea galarazten du.

Ekosistemen funtzionamendua da industria-ekologia deritzona garatzeko oinarria. Industria-ekologia horretan, osagaien arteko harremanak naturak daukan jokatzeko moduaren antzekoak dira, batez ere materia eta energiaren fluxuetan. Industria-ekosistemetan materialak birziklatzea beharrezkoa da sistemak irauteko, eta hor ere naturaren prozesu ziklikoak imitatzen dira (sehaskatik sehaskara) (Bermejo, 2005).

Bestalde, ekosistemen jokabidea azaltzeko sortu diren eredu kontzeptualak —*egokitze-zikloa* esaten zaion eredua, adibidez (Holling, 2001)— gizarte- eta ekonomia-sistemetarako ere aplika daitezke (Abel *et al.*, 2006).

## Pentsamoldea aldatu behar dugu

1972. urtean Meadows txostena deritzona argitaratu zen *Hazkundearen Mugei* buruz (Meadows *et al.*, 1972), eta han jada ohartarazten zen natura-baliabideen erabilera aldetik eta isurketak xurgatzeko gaitasunaren aldetik zer muga fisiko dituen planetak. Harrezkero, gizartea errotik berritzea aldarrikatu izan da, teknologia, kultura eta instituzioen aldaketaren bidez, era horretara gizateriaren aztarna ekologikoa Lurraren karga-ahalmenaren gainetik haz ez dadin. Hogei urteren buruan egileek beste txosten bat argitaratu zuten premisa berberekin eta ikuspegi baikorra eman zuten; izan

ere, Garapenari eta Ingurumenari buruzko Rioko goi-bilera-ekin bat etorri zen txostenaren argitalpena (Meadows *et al.*, 1992). Alabaina, azken liburuan, berriro ere egiaztatu da, teknologia eta erakundeak garatu arren, gizakion aztarna ekologikoak hazten jarraitzen duela. Baliabideen eskaria izugarria da gizakion aldetik, planetak eman ahal duena baino askoz handiagoa. Hain zuzen, eskariak %20 gainditzen du ahalmen hori (Meadows *et al.*, 2005). Egile horien arabera, aurreikus daiteke munduak etorkizun gutxi gorabehera iraunkorraren alde egingo duela, baina hori baino lehen, krisi global larriak gainditu beharko dituela eta, halabeharrez, aldaketak egin beharko dituela, *a posteriori*. Haien iritziz, beste hamarkada bat beharko da gehiegikeriaren ondorioak argi ikusteko eta beste bi hamarkada gehiengoak gertatutakoa onar dezan. 2012rako beste liburu bat argitaratzea aurreikusi dute, eta lehenbizikoa kaleratu eta berrogei urtera, behar bada izango dituzte behar beste datu arrazoi zutela frogatzeko.

Eraitza onak lortzeko premiazko esku-hartzeen artean hauek daude: ingurumen aldetik egokiak diren teknologietan inbertsio handiak; egokitzeko kudeaketa aktiboa; jarduera proaktiboak ingurumenaren arazoei garaiz heltzeko, ondorioak bete-betean jasaten hasi baino lehen, alegia; zerbitzu publikoetan inbertsio handiak (hezkuntzan eta osasunean, adibidez); gizarte eta ekonomia aldetik dauden desorekak murrizteko eta pobreziarekin amaitzeko neurri irmoak. Gainera, komunikazioa ezinbestekoa da baliabideak modu iraunkorrean kudeatzeko; izan ere, garapen iraunkorrrak ondo informatutako herritarrak behar ditu, aurrean ditugun egoera zailak konpontze aldera erabaki zuzenak hartzeko gai izango diren herritarrak. Premiazkoa da pentsamoldea aldatzea, eta, batez ere, gure artean eta naturarekin harremanetan jartzeko modua aldatzea. Horrela baino ezin dugu dugun oinez hasi iraunkortasuneranzko bide luzean.

Darwinen arabera, garai historiko zehatz batean ingurune jakin bateko baldintza zehatzetara hobekien moldatu diren organismoek irauten dute bizirik. Gerora, beste biologo ba-

tzuen ikerketen argitan, ikusi da talde-kohesioa eta elkartasuna ere funtsezko elementuak direla biziraupenerako. Bide beretik, Janine Benyus zientzialariak azpimarratu du organismoek elkarren artean agertzen dituzten mendekotasun eta sinbiosi-jokabideak liluragarriak direla, eta, horrenbestez, Benyusen irudiko frogatuta geratu da mutualismoa eta *elkartasuna* ere *oihaneko lege* direla.

*Ondorio modura*, esan dezakegu ingurumena ez dela luxuzko ondasuna. Ekosistemen zerbitzuek laguntzen dute bizitza-kalitatea hobea izaten, hainbat modutara lagundu ere, zuzenean eta zeharka, eta, era berean, planetaren balio ekonomikoaren zati handi bat osatzen dute. Ekosistemen zerbitzuak eta horien iturburua —natura-ondarea— izugarri hondatu ditu giza jarduerak, sistemen iraunkortasuna eta gizartea bera mehatxupean jartzeraino.

Bada aukerarik etorkizun iraunkorrerako eta desiragarri-rako, baina horretarako beharrezkoa da ikuspegi bat garatzea eta horren berri ematea. Esperantzarako arrazoietakoa bat da arazoa gizakiok sortu dugula, eta, beraz, gizakiok konpon dezakegula (Diamond, 2006).¶

## Bibliografía

- Abel, N., Cumming, D.H.M. & Andereis, J.M. (2006). Collapse and Reorganization in Social-Ecological Systems: Questions, Some Ideas, and Policy Implications. *Ecology and Society* 11: U698-U722.
- Begon, M., Townsend, C.R. & Harper, J.L. (2006). *Ecology. From Individuals to Ecosystems*. Blackwell Publishing, Londres.
- Benyus, J.M. (2002). *Biomimicry: Innovation Inspired by Nature*. Harper Perennial. New York.
- Bermejo, R. (2005). *La gran transición hacia la sostenibilidad. Principios y estrategias de economía sostenible*. Editorial La Catarata. Madrid.
- Brundtland, G.H. (1987). *Nuestro Futuro Común*. Organización de Naciones Unidas. New York.
- Cairns, J. (2006). Designing for Nature and Sustainability. *International Journal of Sustainable Development and World Ecology* 13: 77-81.
- Costanza *et al.* (1997). El valor del capital natural y de los servicios de los ecosistemas del mundo. *Nature* 387: 253-260.
- Daily, G. (1997). *Nature's Services. Societal Dependence On Natural Ecosystems*. Island Press. Washington.
- Diamond, J. (2006). *Collapse. How Societies Choose to Fail or Survive*. Penguin Books. New York.
- EEA (2006). *European Environment State and Outlook 2005*. European Environmental Agency.
- Farber, S., Costanza, R., Childers, D.L., Erickson, J., Gross, K., Grove, M., Hopkinson, C.S., Kahn, J., Pincetl, S., Troy, A., Warren, P. & Wilson, M. (2006). Linking Ecology and Economics for Ecosystem Management. *Bioscience* 56: 121-133.
- Goodland, R. & Daly, H. (1996). Environmental Sustainability: Universal and Non-Negotiable. *Ecological Applications* 6: 1002-1017.
- Holling, C.S. (2001). Understanding the Complexity of Economic, Ecological, and Social Systems. *Ecosystems* 4: 390-405.
- Hooper, D. *et al.* (2005). Effects of Biodiversity on Ecosystem Functioning: A Consensus of Current Knowledge. *Ecological Monographs* 75: 3-35.
- Koellner, T. & Schmith, O.J. (2006). Biodiversity, Ecosystems Function, and Investment Risk. *Bioscience* 56: 977-985.
- Kevan, P.G. & Phillips, T. (2001). The Economic Impacts of Pollinator Declines: An Approach to Assessing the Consequences. *Conservation Ecology* 5: 8. art.
- Mace, G. (2005). *The Current Status of Global Biodiversity*. International Scientific Conference: Biodiversity Science and Governance, Paris.
- McCauley, D.J. (2006). Selling Out on Nature. *Nature* 443: 27-28.
- Margalef, R. (1992). *Ecología*. Editorial Planeta. Bartzelona.
- Meadows, D.H., Meadows, D.L., Randers, J. & Behrens, W.W. (1972). *The Limits to Growth: A Report for the Club of Rome's Project on the Predicament of Mankind*. Universe Books. New York.

- Meadows, D.H., Meadows, D.L. & Randers, J. (1992). *Beyond the Limits: Confronting Global Collapse, Envisioning a Sustainable Future*. Chelsea Green. Post Mills, VT.
- Meadows, D.H., Randers, J. & Meadows, D.L. (2005). *Limits to Growth. The 30-year update*. Earthscan. Londres.
- Millennium Ecosystem Assessment (2005). *Ecosystems and Human Well-Being: A Framework for Assessment*. Island Press.
- Odum, E.P. (1964). *Ecología*. CECSA. Mexiko.
- Onaindia, M. & Amezaga, I. (2000). Seasonal Variation in the Seed Bank of Native Woodland and Coniferous Plantations in Northern Spain. *Forest Ecology and Management* 126: 163-172.
- Onaindia, M., Dominguez, I., Albizu, I., Garbisu, C. & Amezaga, I. (2004). Vegetation Diversity and Vertical Structure as Indicators of Forest Disturbance. *Forest Ecology and Management* 195 (3): 341-354.
- Perrings, C. (2005) *Economics and the Value of Ecosystem Services*. International Scientific Conference: Biodiversity Science and Governance, Paris.
- Pimentel, D., Stachow, U., Takacs, D.A., Brubaker, H.W., Dumas, A.R., Meane, J.J., O'Neil, J.A.S., Onsi, D.E. & Corzilius, D.B. (1992). Conserving Biological Diversity in Agricultural/Forestry Systems. *BioScience* 42: 354-362.
- Porrit, J. (2005). *Capitalism As If the World Matters*. Forum for the Future. Londres.
- Reid, W.B. (2006). Nature: The Many Benefits of Ecosystem Services. *Nature* 443: 749.
- Vemuri, A.W. & Costanza, R. (2006). The Role of Human, Social, Built, and Natural Capital in Explaining Life Satisfaction at the Country Level: Towards a National Well-Being Index (NWI). *Ecological Economics* 58: 119-133.
- Wackernagel, M. & Rees, W. (1996). *Our Ecological Footprint. Reducing Human Impact on the Earth*. New Society Publishers. Gabriola Island. Kanada.
- WWF (2008). *Living Planet Report*. WWF.



# Aldaketa eta konpromisoa

**SILVIO FUNTOWICZ<sup>1</sup>**

**ROGER STRAND**

European Commission - Joint Research Centre (Ispra, Italia)  
Bergen-eko Unibertsitateko Centre for the Study of the  
Sciences and the Humanities

Bizitzaren teknologia berriei buruzko eztabaidak ez du hasi behar gure etorkizunerako dituzten inplikazio etiko, ekonomiko eta politikoen ebaluaketarekin, baizik eta teknologia horiek desberdintasun eta bidegabekeriazko eredu globalekin berez lotuta nola dauden kritikatu. (Jackson 2002, 148. or.)

## Arriskutik eta erantzukizunetik harago

Zientzia eta teknologiaren etikaren azken galderak, oro har edozein etikarenak, hauexek dira: zer da ona?, zer da zuzena?, zer egin beharko genuke? Auzi horiek arras korapilatsuak izan litezke, dilema etiko konplexuak edo balio gatazka sakonak eraginez, baita ekintzaren izaera eta ondorioak ezagunak eta ulertuak direnean ere. Halere, zientzia eta teknologiari eta horiek gizaki, gizarte eta ingurumenarekin dituzten elkarrekintzei buruzko erronkei aurre egitean, zalan-tza sakonekin egiten dugu topo ekintzaren funtsezko izaerari eta horren etorkizuneko ondorioei dagokienez. Halaxe gertatzen da teknologia berrien garapen kasuetan —bio-, nano- eta enparauak—; baita gobernagarritasunaren kasuan ere,

gure zibilizazioak eta teknologiak sortutako arazoei —ingurumenaren kutsadura, naturaren degradazioa, eta klima aldaketa bezalako neurri handiko bestelako aldaketak barne— nola aurre egiteari buruzko galderetan.

Erantzukizunaren kontzeptuak hainbat alderdi ditu, garrantasunarena kasu. Hala ere, uste dugu ondorioen kontrolaren alderdia izan dela eta dela oraindik nagusi zientzia eta teknologiaren testuinguruan. Arma nuklearrak erantzukizunez biltegitratzeak ez du esan nahi liburuak publikoari irekitzeko eta misilak lapurtu eta jaurtiko balituzte guztiz gardenak izateko prest egongo ginatekeenik. Esan nahi du, aitzitik, biltegitratzea kontrolpean dagoela eta misilak ziur daudela (ezohiko gertakariren bat gorabehera).

Ondorioen kontrolak eta ezagutza fidagarriak konfiantza sendotzen du, gizaki modernoari ziurtasuna emanez, zientzia eta teknologiak sortutako sistema sofistikatuek babestuta. Konfiantzaren kontzeptua aireportura hegazkina hartzera edo ospitalera ebakuntza bat egitera doan hiritarrari ere aplikatzen zaio. Giddens-en (1990) aburuz, konfiantzak egoera mental batekiko baino zerbait gehiagorekiko konpromisoa dakar. Edonola ere, gure eztabaidaren puntu nagusia hauxe da: erantzukizunaren nozio horren atzean dauden kontrol eta ziurtasunaren ideala.

Teknologia baten aplikazioaren ondorioak ezagutzen ez diren egoeratan, aurreikuspenei eta probabilitate eta arriskuen kalkulari lotutako «zoriaren bezatzea» (Hacking 1990) izan zen europar zibilizazioak (eta beranduago zibilizazio globalak) rasionaltasun modernoaren birfundatzearen ziurgabetasunaren aurreko ekintza-printzipio gisa erantzukizuna ezartzeko mekanismo gisa erabili zuen soluzioa. Erantzukizunaren ikusmolde hori erori egiten da, itxuraz, etorkizunaren auresate fidagarririk ez badago, ezohiko gertakariren bat jazotzen bada (istripuz zein borondate txarrez), edo inplikaturako sistemen konplexutasunak arriskuaren ebaluaketan erabilitako lanabes tekniko eta zientifikoen kalkulu ahalmena gaingaitzen badu.

Weinberg-ek (1972), zientzia zuhurrak (*sound science*) edo ebidentzian oinarritutako arrisku ebaluaketek ebatzi ezin dituzten arrisku arazoak deskribatzeko, trans-zientzia terminoa plazaratu zuen, eta hurrengo hogeitaz hamar urteetan literatura eta praktika berri bat garatu dira ingurumen- eta teknologia-erronka handietan balio, ziurgabetasun eta konplexutasunaren presentzia adierazteko (Funtowicz eta Ravetz 1985 eta 1991, Wynne 1992). Horrela, galdera hauxe agertzen da: arduratsua al da adibidez arma nuklearren biltegitratzea, genetikoki eraldatutako organismoen argitalpena, edo arriskuaren ebaluazio eta maneiatze prozedura modernoek birtartezko partikula nanometriko komertzialen garapena gobernatzea, baldin eta susmatzen badugu ekintzaren ondorio berri, aurreikusen eta harrigarriek urte gutxitan prozedura horien emaitzak baliogabetuko dituztela?

Gainera, gobernagarritasun arduratsuen auzia arriskuaren ebaluaketako objektibotasunaren (balioen neutraltasuna edo interes pertsonalekiko independentzia) menpe al dago —arrisku ebaluaketek nahi gabeko ondorio guztiak aurreikusteko gai izango liratekeela onartuz—, kultur esparruari eta ikuspuntu moralari atxikitakoak aintzat hartu gabe? Horrela baldin bada, Douglas eta Wildavsky-ren (1982) arriskuaren kultur azterketak eta beste batzuek kolpe erabakigarria eman diote ideia horri (ikus orobat Schwarz eta Thompson 1990). Gobernagarritasunaren paradigma hori legitimatzeko beharrezkoa den konfiantza mailaren malgutasunaren auziak, beraz, gogoeta sakona eskatzen du.

Kritikariek, bestalde, arriskuaren ebaluaketa eta maneiatzeek gobernagarritasunaren azterketetan duten funtsezko lekua farolaren azpiko mozkorren anekdotarekin konparatu dute: giltzak galdu ditu eta farolaren azpian ari da bilaka, ez giltzak hor daudela pentsatzeko arrazoirik duelako, leku argitsu bakarra delako baizik. Saiakera hori, ikuspuntu filosofiko batetik, arazo politiko-praktikoak arazo teknikoetara —«konponketa teknikoak» (*technical fix*) deitutakoak— murriztea bezala dela argudia liteke (Ravetz 1971 eta oina-

rri-oinarrian Aristotelesen zentzuan). Kritika horren aurreko defentsa bi kategoria hauetako batean sartuko litzateke: metafisikoan, zera argudiatuz, unibertsoa leku razionala eta ez oso konplexua dela, non zientziaren metodoak erantzun egokiak eskainiko dituen; edo pragmatiko etsiarenean, galdera hau itzultzen baitu: zer besterik egin genezake?; hots, farolaren azpian jarraitzeak zentzugabea dirudien arren, ez da alternatiba razionalik sumatzen. Bi erantzun horiek ez dute kontuan hartzen farolaren argia ez dela betiko eta ahultzen ari dela, hari eusten dion konfiantza bezalaxe.

Artikulu honen helburua arriskuaren diskurtsoaren nagusitasunarentzako alternatibak eztabaidatzea da. Alternatiba horiek, gainera, erantzukizun kontzeptua berrikustea eskatzen dutela defendatuko dugu, etorkizuna kontrolatzeko desiratik askatuz eta bere dimentsio erlazionalari berriro lotuz: non gizakiek elkarri galdetu eta erantzuten dioten, eta funtsezkoago, elkarrekin bizi diren. Arriskuaren aurrean arduratsuak baldin bagara, egungo erronka globalei ongi erantzungo diegula pentsatzea baino, aldaketa garaiotan arretaz eta konpromisoz nola joka dezakegun galdetzen diogu geure buruari.

Adibide batek argi dezake gure ikuspuntua. Klimatologiak klima aldaketaren mehatxuaren berri eman die azken bi hamarkadetan politikari eta herritarrei. Hala eta guztiz ere, negutegi efektuaren isurketak eta energia-kontsumoa oso poliki ari dira jaisten, eta herrialde batzuetan hazten ere ari dira. Batzuentzat, IPCC eta enparauen oharpen zientifikoek eragina indartzea da bidea, klima aldaketaren ziurgabetasunari buruzko debate politikoak honezkero gaindituta egon beharko lukeela argudiatuz, adibidez (Brundtland 2009). Interes ekonomikoek eta osasun eta ingurumen auziei atxikitako beste interes batzuek ziurtasun eza batzuetan estrategikoki erabiltzen dutela egia den arren (Michaels 2008), badijadi, dena den, aurreikusitako klima aldaketaren ereduaren inguruan zalantza legitimoak daudela. Eredu horiek, analista batzuen arabera, transzientifiko gisa izendatutako lanabes teknikoek multzoan sartzen dira (Brooks 1972).

Isurketen murriztapen esanguratsuak hain du kostu handia, ezen beldur baikara auresateei buruzko zalantza legitimoak auresateok enpirikoki onetsi arte iraungo duela, hau da, beranduegi izango den arte. Bestela esanda, jokoan gehiegi dagoenean, ziurgabetasunaren saihestezintasunak legitimitasuna kentzen dio auresate printzipioari ekintzaren fundamentu gisa. Baldin eta estatu moderno batean arriskuari eta erantzukizunari begiratzen dion ekintza printzipioak *orainaldian ekiteko etorkizunaren auresatea ezinbestekoa dela* badio, ezinbestekoa da orduan ekintza publiko legitimatuko duen beste printzipio bat.

Funtowicz eta Ravetzek, zientzia post-normalaren kontzeptuaren bidez, hauxe defendatu dute: ingurumen- eta teknika-arrisku globalen aurrean, gertakariaren ondorioak eta hura gertatzeko ziurgabetasuna ezin dira banatuta aztertu (1992). Kalte larriek ahalegin handiagoa eskatzen dute ziurgabetasunak identifikatzerakoan, pisuzko arrazoiengatik. Ondorioak larriak direnean, orobat, inplikaturako aldeak desinteresatutzat jotzea oso zaila izaten da. Areago, estralurtar batek baizik ezingo luke arazo globaletan ez interesatu. Ziurgabetasuna, beraz, esparru publikoan ez dagokio soilik zientzi ezagutzaren baliozkotasunaren inguruko barneko auziei, baizik eta baita kanpoko auziei ere, adituaren zeregina narenak barne. Ezagutzaren gizarteko herritarrak zera ulertzerira iristen direnean, ez espezializazioak ez ezagutzak ezin direla balioei buruz neutralak izan zentzu positibista zaharrean, ez du ekintzaren printzipio teknokratikoak bakarrik huts egiten. Zientzia zuhurrak bermatutako ekintza prebentiboan bertan ere akats bera hautematen dute, non arriskua ren maneia demokratizatua izan daitekeen arren, arriskua ren ebaluaketak eginkizun teknikoa izaten jarraitzen duen (Europar Batzordea 2000, Funtowicz eta Strand 2007). Ondorioz, berriro ere, konfiantza galtzen da eta, horrenbestez, baita ekintzaren legitimazioa ere.

Hori dena ezaguna da. Funtsezkoa da, halere, arazoaren saktotasunaz jabetzea. Ikus ditzagun, adibide gisa, auziari eran-

tzuteko bi saiakera ezagun. Lehena filosofiatik dator: Hans Jonas-en (1979) erantzukizun printzipioa. Jonasek ingurumen arazo globalak jorratu zituen bereziki, eta ekintza printzipio gisa hauxe proposatu zuen: norberaren ekintzak etorkizun urruneko giza bizitza duinarekin bateragarria izan behar du. Printzipio horrek, modu deontologikoan formulatuta egonik, kostu eta onuren arabera arriskuaren analisiaren mugen arazoa saihesten duela dirudi. Dena den, argi dago auresate baten menpe dagoela: nola jakin dezaket nire ekintzek etorkizun urrunean ondorio hau edo aurkakoa eragingo duten? Zentzu honetan, printzipio horrek laguntza eskasa eskaintzen du ziurgabetasunaren aurrean (ikus orobat Dupuy 2004), eta arriskuaren analisiaren baliokidea da. Izan ere, kritika hori iraunkortasun printzipio orori zuzen dakioko.

Bigarren adibidea ziurgabetasuna esparru bayesiar bateko probabilitate kuantitatiboetara murriztean datza. Kasu honetan ez da gehiago eztabaidatuko «zoriaren bezatzearen» ezintasunari buruz, probabilitateak uste-gradu gisa baliozta daitezkeen heinean. Ortodoxoen eta erabaki bayesiarraren teoriaren arteko eztabaida luze eta beroan sartu gabe, ez dago zalantzarik hori kontrolaren ideiarekin eta, horrenbestez, erantzukizunaren ideiarekin lepotik gertatzen dela. Debate beroa ez zen horretaz aritu; aitzitik, probabilitate objektiboak erdietsiz kontrola lortzeko aukerari buruzko eztabaida izan zen.

Azkenik, beraz, ekintzaren printzipioaren arazoa konpondu gabe geratzen da. Hori onartuta dagoela erakuste aldera, hainbat esperimentu egin izan dira arreta edo prekaizio printzipioarekin, parte hartze publikoarekin, gobernagarritasun zabalari buruzko ideia gutxi gorabehera argiekin, eta azterketa baten bidez egitasmoen onarpen etikoaz ardurtzen diren batzordeen moduko erakunde «etikoekin». Ez ditugu hemen garapen horiek aztertuko; hala ere, ikusteke dago egungo arazo globalak nola konpon ditzaket. Esperimentu horien balioan sinesten dugu, baina analisi auto-kritiko sakon bati heltzen ez badiote, egungo egitura teknokratikoak berrindartzera irits daitezke. Orduan, «etika»

baztertu egingo litzateke prozesu demokratiko politikotik, eta beste diziplina aditu arrunt modura normalduko litzateke (Strand eta Nydal 2008, Tallacchini 2009).

## Intermezzo: ekintza etorkizunaren eraikuntzan finkatu

«Ebaluaketa normatibo jarraitua» deitu zutenari buruzko lan akademikoan, Dupuy et Grinbaum-ek (2005) konpromisoaren premia azpimarratu zuten. Etorkizuna auresan ezin bada, balizko alternatiba bat da nolakoa izango den erabakitzea. Horrela, ziurgabetasunaren arazoarentzako beren soluzioa honetan datza: agertoki ezberdinen eraikuntza ahalbidetzen duten eta moralki konprometituak ez diren auresateak etorkizuneko agertoki desiratu baten eraikuntzak ordeztu ditzala. «Eraikuntza» zentzu literal zein metaforikoan erabiltzen da: lehenik, agertoki desiratu asmatu eta geroaldi «proiektatu» batean kokatu behar da. Orduan, gauzen bilakaera naturalaren ebaluaketa normatibo jarraituaren bidez, pixkanaka helburua lotuko da, denboran zehar etengabeko zuzenketak egitearen poderioz. Ideia, beste-la esanda, etorkizuna eraikitzea da, auresatea baino.

Ebaluaketa normatibo jarraituaren ideia, izan, bakarra da, zentzu honetan: ziurgabetasunaren arazoa ebazten du plano kontzeptualean. Errealistak izatearen bizkarretik egiten du, hain zuzen xede espezifiko onuragarri baten alde konpromisoz jardungo duen subjektu historiko ahobatezko eta ahaltsua eskatzen baitu.

Karl Popperren (1945) filosofian aurki daiteke dagoeneko utopiekiko eta beste xede onuragarri berdingabeekiko konfiantzaren bazterketa arrasto bat, akatsetatik ikastea eta hutssegindako xedeen ezagutzaren bitartez aurrera egitea estrategia sozial eta politiko burutsuagoa dela iradokiz.

Hanna Arendt-ekin (1951), Dupuy eta Grinbaumen soluzioaren kritika are zorrotzagoa da: errealistak izateari uztearen arazoa ez da horrela porroterantz goazela. Etorkizuna

oraindik existitzen ez den heinean, horri buruzko gure teoriak ezin izango dira inoiz faltsutu. Izan ere, Alemania Naziaren eta Stalinen agintepeko Sobiet Batasunaren historiak erakusten duenez, etorkizuneko ia edozein agertoki izan daiteke eraikia, hain da malgua gizakia. Gizartea xede bakar baterantz bideratzea eta aukeren aniztasuna ezabatzea izugarrikeriak ekar ditzakeen bide bat da. Ebaluaketa normatibo jarraituen eta politika totalitarioen artean halako egitura-antzekotasuna egoteak ez du ezinbestez esan nahi haiek moralki arbuigarriak, arriskutsuak edo akastunak direnik. Gure ustez, haatik, hauxe esan nahi du: ebaluaketa normatibo jarraituak arriskutsuak direla arrisku handiko auzi globalei begira, klima aldaketarena kasu.

## Ekintza orainaldian finkatu: ongi abstraktutik gaizki konkretura

Etorkizunaren auresatearen eraginkortasun ezak eta etorkizunaren eraikuntzaren arriskuek hauxe ondorioztatzen garamatzate: beharrezkoa da printzipio berri bat justifikatzea egungoak bezalako ziurgabetasun egoeratan ekintza justifikatzeko. Aipa dezagun, bide batez, literatura etiko akademikoan harrigarriro topatzen ez den egitate hauxe, alegia, sufrimendu kantitate ikaragarria dagoela munduan. Jendea gerratan eta zapalkuntza baldintzatan hiltzen da, habitat eta natur baliabide berriztaezinak oso azkar ari dira desagertzen, material kimiko berriek ingurumena kutsatzen dute, eta gizakiaren ondorioz beste espezieen desagertzen eritmoa inoiz baino azkarragoa izan daiteke. Bestela esanda, egungo ziurgabetasuna ez dago halabeharrez jarduera txarren existentziarekin lotuta. Ziurgabetasuna etorkizuneko ondorioen auresate zehatzari —oraintxe ekiteko ezinbestez behar ez dena— dago lotuta. Kasu askotan jakina da zer bide hartu behar dugun, kutsadura eta baliabide berriztaezinen kontsumoa nola murriztu. Arazoa, dena den, hauxe da, ezein estatu edo erakundek ez duela ekintza kolektiboa —egungo go-



bernagarritasun paradigman legitimoa izateko zientzi razionaltasuna eskatzen duena— mobilizatzeko botererik.

Zergatik aurrean? Zientzi auresatea Galileo eta bere jarraitzaileekin asmatu zen: mendetan zehar, fisika ikasleek zehaztasunez aurrean ahal izan dute ibilbide parabolikoan jaurtitako partikula baten etorkizuneko higidura. Edo, nahiago bada, auresateak ahalbidetu du kanoi bat bere xedeetara heltzea. Egun, ordea, honakoa da susmoa: auresatearen eginkizuna, klima aldaketari eta beste auzi global batzuei dagokienez, ez da izango etorkizuna nolakoa izango den deskribatzea, horrenbestez zer egin behar dugun jakiteko. Badakigu zer egin behar den. Auresatearen eginkizuna ekintza kolektiboaren mobilizazioari autoritatea eskaintzea da. Gaur egun hori gauzatzea zaila dela jakinik, gogora dezagun Galileori eta europar zientziaren ondorengo garapenari buruzko Husserl-en (1936) analisia: jatorrian metodoa zena, mundu ikuskera bilakatu zen. Orain, erronka globalak ezagutzaren bidez konpontzen ez diren heinean, mundu ikuskera horren hegemoniari azkena eman behar zaio.

## Auzi nagusia: gizateria

Egin behar dela dakigun hori egiteko ekintza kolektiboa mobilizatzea baldin bada erronka nagusia, zerk eragozten gaitu? Galdera gaizki planteatuta dago. Kontua ez da eragozten gaituzten traba edo oztopoak daudela; arazoa agentziarik eza da (*agency*, ez zentzu instituzionalean ulertua, zentzu filosofiko-soziologikoan baizik, ekintzarako botere gisa).

Absurdoa lirudike agentzia ezagatik nahigabetzea gizakia ilargia zapaltzera eta lorpen sinestezinetara iritsi den garaiotan. Haatik, dozena bat lagun baino ez ziren izan ilargira iritsi zirenak. Auzi globalak bestelakoak dira, guztiok izan behar baitugu agente.

Gure analisia zuzena bada, «zer egin eta zergatik?» galderatik «nola egin dezakegu —kolektibitate gisa—?» galderara zuzendu beharko genuke arreta. Auresateen eta kostu eta

onuren analisisien ordez, egungo egoeraren analisiak du lehenentasuna, agentzia ezaren arrazoiak barne.

Liburu ugari idatzi dira «modernitate» izeneko zibilizazio mota honen ezaugarriei eta gizaki modernoak mundu honetan duen lekuari buruz: gizaki gaitua (*empowered*), agian, baina baita alienatua ere. Gure iritziz, Hanna Arendten (1968) analisia bereziki esanguratsua da. Arendtek argi uzten du nola igarotzen den «industria iraultzaren hasieratik masa modernoan zigorra izan diren» deserrotze eta ez funtsezkotasunetik bakardadera: inongoak ez diren eta inon ongi etorriak ez diren gero eta gizabanako gehiago sortzen ditu gure gizarteak. Batzuetan, hori modu literal bezain krudelean gertatzen da: langabetuak, ezagutzaren ekonomian lan egiteko gai ez direnak, errefuxiatuak, aberrigabeak, gerra biktimak. Beste batzuetan ez hain modu zuzenean, gizarte industrial eta postindustrialetako bakardade, zorigaizto eta egonezinarengatik agian. Izan ere, Arendtek agertzen duenez, «lanaren industrializazioak» ez die soilik lanik gabe geratu direnei eragiten, baita langileei ere, zeinen balioa «aisialdira» bihurtutako komunitate baten baitako lanean, ekimenean eta agentzian neurtzen baita.

Azterketa hori erraz heda daiteke lan testuinguru industrializatutik harago, gizarte modernoetako espezializazio gaituaren testuingurura. Parte hartze publikoaren aurkako argudio hutsalek zuzen arrazoitzen duten bezala, zirujauak ez lituzke ebakuntzak prozedura demokratikoen bidez antolatu behar. Espezializazioak, horrela, agentzia modu bakartu bat dakar: ezagutza eta egia bakartu egin behar dira adituek ez diren iritzi ugariatik, komunitatearen iritzietatik.

Dagoeneko ezar genezake agentzia ezaren eta auresate katastrofiko gisa ulertutako krisi globalen —klima aldaketaren kasua, esaterako— arteko lotura sakona: adituek auresandako katastrofea, aditu bakartuen abileziaren emaitza gisa, funtsean apolitikoa da. Ezagutza mota horren inplikazio pragmatikoa beste agentzia mota bakartu baten esku dago, hots, esku hartze teknikoaren esku. Auresandako katastrofea es-

ku hartze teknikoa egiten duen agenteari zuzendutako auresatea da. Ez du beste xederik. Aitzitik, ez dago auresateen gaineko botererik duen bestelako agentzia kolektiborik.

Katastrofeari ematen zaion enfasiak, agentzia kolektiboaren gabeziaren arazoa konpondu beharrean, areagotu egiten du. Gizateriak —«persona guztiak» gisa ulertuta— ekin dezan, ekintzak gehiago oinarritu beharko luke orainaldian etorkizunean baino; baita, gainera, gure orainaren zati den praxi izeneko horretan ere, hots, gure bizitza politikoan, gure komunitate bizitzan, eta ez hainbeste diskurtso teknikoan (zientifikoan zein elite politikoarenean). Hain zuzen, bada funtsezko arazo bat ingurumen erronketan, horiei heltzeko moduari buruzko auzian, hots: praxiaren marjinazioa lan aditu bakartuaren aurrean.

Zein dira bizitza komunitario, sozial eta «ez espezializatuaren» galderak? Lehena, agian, hauxe: prest al gaude bizitza hori sakrifikatzeko? Arendtek erregimen totalitario nazi eta estalinistaz egiten duen interpretazioaren arabera, gizateriari eta giza bizitzari buruzko gure ideiak ezin dira segurutzat jo. Hitler eta Stalinekin kontzentrazio eremuak asmatu zituztenean, ez zuten sufrimendu modu berri bat soilik asmatu. Izateko modu berri bat asmatu zuten: edonolako agentziarik gabeko gizakia; azkenik, gizatasun eta nortasunik gabea. Planetak bizi duen arriskuaz ohartarazten gaituen diskurtso ekologistaren aurka —geure diskurtsoa ere izan dena—, proposatu nahi genuke ez dela planeta arriskuan dagoena. Geu gaude arriskuan, subjektibotasun eta (oraingo eta etorkizuneko) agentzia kolektibo gisa: giza eskubideen atzean dagoen gizakia, gizatasun eta itxaropenaren gizakia.

## Ondorioak

Konfiantza (batik bat, adituenganako konfiantza) ziurtatu ezin den garaiotan, arriskuen gobernagarritasuna kudeatzeko hainbat integrazio eta parte-hartze modu planteatu eta esperimintatu dira. Esperimentu horiek, sarritan, etsigarri

eta nekagarriak izan dira eta «parte hartzearen tirania berriaren» diskurtsoa ekarri dute (Cooke eta Kothari 2001).

Egun galdetu beharko genuke, bere garaian Arnstein-ek egin zuen bezala, zer egiten ari diren parte hartzearen ize-nean (Arnstein 1969) eta zenbat aurreratzen ari den egun-goaren bestelakoa den gorputz politikoari dagozkion auzi politikoak ebazteko aspaldi diseinatutako egitura konstituzional eta instituzionalen birdefinizioan.

Parte-hartze modu berrietaranzko trantsizioak aldaketa bat ekarri behar du ezagutzaren sorkuntzaren helburu eta prozesuan. Artikulu honetan defendatu dugunez, konpromisoa abiapuntu egokiagoa da, aldaketa garaiotan, arriskuan oinarritutako erantzukizuna baino; ezagutza praktikoaren sorkuntza kolektiboarekiko konpromisoa, gizateria finkatzeari begira gaizkia prebenitzeko testuinguru gisa.

## Esker ona

Gure esker ona Jan Reinert Karlsen eta Kjetil Rommetveit-i, artikulu hau prestatzerakoan egindako iruzkin eman-korreatatik. Mila esker Ana Delgadori gure arreta Michael Jacksonen lanerantz bideratzeagatik.¶

[Xabier Eizagirrek euskaratua]

---

1. Artikuluko ikuspuntuak egileari dagozkio, eta ez halaberrez Europako Batzordeari.

## Bibliografia

- Arendt, Hannah (1951) 1973 *The Origins of Totalitarianism*, New York, Harcourt, Brace & Co.
- Arnstein, Sherry R. (1969) «A Ladder of Citizen Participation», *JAIP* 35(4): 216-224.
- Brooks, Harvey (1972) «Letter to Editor (Science and Transcience)», *Minerva* 10: 484-6.
- Brundtland, G.H. (2007) «UN Special Envoy for Climate Change Gro Harlem Brundtland Addresses the 15th Session of the UN Commission on Sustainable Development». Hitzaldia: UN Headquarters, New York, 2007-09-05 ([www.regjeringen.no/en/dep/ud/selected-topics/un/Brundtland\\_speech\\_CSD.html?id=465906](http://www.regjeringen.no/en/dep/ud/selected-topics/un/Brundtland_speech_CSD.html?id=465906)).
- Cooke, Bill eta Kothari, Uma (arg.) (2001) *Participation. The New Tyranny?*, Londres, New York, Zed Books.
- Douglas, M. eta Wildavsky, A. (1982) *Risk and Culture: An Essay on the Selection of Technological and Environmental Dangers*, Berkeley (CA), University of California Press.
- Dupuy, J.-P. (2004) «Complexity and Uncertainty. A Prudent Approach to Nanotechnology», in European Commission Community Health and Consumer Protection: *Nanotechnologies: A Preliminary Risk Analysis on the Basis of a Workshop Organized in Brussels on 1-2 March 2004 by the Health and Consumer Protection Directorate General of the European Commission*, Brusela, European Communities, 71-93.
- Dupuy, J.-P. eta Grinbaum, A. (2005) «Living with Uncertainty: Towards the Ongoing Normative Assessment of Nanotechnology», *Techné* 8(2): 4-25.
- Europar Batzordea (2000) *Communication from the Commission on the Precautionary Principle (COM 2000:1)*, Brusela.
- Funtowicz, S.O. eta Ravetz, J.R. (1985) «Three Types of Risk Assessment: A Methodological Analysis», in C. Whipple eta V.T. Covello (arg.) *Risk Analysis in the Private Sector*, New York, Plenum, 217-232.
- Funtowicz, S.O. eta Ravetz, J.R. (1991) «A New Scientific Methodology for Global Environmental Issues», in R. Costanza (arg.) *The Ecological Economics*, New York, Columbia University Press, 137-152.
- Funtowicz, S.O. eta Ravetz, J.R. (1992) «Three Types of Risk Assessment and the Emergence of Post-Normal Science», in S. Krimsky eta D. Golding (arg.) *Social Theories of Risk*, Westport (CT), Greenwood, 251-273.
- Funtowicz, S.O. eta Ravetz, J.R. (2007) «Models of Science and Policy», in T. Traavik eta L.C. Lim (arg.) *Biosafety First: Holistic Approaches to Risk and Uncertainty in Genetic Engineering and Genetically Modified Organisms*, Trondheim, Tapir Academic Press, 263-278.
- Giddens, A. (1990) *The Consequences of Modernity*, Stanford (CA), Stanford University Press.
- Hacking, Ian (1990) *The Taming of Chance*, Cambridge, Cambridge University Press.

- Husserl, Edmund (1936) 1970 *The Crisis of European Sciences and Transcendental Phenomenology*, Evanston, Northwestern University Press.
- Jackson, Michael (2002) «Biotechnology and the Critique of Globalization», *Ethnos* 67(2): 141-154.
- Jonas, Hans (1979) *Das Prinzip Verantwortung: Versuch einer Ethik für die technologische Zivilisation*, Frankfurt am Main, Insel-Verlag.
- Jonas, Hans (1985) *The Imperative of Responsibility*, Chicago, University of Chicago Press.
- Michaels, David (2008) *Doubt Is their Product: How Industry's Assault on Science Threatens Your Health*, New York, Oxford University Press.
- Popper, Karl (1945) *The Open Society and its Enemies*, Londres, Routledge & Kegan Paul.
- Ravetz, J.R. (1971) 1998 *Scientific Knowledge and its Social Problems*, New Brunswick (NJ), Londres, Transaction Publishers.
- Schwarz, M. eta Thompson, M. (1990) *Divided We Stand. Redefining Politics, Technology and Social Choice*, Hemel Hempstead, Harvester Wheatsheaf.
- Strand, R. (2001) «The Role of Risk Assessment in the Governance of Genetically Modified Organisms in Agriculture», *Journal of Hazardous Materials* 86: 187-204.
- Strand, Roger eta Nydal, Rune (2008) «Nanoética buena - nanotecnología buena», *Mundo Nano* 1(1): 61-79.
- Tallacchini, M. (2009) «From Commitment to Committee», *Seminar* 597: 2-6.
- Weinberg, Alvin (1972) «Science and Trans-Science», *Minerva* 10(2): 209-222.
- Wynne, B. (1992) «Uncertainty and Environmental Learning: Reconceiving Science and Policy in the Preventive Paradigm», *Global Environmental Change* 2: 111-127.

# Erantzukizuna eta Iraunkortasun-Zientzia mundu global batean: paradigma berri baterako urratsak

**IGNAZIO AIESTARAN**

EHUko Filosofia Saileko irakaslea

## Historia ebolutiboa Antropozenoan

Maiz, komunikabideetan, politikan, unibertsitatean eta eguneroko kulturaren gizakiok ahazten dugu zein izan den gizaberearen lekua planetaren eboluzioan zehar<sup>1</sup>. Unibertsitate hertzen diren ikasleei galdetzen diet, kasu, noiz agertu zen gure espeziea Lurraren historian eta orokorrean gutxik ematen didate erantzun zuzena fakultate batean zein bertzean. Mundu globalizatu eta hiper-teknologiko batean, non iraunkortasun ezaren aztarnak ateratzen diren edonon, nola ikasten dute etorkizunean munduaren ibilbidea kudeatuko duten hiritar helduak izanen diren haurrek? Zer ikasten dute, gizakion lekua eta jatorria curriculum akademikoetan sartzen ez badira? Zein izanen da beren erantzukizuna etorkizuneko mundu globalean iraunkortasun ezaren aurrean?

Gizakiaren lekua eta denbora hemen eta orain historia geologiko eta ebolutiboan kokatzen baldin baditugu, David Christian historialariak egin duen moduan<sup>2</sup>, datuak bitxiak dira giza ugaztunen historia berriaren ikuspegitik, baita kosmologiaren eskalatik ere. Unibertsoaren historia globa-

lak 13.000 milioi urte inguru ditu, kosmologia modernoaren arabera. 13.000 milioi urte zati mila milioi berdin 13 izanez gero, Christianek unibertsoaren historia 13 urteko egutegi berezi batean konprimitu du, hurrengo kronologian zatiturik: 1) Unibertsoaren historia Eguzkia eratu arte —13 urtetik 4,5 urtera arte—; 2) Lurraren eta biziaren historia —4 urtetik 3 astera arte—; 3) Giza historian Paleolitikoaren aroa —3 egunetik 6 minutura arte—; 4) Giza historian Holozenoaren aroa —6 minututik 15 segundora arte—; eta 5) Aro Modernoa —azken 15 segundo—. Egutegi kosmologiko horretan hurrengo gertakizun ebolutiboak azpimarra ditzakegu:

- Duela 13 urte inguru Big Bang edo Leherketa Handia izan zen.
- Duela 12 bat urte izarrak eta galaxiak agertu ziren.
- Duela 4,5 urte inguru Eguzkia eta horren planeta-sistema eratu zen.
- Duela 4 bat urte lehenengo organismo bizidunak sortu ziren.
- Duela 7 hilabete lehenengo organismo zelulanitzak agertu ziren.
- Duela 3 hilabete Pangea eratu zen, lur-masen multzoa, nondik geroago gaurko kontinenteak aldentuko baitziren.
- Duela 3 aste meteorito baten inpaktuak dinosauroen iraungitzea kausatu zuen. Hortik aurrera ugaztunak hedatzen hasi ziren arian-arian.
- Duela 3 egun hominidoak agertu ziren Afrikan.
- Duela 50 minutu *Homo sapiens*-a sortu zen Afrikan.
- Duela 26 minutu gizakiak Australia eta Papua Ginea Berria heldu ziren.
- Duela 6 minutu gizakiak Amerikara ailegatu ziren.
- Duela 5 minutu lehenengo nekazari-komunitateak edo baserri-komunitateak agertu ziren.
- Duela 3 minutu lehenengo hiri-zibilizazio alfabetatuak sortu ziren.



- Duela minutu bat inguru zibilizazio klasikoak garatu ziren, Txina, Persia, India eta Mediterraneokoa, baita Amerikan lehenengo nekazari-zibilizazioak ere.
- Duela 24 segundo Eurasiaren batasun motza suertatu zen Inperio Mongolaren garaian eta Europan Izurri Beltza sortu zen.
- Duela 15 segundo Afroeurasiako eta Amerikako giza komunitateak batu ziren hartu-emaneko «mundu sistema» bakar batean, apika lehen sistema globalizatzailea agerraraziz.
- Duela 6 segundo Industria-Iraultza hedatu zen Europan zehar.
- Duela 2 segundo Lehen Mundu Gerra lehertu zen.
- Azken segundotan giza biztanleria 5.000 milioira heldu zen eta geroxeago kasik 7.000 milioira. Gobernu batzuek arma atomikoak erabili dituzte Bigarren Mundu Gerratik aurrera. Segundo honetan gizaki gutxik Ilargian oina jarri dute, eta bertze batzuek elektronikaren eta informatikaren iraultza teknologikoa ekoiztu dute edo giza espeziearen arazo sostengaezinak ikertzeari ekin diote.

Egutegi kosmologiko horren arabera, gizakiak 50 minutu ditu jatorritik, eta soilik 6-4 segundotan jarri du arriskuan bere etorkizuna Lurraren gainean. Giza ugaztunaren ingurumen-inpaktuaren datuak azken mendeetan ez dira behingo kontua. Orain dela 11.000-10.000 urte inguru «prehistoria» bukatu zen, eta Holozenoa hasi zen, azken glaziazioaren bukaeratik Kuaternarioko azken epoka geologikoa, gidaliburu estandarren arabera. Orain, ordea, Holozenoa bizi dugun garaian Antropozenoa deitzea proposatu dute aditu batzuek, Paul J. Crutzen Kimikan Nobel saridunak kasu<sup>3</sup>. Vladimir I. Vernadsky eta Pierre Teilhard de Chardin-ek elkarrekin hausnarturiko ideia bati jarraituz, zeinaren arabera giza noosferak natur biosfera aldatu duen, Crutzen eta bertze zientzialari batzuk ausartu dira gizakia eragile geologiko bat bilakatu dela baieztatzeraz, higaduraren eta erupzioen parekoa izanik<sup>4</sup>. Industria-iraultzatik gaur egunera arte, Holozenoa bu-

katu da, gizakiak ingurumenean zuen eragina aintzat hartuta, eta epoka berri batean gaude, Antropozenoan, non lurrazala eta atmosfera aldatu ditugun: urtegiak eta ibaien ura pirlatzea sortu, giza populazioa eta hirigintza handitu, bioaniztasuna txikitu, lurpeko erregaia atera eta berotegi-efektu gassak askatu ditugu, bertzeak bertze, eskala geologikoan.

Geologiak auresaten zuen hemendik aurrera Holozenoaren egonkortasuna 7.000 urtekoa izanen zela, baina epoka honetan bizi izan den espezie bakar batek, *Homo sapiens*-ak, izugarritzko aldaketak bultzatu ditu bai biosferan bai dinamika planetarioaren mugetan. Duela gutxi, Stockholm-eko Unibertsitateko Erresilientzia-Gunean aritzen den Johan Rockström-ek eta Amerika, Australia eta Europako hogeita zortzi zientzialarik —Paul J. Crutzen-ek ere— *Nature* aldizkarian Lur-mugei eta atari kritikoei buruzko ikerketa sakon bat karrikaratu dute<sup>5</sup>, non Lur-dinamikan sistema nagusiak ezegonkortzen dituzten faktoreak agerian utzi dituzten, baita tupusteko aldaketa ez-linealak sor ditzaketen faktoreak ere. Dinamika planetarioan bederatzi prozesu giltzarri atzean ditu talde zientifiko horrek:

1. Klima-aldaketa
2. Bioaniztasuna (lehortarra zein itsastarra) galtzea
3. Nitrogeno eta fosforoaren ziklo globaletan interferentziak
4. Ozono-geruza estratosferikoan suntsidura
5. Ozeanoen azidifikazioa
6. Ur gezaren kontsumo globala
7. Lurralde-erabileran aldaketak
8. Kutsadura kimikoa
9. Aerosol-kontzentrazio atmosferikoa

Talde zientifiko horren iritziz, bederatzi muga eta atari kritikoko horietako hiru urratu ditugu: klima-aldaketarena, bioaniztasuna galtzearena eta nitrogenoaren zikloarena. Bertze lau prozesu mugak haustear daude gure planetan: ur gezaren kontsumo edo erabilera globala, basoak laborantza bihurtzea, ozeanoen azidifikazioa eta fosforoaren zikloan aldakuntza. Antropozenoa heldu zaigu ezbairik gabe. Eskala geo-

logiko globalean gure planeta aldatzera ausartu gara, jakiteke zeintzuk diren horren mugak eta atariak, zeintzuk diren horren konplexutasuna eta balioa. Oraindik ez dugu ulertu zein den Lur-sistema edo Ama Lurraren historia, eta are gutxiago zein den biziaren historia. Gure planetaren historia, bertze inon ezagutzen ez dugun bezala, biziari lotuta dago. Lurraren historiaz berba egitea, biziaren historiaz hitz egitea da. Biak lotuta daude, baina oraindik ez dugu dinamika hori konprenitu. Koldo Nuñez geologoaren hitz ederretan<sup>6</sup>:

Lehenengoz urpeko izakiak, ondoren, oso gero, lehorraldekoak eta airekoak, Lur oso-osoa kolonizatu arte. Izaki bakunak, izaki konplexuak, izugarri ederrak zein itxurabakoak, bizirik airean, Lurraren azalean zein lur azpian 3.000 metro-tara, pozik poloetako izotzetan eta 113° zentigradoko uretan, mendien tontorretan eta ozeano-fosetan izugarritzko presio barometrikoen pean eta iluntasun ilunenean. Mikrometroaren azpiko izakiak, milaka behar direla gramo bakar bat pisatzeko eta denbora frakzio txiki batez baino bizi ez direnak. Edo izaki izugarri handiak, ehun metrotik gora izatera iritsitakoak, ehunka tonako pisukoak eta milaka urte izatera iristen direnak, basoen lekuko estatiko gisa. Bost begitako animaliak edo mila oinekoak, radar ultrasonikoen nabigatzaileak, hamarkada metro-tako hego-luzera iristen zuten planeatzaileak. Imajinazioaren bertigoa sortzen duen bizitza izugarri anitza. Etengabe eraldatzen den bizia, bat-batean suntsipen masiboak jasaten dituena, klima-aldaketa, erupzio bolkaniko indartsu edo meteoritoen talka izugarrien ondorioz, edo milaka urtetan ezer gutxi aldatzen den bizitza. Baina beti aldatzen ari dena. Inoiz ez geldirik, beti mugimenduan.

Mugimendu aldakor hori gu geu gara, eta gure ingurumena ere bai. Horren guztiaren emaitza gure planetaren historia da, non azken unetan ugaztun arraro batek Antropozenoa asmatu duen.

## Lur-Sistema Zientziatik Iraunkortasun-Zientziara

Gure planeta sare bat da, biziaren sarea. Azken buruan, gizakiaren ikuspegitik iraunkortasuna sare horretan bizirik irautea da. Albert-László Barabási-ri jarraiki Begoña Arra-

tek primeran deskribatu digun eran, sare bat lotura bidez konektatutako nodo talde gisa definitzen da. Sareen zientziak honako puntuak nabarmentzen ditu<sup>7</sup>:

1. Sare gehienek oso nodo konektatuen kopuru urri bat izaten dute, eta konexio gutxiago dituzten nodo ugari. Internet, World Wide Web, zelula, sare sozialak eta abar horrelakoak dira, esaterako.

2. Sistema naturaletan, nodoak elkarren artean oso konektatuak egon ohi dira, eta, horri esker, sistemak gai izaten dira akatsen eta asalduren aurrean dagozkien oinarrizko funtzioak mantentzeko. Hala ere, hori gertatzen da muga edo atari batera iritsi arte, nondik aurrera sistemaren erresiliencia apurto edo aldatuko den. Kontraesana dirudien arren, sistema naturalen ezaugarri horrek, batetik, indarra ematen die sistemei, baina, bertetik, kaltebera bilakatzen ditu era-soekiko. Konexio gehien dituzten nodoak desagerraraziz gero, sarea desagiteko arriskua gertatzen da: adibidez, bazka-sare bateko espezie bat, konexio kopuru handia duena, desagertuz gero, ekosistemak desoreka larria jasan dezake.

3. Sare erreal gehienek modular hierarkikoa izaten dute, non hainbat modulu bereiz daitezkeen. Modulu txikiak oso lotuak daude elkarren artean, eta hierarkia bati jarraiki konbinatzen dira. Hala, gutxiago konektatutako modulu handiagoak osatzen dituzte. Sareko nodo konektatuenek moduluen arteko komunikazioari eusten diote. Egitura modular hierarkikoa diseinu-abantailak dakartzkie sareei, sistemaren atalek bakoitzak bere aldetik eboluzionatzea ahalbidetzen baitu. Sistema naturaletan eboluzioak banakako funtzioei eragin diezaike modulartasun horri esker.

4. Ezinbertzekoa da sare jakin batean egitura ezagutzea, sare horrek irudikatzen duen sistema konplexua eta haren funtzionamendua behar bezala ulertzeko. Giza ezagutzaren eta giza jardueraren esparru ugariari ekarpen handia eginen die zer sare mota dauden jakiteak, bai eta sare horien arkitektura, topologia, funtzionamendua eta bertzelako hainbat propietate ezagutzeak ere.

5. Sistema konplexuei dagozkien sareek sistemaren osagai bakartuek —nodoek— ez dituzten propietateak dituzte. Sistema konplexuen propietate horiei «propietate gainerakor» —«*emergent property*»— deritze. Konplexutasun gainerakor hori hurrengo esaldian laburtzen ohi da: sistema konplexuak beren osagaien arteko batura baino gehiago dira.

Lur-zientzietan sare hori Gaia izeneko hipotesitik hasi zen ikasten igaro den mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan. James Lovelock-ek asmatuako eta Lynn Margulis-ek lagunduriko hipotesi horretatik Lurraren atmosferaren tenperatura eta konposizioa, planetako bizitza osoak, hau da, biotak, aktiboki erregulatua dago. Gaia hipotesiaren arabera, Lurra, bere osotasunean, makina zibernetiko erraldoi edo organismo zentzudun batek bezala jokatzen du<sup>8</sup>. Lovelocken erranetan, Lurra (hau da, Gaia) sistema zibernetiko baten modura miatzen du korrante zientifiko horrek<sup>9</sup>:

Gaia, geroztik, zorua, ozeanoak, atmosfera eta biosfera hartzen dituen unitate konplexu gisa definitu dugu: multzoak, sistema zibernetiko edo feedback-sistema bat osatzen du, zein planetako ingurugiroa biziarentzat.

Korrante zientifiko horrek postulatu du lurrazalaren, atmosferaren eta ozeanoen baldintza fisikoak eta kimikoak biziarentzat egokiak badira eta izan badira, biziaren beraren presentziari esker izan dela<sup>10</sup>, elkarrekiko eboluzio batean sortuak izanik. Tenperatura, itsasoaren gazitasuna eta atmosferaren konposizioa egonkor mantendu dira, aldaketa gutxirekin, ehunka milioika urtetan zehar, Lurra «planeta sinbiotiko»<sup>11</sup> bat delako. Horregatik, Gaia (edo Lurra) «aristotelikoa» da platondarra baino», «biziaren eta ingeniarietza-sistemaren logika zirkularra» barne-hartzen baitu<sup>12</sup>. Logika horri jarraiki, sistema baten erresilientzia (*resilience*) dugu agerian.

Biziaren sarearen erresilientzia apurtzen denean, kolapsoa dugu, non bai natura-sistemak bai gizarte-sistemak desegiten baitira. Giza historian zehar zibilizazio batzuk desagertu dira ekosistemen erresilientzia apurtu dutela kausa, Jared Diamond-ek ikertu duen moduan, zibilizazioen bukaera

«suizidio ekologiko oharkabea» izanik<sup>13</sup>. Orain funtsezko galdera hurrengo dilema da: zeintzuk dira elkarri eragiten dioten prozesu eta mekanismo konplexuak sistema sozioekologiko elkarganatuaren gainerakortasunean, iraunkortasunean zein kolapsoan?<sup>14</sup>

Azken urteotan, halakoari erantzuna emateko, *Earth System Science* edo Lur-Sistemaren Zientziatik adar berri bat aterata da, *Sustainability Science* edo Iraunkortasun-Zientzia izenekoa. Horrela, kongresu baten ondorioz, 2001. urtean ehun zientzialarik baino gehiagok Amsterdameko Deklarazioa<sup>15</sup> sinatu zuten, adar hori bultzatzeko asmoz. Txosten horrek bortz puntu azpimarratzen zituen:

1. Osagai fisiko, kimiko, biologiko eta gizatiarrez beteriko sistema autoerregulatuak bakar baten modura jokatzeko du Lurrak.
2. Gizakien ekintzek eragin handia izaten dute Lurraren ingurumenaren era askotan, berotegi-efektua sortarazten duten gas emanaldiez eta klima-aldaketaz gain.
3. Aldaketa globala ulertezina da «kausa-efektua» paradigma sinple batetik. Gizakiak bultzaturiko aldaketek kate-efektu anitz kausatzen dituzte, bata bestearen segidan, eta bide konplexuei jarraitzen diete Lur-Sisteman zehar.
4. Atari kritikoak eta tupusteko aldaketak ditu ezaugarritzat Lur-Sistemaren dinamikak. Gizakiaren ekintzek tupustean leherraraz ditzakete halako aldaketak, ingurumenarekiko eta Lurreko biztanleekiko ondorio larriak sortaraziz.
5. Ingurumen-parametro giltzarri batzuen arabera, azken milioi erdi bat urtetan sorturiko natura-aldakortasunaren tartetik at kokatu da Lur Sistema.

Txosten horren bukaeran nazioarteko eskaera bi aldarrikatzen ziren:

1. Premiazkoa da Lur-Sistemaren kudeaketan estrategia eta administrazio globaletarako esparru etiko bat.
2. Beharrezkoa da ingurumen globalaren zientzia-sistema berri bat.

Amsterdameko Deklarazioaren ondoren, Lur-Sistemaren Zientziaren paradigma berriaren auzi metodologiko nagusiak ebaluatzeko programa bat proposatu zuten. Horretarako, David Hilbert matematikariak bere garaian prestaturiko programa hartu zuten eredutzat. Parisko Matematikaren Mundu-Biltzarrean, 1900. urtean, Hilbertek izugarritzko programa bultzatu zuen, XX. mendeko matematikaren aurrerapenak ebalua zitezen, 23 auzi formulatuz. Antzeko ideia eutsiz, egile askok Lur-Sistemaren «programa hilbertiar bat»<sup>16</sup> aurkeztu zuten, 2001ean IGBP (*International Geosphere-Biosphere Programme*) edo Nazioarteko Geosfera-Biosfera Programak antolaturiko kongresu batean. Programa horren helburua 23 auziz osaturiko ikerketa-eremu bat izan zen XXI. mendean garatzeko, lau multzotan banaturik, hots, auzi analitiko, metodologiko, arauemaile eta estrategikotan bereizturik. Programa horren helburu eta auziak honakoak dira:

#### A. Auzi analitikoak

1. Zeintzuk dira ekosferaren bizi-organoak funtzionamendu eta eboluzioaren ikuspegitik?
2. Zeintzuk dira patroi dinamiko nagusiak, telekonexioak eta atzeraelikadura-begiztak makineria planetarioan?
3. Zeintzuk dira elementu kritikoak (atariak, botila-lepoak, trantsizioak) Lur-Sisteman?
4. Zeintzuk dira planetaren aldakortasun naturalaren denbora-eskalak eta erregimen berezigarriak?
5. Zeintzuk dira perturbazio antropogenikoen eta teleperturbazioen erregimen garrantzitsuak Lur-Sistemaren mailan?
6. Zeintzuk dira giza ekintzak aldatu ahal dituen ekosferaren bizi-organo eta elementu planetario kritikoak?
7. Zeintzuk dira eskualde kalteberenak aldaketa globaletan?
8. Nola prozesatzen dira tupusteko eta muturreko fenomenoak naturaren eta gizartearen arteko elkarreraginetan?

*B. Auzi operatiboak*

9. Zeintzuk dira makroskopioak (*macroscopes*) eraikitze-ko printzipioak, hots, ordena sistemikoen item guztiak batera iraunaraziz, etengabe xehetasunak gehitzen dituzten Lur-Sistemaren irudikapenak?
10. Zeintzuk dira Lur-Sistemaren eredueta erdietsi behar diren konplexutasun- eta bereizmen-mailak?
11. Eskualdeek eta organoek era ahulean akoplaturiko konposizio baten modura Lur-Sistema deskriba daiteke, eta pieza horietatik makineria planetarioa berreraiki daiteke?
12. Zein izan daiteke estrategia global eraginkorrena, Lur-Sistemaren datu aipagarrien seriea sortzeko, transformatzeko eta integratzeko?
13. Zeintzuk dira teknika hoberenak ezohiko gertakizunak aztertzeko eta, ahal dela, aurrezateko?
14. Zeintzuk dira metodologia egokienak natura-zientzien eta gizarte-zientzien arteko ezagutza integratzeko?

*C. Auzi arauemaileak*

15. Zeintzuk dira printzipio eta irizpide orokorrak etorkizun iraunkorrak eta ez-iraunkorrak bereizteko?
16. Zein da Lurraren karga-ahalmena?
17. Zeintzuk dira eremu iristerrazak baina jasanezinak naturaren eta gizateriaren arteko elkarrekiko eboluzioaren espazioan?
18. Zer natura mota nahi dute gizarte modernoek?
19. Zeintzuk dira ingurumenaren kudeaketa globala gidatu beharko luketen berdintasun printzipioak?

*D. Auzi estrategikoak*

20. Zein da arintzeko eta egokitzeko neurrien konbinazio hobeena aldaketa globalari aurre egiterakoan?
21. Zein da erreserba naturaletan eta eremu kudeatutan zatitze hobeena Lurraren azalean?



22. Zeintzuk dira aukerak eta ohartarazpenak, geoingeniaritza eta aldakuntza genetikoa bezalako irtenbideen aurrean?
23. Zein da ingurumen eta garapen globalen erakundeetarako sistema eraginkor eta eragingarri (*efficient and effective*) baten egitura?

## Panazearen aurkako zientzia eta erantzukizuna

Hans Joachim Schellnhuber-ek —Alemaniako Klima-Eraginaren Ikerkuntzarako Potsdam Institutuko zientzialariak eta Nazio Batuen Klima Aldaketaren Gobernuarteko Panelko kideak— Iraunkortasun Globalaren Zientziaren programa hori «bigarren iraultza kopernikarra»<sup>17</sup> dela adierazi du, zientzia-aldaketa berri horrek jauzi metodologiko eta operatiboa dakar eta. Ildo horretatik, William C. Clark, Paul J. Crutzen eta Hans Joachim Schellnhuberrek baieztatu dute Iraunkortasun Globalerako Zientzia «paradigma berri bat» dela. Zientzia-mota hori iraultza zientifiko berri eta paradigma hasiberria dela azaltzean, Thomas S. Kuhn-en iraultza zientifikoaren egituraren filosofia berreskuratu dute.

Hemen ikuspuntu hori jorratzeko lekurik ez dudan arren, bertze argitaraldi batzuetan<sup>18</sup> paradigma berri horren osagai epistemologiko, axiologiko eta heuristikoak aztertu ditut, ondorio batzuetara helduz. Horietako bi nagusi antolatuko ditut ahalik eta azkarren. Alde batetik, zientzia-mota horrek paradigma baten antza hartu du, baina paradigma horren estrategia eta metodologia ez dira paradigma kuhniarrenak. Kuhnek deskribaturiko paradigma-mota «matrize diziplinarra»<sup>19</sup> da, hots, zientzialariek diziplina baten barruan egiten duten matrizea. Iraunkortasun Globalerako Zientzia, ordea, matrize transdiziplinarra da, programa hilbertiar berrian ikusi den eran, non natura-zientziak eta gizarte-zientziak bat datozen edo elkartzen diren (Kuhnek erabilitako iraultza zientifikoetan eta paradigmetan, berriz, zientzia-ereduak fisikatik eta kimikatik harturiko adibide historikoak

dira gehienbat, kasik gizarte-zientziarik ezean). Bertzalde, maisulanean agertu arren, osagai axiologikoek zeregin eskasa izan dute Kuhnen paradigmaren analisisian<sup>20</sup>. Iraunkortasun Globalerako Zientziaren paradigma post-kuhniarrean erantzukizunak eta etikak gero eta zeregin handiagoa izan dute, ikusi den eran: Amsterdameko Deklarazioan «ethos» berri bat eskatzen zen, eta programa hiltbertiar berrian bortz auzi arauemaile agertzen ziren, horietako bat berdintasun printzipioena izanik.

Bukatzeke asmoz, etorkizunerako galdera bat: nola elkar ditzakegu ezagutza eta erantzukizuna zientzia transdiziplinar eta iraunkor batean? Horri ihardestekotan, Elinor Ostrom Ekonomian Nobel saridunak emaniko gomendio bat hartuko dut aintzat: ez dago «panazea unibertsalik»<sup>21</sup>. Beritze material ezberdinetatik urrea ateratzeko eta osasun-arazo ororen aurkako sendagaia eskuratzeko, Bepizkunde Aroan alkimistak gai unibertsal baten bila aritu izan ziren. Horixe da «filosofoen harria» izeneko edo «panazea unibertsal» deiturikoa. Anglosaxoiek «commons» deitzen dituzten edo gure artean ongi «komun» izendaturikoetan, berriez, ez dago errezeta unibertsalik, ezta konponbide unibertsalik ere. Sistema eta sare komunetan konponbidea guztion ardura da. Komunalen kudeaketan eta ikerkuntzan ez dago irtenbide bakarrik, ezta behin betiko konponbiderik ere, batak bat, guztion ardura delako. Horretarako, ezagutzaren eta erantzukizunaren banaketa-sistemak edo sare banatuak hedatu behar ditugu. Esaldi batean laburturik: klima-aldaketa bezalako arazo globaletan konponbidea ez zaigu zeruetatik eroriko, ezta goiko agintariengandik ere. Hala ekonomian, nola bizi-kalitatean, ez dago panazearik, errearen eta mirarizko sendagaiaren garaia igaro delako. Bakoitzak bere mailan ardura-mota bat du ahalegin iraunkor horretan, bai bere ezagutzaren sisteman, bai bere erantzukizunaren sarean. Horrek erran nahi du mundu global, konplexu eta transdiziplinar batean bizi garela.¶

1. Garapen Iraunkor eta Ingurumen Hezkuntzarako UNESCO Katedrak eta Eusko Jaurlaritzak lagundutako UNESCO 08/20 ikerkuntza proiektuaren emaitza da artikulu hau.
2. Christian 2004: 502-503.
3. Crutzen 2002: 23; horrez gain, ikus Steffen, Crutzen eta McNeill 2007: 614-621.
4. Cf. Ayestaran 2008: 145-157.
5. Rockström et al. 2009: 472-475.
6. Nuñez 2006: 10.
7. Arrate 2008: xii-xv.
8. Sagan eta Margulis 1987: 32-39.
9. Lovelock 1996: 31-32.
10. Lovelock 1996: 208.
11. Margulis 1998.
12. Sagan eta Margulis 2007: 172-184. Hain zuzen, aipamen horiek 172. orrialdean daude.
13. Diamond 2005: 6.
14. Costanza, Graumlich eta Steffen (arg.) 2007: 17.
15. Moore III Underdal, Lemke eta Loreau 2002: 207-208.
16. Ikus programa hilbertar berri hori hurrengo aipamen eta orrialdeetan: Schellnhuber eta Sahagian 2002: 21; Clark, Crutzen eta Schellnhuber 2004: bereziki 8-14; Costanza, Graumlich eta Steffen (arg.) 2007: 420 hain zuzen ere.
17. Schellnhuber 1999: C19-C23.
18. Ayestaran 2009a: 509-519; Ayestaran 2009b: 65-82.
19. Kuhn 1990: 222hh.
20. Adibidez, ikus Kuhn 1990: 225.
21. Ostrom 2007: 15181-15187. Baita ere Ostrom Janssen eta Anderies 2007: 15176-15178.

## Bibliografia

- Arrate, Begoña 2008: *Biziaren sarea ehuntzen*. Andoain: Elhuyar.
- Ayestaran, Ignacio 2008: «The Second Copernican Revolution in the Anthropocene: An Overview», *Revista Internacional de Sostenibilidad, Tecnología y Humanismo* 3, 145-157.
- Ayestaran, Ignacio 2009a: «La ciencia de la sostenibilidad como paradigma post-kuhniano: elementos heurísticos, epistémicos y axiológicos», in Jesús Alcolea et al., *Actas del VI Congreso de la Sociedad de Lógica, Metodología y Filosofía de la Ciencia en España*, Valentzia: Universitat de València, 509-519.
- Ayestaran, Ignacio 2009b: «La segunda revolución copernicana de Kant a Kuhn: el paradigma de la sostenibilidad y la ética del cambio climático», *Daimon: Revista de filosofía* 47, 65-82.
- Christian, David 2004: *Maps of Time: An Introduction to Big History*. Berkeley eta Los Angeles, California: University of California Press.
- Clark, William C.; Crutzen, Paul J.; eta Schellnhuber, Hans Joachim 2004: «Science for Global Sustainability. Toward a New Paradigm», in Hans Joachim Schellnhuber, Paul J. Crutzen, William C. Clark, Martin Claussen eta Hermann Held (arg.), *Earth System Analysis for Sustainability: Report on the 91<sup>st</sup> Dahlem Workshop*, Cambridge, Mass., eta Londres: The Massachusetts Institute of Technology Press & Dahlem University Press, 1-25.
- Costanza, Robert; Graumlich, Lisa J. eta Steffen, Will (arg.) 2007: *Sustainability or Collapse? An Integrated History and Future of People on Earth. Report on the 96<sup>th</sup> Dahlem Workshop*. Cambridge, Mass., eta Londres: The Massachusetts Institute of Technology Press & Dahlem University Press.
- Crutzen, Paul J. 2002: «Geology of Mankind: The Anthropocene», *Nature* 415, 23.
- Diamond, Jared 2005: *Collapse: How Societies Choose to Fail or Succeed*. New York, Londres, Dublin, Victoria, New Delhi eta Johannesburgo: Penguin.
- Kuhn, Thomas S. 1990: *Iraultza zientifikoaren egitura*. Donostia: Elhuyar Kultur Elkartea eta Elkar.
- Lovelock, James 1996: *Gaia: Lurraren biziaz ikuskera berria*. Donostia: Gaiak.
- Margulis, Lynn 1998: *Symbiotic Planet: A New Look at Evolution*. New York: Basic Books.
- Moore III, Berrien; Underdal, Arild; Lemke, Peter; eta Loreau, Michel 2002: «The Amsterdam Declaration on Global Change», in Will Steffen, Jill Jäger, David J. Carson eta Clare Bradshaw (arg.), *Challenges of a Changing Earth*, Berlin: Springer-Verlag, 207-208.
- Nuñez, Koldo 2006: «Ama Lurra Biziduna», *Hemen* 12, 7-16.
- Ostrom, Elinor 2007: «A Diagnostic Approach for Going Beyond Panaceas», *Proceedings of the National Academy of Sciences*, 104. liburukia, 39. zbk., 15181-15187.
- Ostrom, Elinor; Janssen, Marco A. eta Anderies, John M. 2007: «Going Beyond Panaceas», *Proceedings of the National Academy of Sciences*, 104. liburukia, 39. zbk., 15176-15178.

- Rockström, Johan et al. 2009: «A Safe Operating Space for Humanity», *Nature* 461, 472-475.
- Sagan, Dorion eta Margulis, Lynn 1987: «Ekologiaren ikuspegi berria. Gaia hipotesia», *Elhuyar* 9, 32-39.
- Sagan, Dorion eta Margulis, Lynn 2007: «Gaia and Philosophy», in Lynn Margulis eta Dorion Sagan, *Dazzle Gradually: Reflections on the Nature of Nature*, Sciencewriters Books / Chelsea Green Publishing, Vermont, 172-184.
- Schellnhuber, Hans Joachim 1999: «'Earth system' Analysis and the Second Copernican Revolution», *Nature* 402, C19-C23.
- Schellnhuber, Hans Joachim eta Sahagian, Dork 2002: «The Twenty-three GAIM Questions», *Global Change Newsletter* 49, 20-21.
- Steffen, Will; Crutzen, Paul J. eta McNeill, John R. 2007: «The Anthropocene: Are Humans Now Overwhelming the Great Forces of Nature?», *Ambio*, 36. liburukia, 8. zbk., 614-621.

# Globalizazioa, osasuna eta iraunkortasuna

**KOLDO MARTINEZ**

Nafarroako Ospitaleko Zainketa Bereziko Mediku Espezialista eta Bioetikan Masterra

Laburbilduz: bizitza oro elkar loturik dago. Denok ihesi ezineko mutualitate sare batean gaude harrapaturik... Zerbaitek norbait zuzenean ukitzen duenean, denok ukitzen gaitu zeharka.

*Martin Luther King<sup>1</sup>*

## Sarrera

Osasun on bat herri guztientzat nazioarteko helburu gisa onartua izan da. Zentzu horretan, lasai baieztatu dezakegu azken mendean bizi-itxaropenaren arloan aurrerapausoak egin direla. Baina aberats eta txiroen arteko osasun ezberdintasunak dirau, eta etorkizuneko osasun perspektibak hein batean geroz eta gehiago globalizazio prozesu berrien menpe daude. Iraganean globalizazioa batez ere prozesu ekonomikotzat hartu da. Egun, gertakari orokor bezala ikusten ahal da, geurre gizartea agudo birtaxutuz doan faktore eta gertakari multzo zabal baten ondorio.

Azken urteotan, bi marko berri eskaini dira globalizazioa eta osasuna ulertarazteko<sup>2,3</sup>. Lehenbizikoak kritikotzat hartzen du faktore ekonomikoen eragina; bigarrena, aldiz, glo-

balizazio ekonomikoaren eta nazioarteko gobernantzaren eraginetan zentratzen da batez ere. Biak, garrantzitsuak eta egiazkoak izan arren, ene ustez, motz gelditzen dira, globalizazioaren prozesuak osasunean duen eraginaren gaiak marko zabalagoa exijitzen baitu, holistikoagoa, bai herrien osasunaz bai globalizazioaz kontzepzio zabalago batean oinarrituta egon behar duena.

## Osasuna eta bere determinanteak

Mundua geure inguruan geroz eta interkonektatuago eta konplexuago den une honetan, giza osasuna ere bere determinante ekologiko, sozio-kultural, ekonomiko eta instituzionalen ondorio bateratu gisa ulertzen da geroz eta gehiago. Horrexegatik, osasuna geure ingurugiro natural eta sozio-ekonomikoaren egoeraren eta iraunkortasunaren maila handiko indize integratzaile bat bezala har daiteke<sup>4</sup>.

Determinante horien izaera eta kausaltasun maila herrien osasunaren multi-kausaltasun konplexua kontzeptualiza dezakeen oinarrizko marko batean konbina daitezke<sup>5</sup>. Natura ezberdineko osasun determinanteen artean bereizteko, ego-kia dirudi faktore sozio-kultural, ekonomiko, ekologiko eta instituzionalen arteko ohizko ezberdintasuna azpimarratzea. Aipatutako faktoreak kausaltasun maila hierarkiko ezberdinetan aritzen dira, kausaltasun katean kokagune desberdinak dituztelako. Osasun ondorio batera daraman gertaeren kateak hurbileko eta urruneko kausak ditu; hurbileko faktoreek zuzenean eragiten dituzte eritasuna ala osasun irabaziak; urrunekoek, aldiz, kate kausal horretan oso atzean egoteaz gain, hainbat bitarteko faktoreez dihardute<sup>6</sup>. Gainera, determinante kontestualak ere badira. Makro-mailakoak balira bezala har ditzakegu, osasunaren hurbileko eta urruneko determinanteak mugatzen dituztelako, faktoreok jardun duten eta garatzen diren testuingurua osatzen laguntzen dutelako.

Hala ere, ezin dugu ahantzi determinanteok arlo eta maila guztietan eta maila guztien barne interakzionatzen dutela

bide konplexu eta dinamikoez populazioarengan osasuna ekoizteko. Beste aldetik, gauzak zailago bihurtzeko, osasunak berak determinante horiengan ere eragina du.

1997an, Estatu Batuetako *Institute of Medicine* delakoak zera baieztatu zuen: «etxe barneko eta nazioarteko osasun arazoetan bereizketak egitea baliagarritasuna ari da galtzen eta, areago, askotan mingarria izan daiteke»<sup>7</sup>. Geroz eta hurbilago omen gaude denok. XX. mendearen iraultzarik handienetarikoa bat, historialari baten hitzetan, denbora eta distantziaren deuseztapen birtuala da<sup>8</sup>. Diogenesek sortu omen zuen «munduko hiritar» espresioa Kristo baino lau mende lehenago, baina berria dena egungo integrazioaren abiadura, zabalera eta sakontasuna da.

Eta ezagutzen dugun nazioarteko epidemiaren lehen kasua Kristo baino 430 urte lehenago izan bazen, Atenasko plagarekin, egun, herri eta estatu guztiek, beren barne arazoez gain, nazioarteko arriskuen transferentziaz arduratu behar dute ere<sup>9</sup>, hein handi batean aro biokultural berri batean bizi garelako<sup>10</sup>.

## Globalizazioa

Prozesu eta gertakari espektro zabal bat izendatzeko erabiltzen den terminoa da globalizazioa. Prozesu eta gertakari horien artean, askok osasunarekin harremana daukate. Globalizazioa aipatu izan da, une berean, integrazio orokorraren eta talde eta egitura sozialen desintegrazioaren, identitate konpartituen eta banakako alienazioaren, geografia-aren amaieraren eta nazionalismoen berragertzearen, eta geroz eta kooperazio handiagoren eta pertsona eta taldeen arteko neurrigabeko lehiaketaren kausa eta emaitza bezala<sup>11</sup>. Globalizazioa era askotako joera teknologiko, kultural, ekonomiko, instituzional eta ingurugirokoen ko-eboluzio interaktiboa da, imajina ditzakegun eskala espazio-tenporal guztietan<sup>12</sup>. Horrexegatik, egungo globalizazioa nazioarteko interakzio kultural, ekonomiko, politiko, sozial eta teknolo-



gikoen areagotzea da, transnazional egituren ezarpenera eta maila global, nazioz gaindiko, nazional, erregional eta lokaletan, prozesu kultural, ekonomiko, ingurugiroko, politiko eta sozialak integrazio orokorrera daramatzana<sup>13</sup>. Prozesu erabat konplexua, beraz.

Globalizazioa definizio eta zafratutako esanahi asko duen terminoa da<sup>14</sup>. Baldintza globalek erabaki ekonomikoetan geroz eta eragin handiagoa izan dezaten, ondasun, kapital, teknologia, zerbitzu eta (neurri apalago batean) lanaren mugimenduetan zehar munduko ekonomian geroz eta integrazio handiagoko prozesu gisa ere defini daiteke<sup>15</sup>. Hots, merkatu global baten sorrerara garamatzen —eraman gaituen— prozesua.

Definizio horien baitan globalizazio prozesuaren ezaugarri garrantzitsu hauek aipatzen dira: gobernantza global berri bat(en beharra), merkatu globalak, komunikazio globalaren eta informazioaren difusioa, mugikortasun globala, interakzio «cross»-kulturala, eta ingurugiroko aldaketa globalak.

## Globalizazioa eta osasuna

Hala ere, globalizazio prozesuak osasunarekiko izan ditzakeen eragin guztien identifikazioa gure abilezia mentaletik askoz harago doa, geure sistema globalaren dinamika guztiez jabetzeko gai ez garelako; areago, geure ezjakintasuna eta sistema globalaren determinazio eza direla-eta, agian, ez gara inoiz horietaz jabetuko<sup>16</sup>.

Definizio horietatik globalizazioaren eta osasunaren artean hainbat lotura erator daiteke, norabide bietan, globalizazioa ez baita prozesu autonomo bat; beste maila guztietan ematen diren garapen askoren eragina jasaten du berak ere. Eta gainera, maila hurbilaren baitan, eta urruneko mailaren barnean ere, determinanteek bata bestearekin interakzionatzen dutela ez dugu inoiz ahantzi behar.

Globalizazioa gure gizartearen izate propioan aldaketa sakonak eta konplexuak ari da bultzatzen, aukera berriak ekar-

tzen eta, era berean, arrisku berriak ere. Globalizazioak geure osasunean duen eraginak geroz eta kezka handiagoa sortarazten du, eta teorikoki behintzat bultzatzen duen «garapen iraunkorrek» suposatzen duen belaunaldien arteko berdintasunak ondorengo belaunaldiek ingurugiro eta bizitza osasuntua izateko duten eskubideaz pentsaraztera behartzen gaitu.

Badira globalizazio prozesuaren eta osasun eragin espezifikoen arteko loturaz diharduten ikerketa batzuk, baina oraingoz lortu den ebidentzia enpirikoa oso ahula da<sup>17</sup>. Horrexegatik, marko kontzeptual zabalagoa behar dugu lotura horiei buruz analisi zentzudun bat egin ahal izateko. Diziplinartekoa behar du izan, medikuntzatik, epidemiologiatik, soziologiatik, zientzia politikotik, osasun hezkuntzatik, ingurugiro zientzietatik eta ekonomiatik ariko dena. Arago, osasun arloa orain arte egindako analisisetatik ia guztiz ezabatua dagoela dakigunean<sup>18</sup>.

Globalizazioaren eta osasunaren arteko bost lotura deskribatu dute ikerlari batzuek. Hiru zuzenak omen dira eta bi zeharkakoak. Zuzenen artean osasun-sistemen eta osasun-politiken eraginak, eta hainbat arriskuekiko esposizioa (hots, eritasun kutsakorrek, tabako merkatua...) daude; zeharkakoen artean, osasun sisteman eta populazioaren arriskuetan nazio ekonomiaren bitartez eragiten direnak aipatzen dira<sup>19</sup>. Dena dela, lehenago esan bezala, globalizazioak hainbat mekanismoren bitartez izan dezake eragina osasunean (estratifikazio soziala, esposizio diferentziala, suszeptibilitate diferentziala eta ondorio diferentzialak)<sup>20,21</sup>.

## Osasun publikoa

Erarik zabalenean definituz, osasun publikoa gizartearen ahalegin eratuaren eritasuna prebenitzearen, osasuna sustatzearen eta bizitza zabaltzearen arte eta zientzia da<sup>22</sup>. Populazio baten osasunaren arrisku faktore deitutakoen profilaren batuketa xumea eta kide banakoen osasun egoera baino askoz gehiago islatzen du osasun publikoak<sup>23</sup>; populazioaren

historia soziala eta bere zirkunstantzia kultural, material eta ekologikoen ezaugarri kolektiboa baita<sup>24,25</sup>. Beraz, osasun globalaz dugun ideia zabaldu egin beharra daukagu, eritasunetatik eta osasun-zerbitzuetatik beste faktore guztiak kontuan izan arte (pobrezia, heziketa, kapital soziala, ur edan-garriaren lorpena, elikadura ona...).

Osasun berdintasunarekiko konpromiso globala ez da gauza berria; 1978an, Alma Atako Nazio Batuen konferentziak «osasuna denontzat 2000 urtean» onartu zuen helburutzat<sup>26</sup>. Hala ere, helburu horretarantz aurrerapausoak eman badira ere, milioika pertsona hil edo elbarritzen da urtero erraz tratatu edo prebenitu daitezkeen kausengatik<sup>27</sup>. Urtero, bost urte baino gutxiago duten 10 milioi haur baino gehiago hiltzen dira, ia guztiak herri pobreetan edo herri ertainetako zonalde pobreenetan<sup>28</sup>, herri industrializatuetan heriotza kausa ezohikoak direnengatik. Elikadura txarra —dudarik gabe, gertakizun ekonomikoa dena, elikadura ekoizteko edo lortzeko baliabide urriak izateak sortzen duena— heriotza horien erdiaren azpiko kausa da<sup>29</sup>, eta ur edangarria lortzeko zailtasunak milioi eta erdi heriotza gehitzen ditu<sup>30</sup>. Geroz eta ikerketa gehiagok lesioen eta kutsakor ez diren eritasunen banaketa ezberdindua deskribatzen dute, intzidentzia eta zaurkortasun horiek askotan zuzenean pobreziarekin, segurtasun ekonomiko ezarekin eta marjinazioarekin loturik daudela frogatuz<sup>31,32,33</sup>.

Globalizazioa, beraz, asimetrikoa da batez ere. Globalizazioa eta bere eraginak, egun ezagutzen ditugun bezala, geroz eta era ezberdinago batean banatzen dira nazioartean eta nazio bakoitzaren baitan<sup>34</sup>. Garapena, oro har, pobrezia gutxiagotzeko geroz eta tresna ez eraginkorragoa da, garapenaren onurak oso gutxitan heltzen zaizkielako munduko pobrenei<sup>35</sup>, politikarien konpromiso sakon eta zehatzik ez badago behintzat<sup>36</sup>. Horrexegatik, argi eta garbi esan daiteke globalizazioa, gaur, berez, desberdintzailea dela, munduan zehar errenta, ondasun eta aukeren artean dauden ezberdintasunak handiagotzen dituelako<sup>37,38</sup>.

## Osasunaren Determinante Sozialak eta globalizazioa

2005ean, Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) Osasunaren Determinante Sozialen (ODS) Batzordea sortu zuen, ODSez lan egitea jendearen osasuna hobegotzeko eta ezberdintasunak gutxiagotzeko biderik eraginkor eta egokiena zela pentsatuz, eta gainera helburu hori lortzea inperatibo etikotzat aitortuz<sup>39</sup>. «Abantaila/desabantaila sozialekin sistematikoki loturik doazen osasuneko (eta bere determinante sozial klabeetako) desberdintasunen ausentzia» modura definitzen den berdintasunaren sustapena da Batzorde horren oinarritzko betebeharrak<sup>40</sup>. ODSak, orokorki esanda, jendearen bizitzaren eta lan baldintzak dira, bizitza osasuntsua bizi ahal izateko dituzten aukerak mugatzen dituztenak. Arlo honetan garrantzitsuak dira, batez ere, boterea, ondasuna eta arriskuak sortzen eta banatzen dituzten motor edo instituzio zentralak<sup>41</sup>.

Kalitatezko osasun-laguntza ezinbestekoa da, baina jendearen osasuna hondatzen duten kausa sozialak —horien artean ingurugiro fisiko eta soziala, hornidura genetikoa berarekin daraman biologia, portaera indibidual eta kolektiboa, eta osasun-laguntza— ez badira kontuan hartzen, ez da lortuko ongizaterako abagunerik. Hala ere, adierazpen orokor hori kenduta, ez dago inolako ODSen zerrenda edo definizio ofizialik. Ezaugarri biologikoak alde batera utzirik, besteak sozialki determinatuta daude eta, beraz, aukera-berdintasunarekin (edo bere faltarekin) loturik daude; eta horiek ere gizartearen barneko generoen, talde etniko edo ekonomikoen arteko botere harremanen emaitza dira.

OMEren Europako Bulegoak ondoko ODSak zerrendatzen ditu atalburuen azpian: (des)abantailaren gradiente soziala, haurtzaroko ingurugiroa, eskusio soziala, laguntza soziala, lana, langabezia, elikadura eta garraioa<sup>42</sup>. Egia esan, nik neuk ere ez dakit zein neurritaraino ezberdinu daitezkeen ODSen artean «sozialak» eta «ekonomikoak» omen direnak. Bestal-

de, osasun sistemak berak ODSak dira. ODSez ari garenean, osasunean osasun-laguntzarako lorpideak soilik ez ezik beste faktore askok ere eragiten dutela aitortu arren, lorpide hori ere ezinbestekoa da osasun ondorioak zehazteko, eta, askotan, beste ODSak karakterizatzen dituzten (des)abantailaren distribuzio berak islatzen ditu<sup>43</sup>. Areago, osasun-laguntzaren finantzaketak berak ODS baten antzera jarduten du: osasun-laguntza publikoaren lorpen urriak —edo ezak— beste ODSetan eragin gaiztoa izan dezake; hots, familiek dirutza ordaindu behar dutenean beharrezko osasun-laguntza hori lortzeko, beste oinarriko beharrentzat dirua kenduz eta une berean irabaziak galduz eritasunaren ondorioz<sup>44</sup>.

1987an, Unicefek argitaratutako txosten batean, agerian uzten zen globalizazioaren eragina ODSetan<sup>45</sup>. Krisi ekonomikoaren aurrean hainbat egokitze neurri hartu zituzten hamar herrialdetan egin zen ikerketa (Botswana, Brasil, Txile, Ghana, Jamaika, Peru, Filipinak, Hego Korea, Sri Lanka eta Zimbabwe). Kasu askotan, hartutako neurriek haur osasunarengan adierazle klabeen narriadura lortu zuten (adibidez, haur hilkortasunean, haur biziraupenean, elikadura txarrean, heziketa mailan), eta baita ODSen lorpenean ere (adibidez, elikagai eta zerbitzu sozialen lorpen eta erabileran). Horien arrazoi nagusia oinarriko zerbitzuetan gobernuen gastuaren murrizketa zela frogatu ahal izan zen. Ikerketak, desdoikuntza ekonomikoaren eragin negatiboak minimizatuz, pobre edota zaurgarrien oinarriko irabaziak, bizi-kalitatea, osasuna eta elikadura babes zitzaketen neurri generiko sorta bat identifikatu zuen<sup>46</sup>.

ODSen lorpenetan ezberdintasunek alde zuzeneko egoera urrian daudenen osasun-mailaren narriadurara daramate, eta ondorioa osasun-ezberdintasuna handiagotzea denean, narriadura hori onartezina da beste emaitza positiboen ondorio bada ere ekonomian edo gizartean (esate baterako, gehiengoaren osasun-maila hobetzea lortzen denean txiroen osasunaren bizkarretik). Beste era batez esanda, *prima facie*, ODSen lorpenak maltzurizat hartu behar dira osasun gra-

diente sozio-ekonomikoak handiagotzen dituztenean, hainbat herri aberats eta pobretan gertatzen den bezala<sup>47</sup>.

Globalizazioak osasunean duen eragina ez da pozik egoteko moduko istorioa. Badira azken mendearen bigarren zatian ondasunean eta osasunean egindako aurrerapenak ezin direla alde batera utzi aitortzen dutenak. Eta neurri batean arrazoi dute. Hazkunde ekonomikoa oso lagungarri izan zaio hainbat ODSri (adibidez, etxeko errekin garbiagoen erabilera dela medio poluzioarekin loturiko arnas eritasunen beherakada, nahiz eta hori ere oso ezberdin gertatu den nazio batetik bestera<sup>48</sup>). Baina hazkunde ekonomikoa soila ez da aski izango populazioaren osasuna hobegotzeko, garai onargarri batean behintzat. Osasunaz gagozkiolarik, merkaturia ez da ekintza kolektiboaren ordezk<sup>49</sup>. Gainera, iragana ez da beti etorkizunerako gida fidagarri bat. Eta globalizazioaren asimetriak berak harreman horiek askoz korapilatsuagoak direla erakusten digu.

Helburua ODSen bitartez osasun ezberdintasunak murriztea denean, ekintza aurrera eraman behar den puntua ez da agian sortu den lekua bera. Adibidez, pertsona edo taldeen pobrezia gutxiagotzeak erantzun politikoak exiji ditzake estatu/erkidego/nazio gobernuetatik, baina horien eragiteko gaitasuna oso mugatua egon daiteke nazio mugetatik kanpoko aktoreen eraginengatik (horien artean, alde askotako instituzioak edo inbertitzaile instituzionalak, esate baterako). Interkonexio hori globalizazio garaikidearen ezaugarri bat da, eta agerian uzten du, ene ustez, mundu industrializatuak bere mugetatik kanpoko pobrezia murrizteko obligazioa duela<sup>50</sup>. Hori esatean ez naiz ari esaten etxe barruko ekintza politikoak alde batera utzi behar denik; inoiz ere ez. Ikerketek argi uzten baitute etxetiar koalizio politiko efektiboek zer nolako eragina duten hazkunde ekonomikoak populazioaren osasun maila hobegotzeko prozesuan<sup>51,52,53</sup>. Hala ere, globalizazioak berak koalizio horien ingurumena itxuratzen du eta beren arrakasta aukerak ere mugatzen ditu era askotan, ez ahantz!

2001ean, OMSren Makroekonomia eta Osasun Batzordeak zera aitortu zuen, osasuna, garapenaren onura bat izateaz gain, garapenerako ere beharrezkoa dela<sup>54</sup>. Eritasunak gehiegitan pobrezia-aren tranpa medikoetara darama, elikadura txar, heziketa gabezia eta are eta eritasun gehiagoko gorpil zoro bat sortuz<sup>55</sup>. Baina, zoritxarrez, aitorten hori ez da inoiz legedietara eramán.

## Milurtekoko Garapen Helburuak

2000. urtean, Nazio Batuetako Batzar Orokorren ebazpen batek nazioarteko komunitateari 2015 baino lehen Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH) lortzearen konpromisoa ezarri zion. Helburuetatik hiru osasunarekin zuzenean erlazio naturik daude: haur- eta ama-hilkortasuna gutxiagotzea eta malaria, GIB eta HIESa eta beste eritasun kutsakorren hedapena ahultzea. Beste lau populazioaren osasun faltan oinarritzko garrantzia duten ODSak dira: muturreko pobrezia, elikadura txarra, ingurugiro arazoak eta heziketa gabezia. Helburu orokor horiek bazuten mugari espezifikoagorik, adibidez, ur edangarririk ez duen populazioaren kopurua erdira jaistea<sup>56</sup>. Lehen pausoa dira nazioarteko komunitatearen konpromisoen abiadan garapenaren agendan.

Egia da ez direla handinahikoak oinarritzko giza premia guztiak kontuan hartzen ditugunean. Batez ere pobrezia murriztearen helburuaren xumetasuna ikusten dugunean (munduan dolar bat baino gutxiagorekin bizi den populazioaren proportzioa erdira jaistea 2015 urterako). Areago, momentuan krisi itzelean murgildurik gauden arren, oporotasun globalaren hazkundera begi bistan dugularik<sup>57</sup>.

Gauza bera sentitzen dugu zazpigarren helburua ikustean, hots, urtero txabola eta faveletan bizi diren 100 milioi pertsonen bizimodua hobegotzea, ustez egungo joera hortik badoa 2020an oraindik ere 1.500 milioi pertsona biziko baita txabolatan<sup>58</sup>. Beste arazo bat bada ere, zeren hirugarren helburua ez ezik —heziketaren genero berdintasunaz ari da—,

beste guztiak gizartearen batez besteko balioak dira, argi uzten baitu nazio batek MGH batzuk bete ditzakeela (esate baterako, bost urte baino gutxiagokoen heriotza-tasa jaistea) okerren dauden taldeen osasun-egoera hobegotu gabe<sup>59,60</sup>.

Beste aldean, MGHak handinahikotzat jo ditzakegu oraindik zer nolako pauso txikiak eman diren ohartzen garenean. Erregio batzuetan aurrerapauso handiak eman dira helburuok betetzeko. Beste batzuetan, aldiz, batez ere Afrikan, egoera penagarria da<sup>61,62</sup>. Argi dagoena da MGHak edo giza ongizatean antzeko helburuak lortu nahi badira, baliabide gehigarrien epe luzeko konpromisoak beharrezko direla herri industrializatuen aldetik<sup>63,64,65</sup>. Geroz eta handiagoa den merkatu eta inbertsio sare batek mugen gainetik herri aberats eta pobreak lotzen dituen neurrian, MGHak (edo antzekoak) lortzen saiatzeak merkatuaren legeak gaurkotzera behartuko gaitu, garapena eta MGHak lortzea bateragarria izan dadin, kontuan izanik, lehen esan bezala, globalizazio garaikidea asimetrikoa dela irabaziaz, galerak eta boterea banatzerakoan<sup>66,67</sup>.

## Irtenbide baterako proposamen apalak...

Arrazoi horiengatik guztiengatik, argi dago osasuna globalizatu behar dugula. Horrek osasuna maila globalean jartzera behartzen gaitu. Horretarako ondoko pausoak eman behar ditugu: 1. Erabaki-hartze prozesuan pertsona orok hartu behar du parte, eragile guztiak, publikoak eta pribatuak, gobernuak, hiritarrak eta gobernuz kanpoko erakundeak konprometituz; arlo lokaletik abiatuz, unibertsalerantz; 2. Osasunaren determinante sozial guztiak kontuan hartu behar ditugu, osasuna sustatuz, maila guztietan; eta 3. Botere oreka berri batean eta giza eskubideetan, elkartasunean, elkarrenganako interesetan, humanismoan eta berdintasunean finkatutako demokrazia unibertsalarekin eta hiritarraren alde joko duen kultur garapenarekin loturik joan behar duten neurri zientifiko-sozialak areagotu behar ditugu.



Osasuna globalizatzearen ideia hori astiro eraikiz joan da osasunari buruzko nazioarteko adierazpen guztietan, OMEren sorreratik, 1948an, gaur arte. OMEren Batzar Orokorrak, 1995ean, globalizazioak osasunari hainbat onura ekar diezaiokeela aldarrikatu zuen, baina soilik garrantzitsuak diren beste balioen menpe jartzen bada; horien artean osasunarekiko eskubidea aipatu zuen, baina baita etika politikoa, berdintasuna, elkartasuna eta genero perspektiba ere. Ildo horretan sartzen dira baita ere Jakartan egindako Osasunaren Promozioaren Nazioarteko IV. Bilkuraren adierazpena, Osasunaren sustapenarentzako Ottawako Karta, Haurren eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa... Ottawako Kartak argi eta garbi uzten du, osasuna eman dadin, beharrezkoak direla bakea, heziketa, etxebizitza, elikadura, ondasuna, ekosistema egonkorra, justizia soziala eta berdintasuna.

Analisi honek osasunaren arloa erabat zabaltzen du, giza eskubide guztiak osasunaren determinante sozial bihurtuz; era berean, osasuna bera beste giza eskubide gehienek determinanteetako bat dela azpimarratzen du. Eta osasunaren eta justiziaren aldeko lana eta borroka egiteko arlo zabal bat irekitzen du<sup>68</sup>. Globalizazioaz eta ODSez emandako definizioak eta karakterizazioa onartzen baditugu, argi dago maila guztietan (ekonomikoan, politikoan, sozio-kulturalan, teknologikoan eta ingurugirokoan) eta dimentsio espazial, tenporal eta kognitiboan era zuzen eta zeharkakoan lan egin beharko dugula. Horrela defendatzen dute osasunaren eta demokraziaren arteko loturak frogatu dituzten ikerlariak<sup>69</sup>.

Eta hori da, baita ere, Potter-ek 1988an deskribatutako Bioetikaren arloa, denek ailegatuko zaien giza biziraupen baliagarria lortzeko helburua duen etika medikoaren eta etika ekologikoaren arteko zubiaren papera egiten duen diziplina anitzeko ezagutza, osasunaren aldaketa globalarentzat bide bat eskaintzen duena bost aldaketa transformatiboak bitartez: egoera mental global baten garapena; epe luzera begira auto-interesaren promozioa; globalizazioaz eta elkartasunaz baikortasunaren eta ezkortasunaren arteko

orekaren bilaketa; ahalmenen indartzea; eta osasunari bidea irekiko dioten ondasun publiko globalen produkzioaren gorakada<sup>70</sup>. Herri aberats eta pobreen arteko elkartasuna da gogoz hartu behar den oinarrizko baliorik garrantzitsuena osasun desberdintasun globalak gutxiagotzen ahaleginduko den ezinbesteko aldaketa paradigmaticoa egia bihur dadin.

Hori posible izango da soilik demokrazia kosmopolita indartzeko gai bagara: hiritar kosmopoliten demokrazia, komunitate konkretuen partaide gisa arituko eta sentituko direnak, komunitate lokaletan sustraiturik komunitate global unibertsal baten partaide ere badirenak eta sentituko direnak, beren epe laburreko interesak kontuan izango dituztenak baina baita munduko beste hiritarrenak eta ondoko belaunaldienak ere. Demokratizazio pertsonal eta instituzional hori gauzatu dadin, identitate moral berriak eta konplexuak behar ditugu, eta askotariko hiritartasun baten ideal berri bat, unibertsaltasun teoriko batetik jaioko ez dena, baizik eta, unibertsalaren osagarri den heinean, lokalaz, hurbileko guztiaz arduratuko den hiritartasun konprometitu batetik. Pertsonak ez dira orduan soilik talde lokal, etniko, erlijioso edo nazional baten partaide sentituko baizik eta baita beste guztiekiko erantzukizuna duten gizaki bezala ere. Direna! Garena!

ODSen Batzordeak asmatu egin zuen osasun desberdintasunak gutxiagotzea inperatibo etiko bat zela aitortu zuenean. Ikuspuntu horretatik, auzia ez da globalizazioa bera, baizik eta ea helburu etiko hori lor dezaketen negoziaketa edo instituzio sozialen konponketa berri bat asmatzeko gai garen<sup>71,72,73</sup>. Globalizazioa ez da berez sortu, aldaketa teknologikoen emaitza da, bai, baina gobernuak, korporazio transnacionalek eta era askotako instituzioek ere beren zeregina izan dute *International Monetary Fund* eta *World Bank* delakoen sorreraren bitartez<sup>74,75</sup>.

Ingurugiro eta Garapenaren Munduko Batzordea jadanik 1987an mintzatu zen garapen iraunkorraz, eta honela definitu zuen<sup>76</sup>: «egungo belaunaldiaren beharrak betetzen dituen, euren beharrak betetzeko ondoko belaunaldien gai-

tasuna konprometitu gabe». Kontzeptu hori medikuntzara ere ekarri da, eta, egun, medikuntza iraunkorraz mintzatu ohi da, «ahalmen ekonomikoa eta bidezko erabilgarritasuna elkartzen dituen baina baita ere osasun behar eta itxaropen gehienak betetzeko psikologikoki iraunkorra den meseta egonkor baterantz zuzenduz doan —bai ikerketa mailan bai osasun-laguntzan— medikuntza» bezala definitu izan dena<sup>77</sup>. Medikuntza horrek hiru ezaugarri behar ditu izan: gizarte baten partaideei osasun-laguntza eta osasun publiko maila beharrezkoa eskaini behar die, bizitza-zikloa gaitasun fisiko eta mental duinarekin bizi dezaten ahalbidetuz; gizartearentzat eskuragarri beharko du izan zuzentasunez bana dadin; eta laguntza publikoarekin, osasun helburu finitu eta egonkorrak edukiko ditu, eta, era berean, aurrerakuntza eta berrikuntza teknologikoen aspirazio mugatuak izango ditu. Medikuntza iraunkor horrek, beraz, erien artean osasun baliabideen eraketa eta banaketaren aldaketa bat ez ezik, medikuntzaren eta gizarte globalaren arteko dialogo batez soilik lortuko den oinarrizko aldaketa sakon bat bilatzen du medikuntzaren idealetan eta itxaropenetan.

Dialogo horrek, halabeharrez, hartutako erabakiek eragindako guztiei eman beharko die ahotsa. Eta batez ere pobbreei eta gaur arte baztertuta izan direnei, beren parte hartzerik gabe aipatutako arazoei emango zaizkien erantzunak ez direlako ez egokiak ez bidezkoak izango. Orain arteko joeren kontra, elkarrekin bat egin behar dugula esango nuke, aipatutako geure interdependentzia berri honek garapen demokratikoaren eta bakearen alde bultzatzen dezan, eta ez alderantziz. Osasunak helburu horren alde joka dezake gizakiok batzen gaituen arlo guztiak inplikatzeko dituelako. Hau da, jaiotzan, eritasunean, ongizatean eta, nola ez, heriotzan, horietan aurki dezakegu geure gizatasun komuna. Osasuna, geure mundu nahasi honetan, unibertsalak diren egiazko aspirazioetako bat da. Horrexegatik, norberaren interes nazionalak elkarrekiko nazioarteko interesekin adiskidetzeko benetako aukera eskaintzen du. Egun, inoiz baino gehiago,

osasuna bakerako zubi bat da. Horretarako, globalizazio arrakastatsua behar dugu: beharrezkoak dira instituzio global eraginkorrak, finantzetara eta merkatura ez ezik, osasun publikora, giza eskubideetara eta ingurugiroaren babesera dedikatuko direnak<sup>78</sup>. Bidea hor dago!¶

- 
1. King ML, jr. *Trumpet of Conscience*. New York, Harper, 1968.
  2. Woodward D, Drager N, Beaglehole R, Lipson D. Globalization and Health: A Framework for Analysis and Action. *Bulletin of the World Health Organization* 2001, 79: 875-881.
  3. Labonte R, Torgerson R. *Frameworks for Analyzing the Links between Globalization and Health*. Draft Report to the WHO. Saskatoon, SPHERU, University of Saskatchewan, 2002.
  4. Martens P, McMichael AJ, Patz J. Globalisation, Environmental Change and Health. *Global Change and Human Health* 2000, 1: 4-8.
  5. Huynen MMTE, Martens P, Hilderink H. *The Health Impacts of Globalisation: a Conceptual Framework*. Bilthoven, Netherlands Environmental Assessment Agency (MNP), 2005.
  6. WHO. *The World Health Report 2002: Reducing Risks, Promoting Healthy Life*. Geneva, WHO, 2002.
  7. Board on International Health, Institute of Medicine. *America's Vital Interest in Global Health: Protecting our People, Enhancing our Economy, and Advancing our International Interests*. Washington, DC, National Academy Press, 1997: 1.
  8. Hobsbawm E. *The Age of Extremes: A History of the World. 1914-1991*. New York, Pantheon Books, 1994: 12.
  9. Frenk J, Sepulveda J, Gomez-Dantes O, McGuinness MJ, Knaul F. The New World Order and International Health. *BMJ* 1997, 314: 1404-1407.
  10. Karlen A. *Man and Microbes. Disease and Plagues in History and Modern Times*. New York, Simon and Schuster, 1995.
  11. Lee K. *The Global Dimensions of Health*. Background Paper for the Global Health, A Local Issue Seminar. The Nuffield Trust and Templeton College, Oxford University, Londres, 1999-02-17.
  12. Lee K. Globalisation - A New Agenda for Health? In: McKee M, Garner P, Stott R. (arg.). *International Cooperation and Global Health*. Londres, Oxford University Press, 2001.
  13. Rennen W, Martens P. The Globalisation Timeline. *Integrated Assessment* 2003, 4: 137-144.
  14. Held D, McGrew A, Goldblatt D, Perraton J. *Global Transformations: Politics, Economics and Culture*. Stanford, Stanford University Press, 1999.
  15. Jenkins R. Globalization, Production, Employment and Poverty: Debates and Evidence. *Journal of International Development* 2004, 16: 1-12.

16. Martens P, Rotmans J. *Transitions in a Globalising World*. Lisse, Swets & Zeitlinger, 2002.
17. Lee K, Collin J. *Review of Existing Empirical Research on Globalization and Health*. Geneva, WHO, 2001.
18. Martens P, Huynen MMTE. A Future without Health: Health Dimension in Global Scenario Studies. *Bulletin of the World Health Organization* 2003, 81: 896-901.
19. Woodward D, Drager N, Beaglehole R, Lipson D. Globalization and Health: A Framework for Analysis and Action. *Bulletin of the World Health Organization* 2001, 79: 875-881.
20. Diderichsen F, Evans T, Whitehead M. The Social Basis of Disparities in Health. In: Whitehead M, Evans T, Diderichsen F, Bhuiya A, Wirth M. *Challenging Inequities in Health: From Ethics to Action*. New York, Oxford University Press, 2001: 13-23.
21. Solar O, Irwin A. *Towards a Conceptual Framework for Analysis and Action on the Social Determinants of Health*. Discussion Paper for the Commission on Social Determinants of Health. Geneva, Commission on Social Determinants of Health, 2005.
22. Acheson D. *Independent Inquiry into Inequalities in Health*. Londres, HM Stationery Office, 1998.
23. McMichael AJ, Beaglehole R. The Changing Global Context of Public Health. *The Lancet* 2000, 356: 495-499.
24. Pearce N. Traditional Epidemiology, Modern Epidemiology, and Public Health. *Am J Public Health* 1996, 86: 678-683.
25. McMichael AJ. Prisoners of the Proximate: Epidemiology in an Age of Change. *Am J Epidemiol* 1999, 149: 887-897.
26. WHO. *Declaration of Alma-Ata*. International Conference on Primary Health Care. Alma-Ata, Sobiet Batasuna, 1978-09-06/12. Geneva, WHO ([www1.umn.edu/humanrts/instree/almaata.html](http://www1.umn.edu/humanrts/instree/almaata.html)).
27. WHO. *World Health Report 2004: Changing History*. Geneva, WHO, 2004.
28. Jones G, Steketee RW, Black RE, Bhutta ZA, Morris SS, Bellagio Child Survival Study Group. How Many Child Deaths Can We Prevent this Year? *The Lancet* 2003, 362: 65-71.
29. Bryce J, Boschi-Pinto C, Shibuya K, Black RE. WHO Estimates of the Causes of Death in Children. *The Lancet* 2005, 365: 1147-1152.
30. Black R, Morris S, Bryce J. Where and Why Are 10 Million Children Dying Every Year? *The Lancet* 2003, 361(9376): 2226-2234.
31. Peden M, McGee K, Sharma G. *The Injury Chart Book: A Graphical Overview of the Global Burden of Injuries*. Geneva, WHO, 2002.
32. Krug EG, Dahlberg LL, Mercy JA, Zwi AB, Lozano R. *World Report on Violence and Health*. Geneva, WHO, 2003.
33. Monteiro C, Conde W, Popkin B. Obesity and Inequities in Health in the Developing World. *International Journal of Obesity* 2004, 28: 1181-1186.
34. Birdsall N. *Stormy Days on an Open Field: Asymmetries in the Global Economy*. Research Paper 2006/31. Helsinki, World Institute for Develop-

- ment Economics Research 2006 ([www.wider.unu.edu/publications/rps/rps2006/rp2006-31.pdf](http://www.wider.unu.edu/publications/rps/rps2006/rp2006-31.pdf)).
35. Woodward D, Simms A. *Growth Isn't Working: The Unbalanced Distribution of Benefits and Costs from Economic Growth*. Londres: New Economics Foundation, 2006 ([www.neweconomics.org/NEF070625/NEF\\_Registration070625add.aspx?returnurl=/gen/uploads/hrfu5w555mzd3f55m2vqwty502022006112929.pdf](http://www.neweconomics.org/NEF070625/NEF_Registration070625add.aspx?returnurl=/gen/uploads/hrfu5w555mzd3f55m2vqwty502022006112929.pdf)).
  36. Nissanke M, Thorbecke E. Channels and Policy Debate in the Globalization-Inequality-Poverty Nexus. *World Dev* 2006, 34: 1338-1360.
  37. Birdsall N. *The World Is not Flat: Inequality and Injustice in our Global Economy*. WIDER Annual Lecture 2005. Helsinki, World Institute for Development Economics Research, 2006.
  38. Sutcliffe EB. *A Converging or Diverging World? DESA Working Paper no. 2, ST/ESA/2005/DWP/2*. New York: United Nations Department of Economic and Social Affairs, 2005 ([www.un.org/esa/desa/papers/2005/wp2\\_2005.pdf](http://www.un.org/esa/desa/papers/2005/wp2_2005.pdf)).
  39. Commission on Social Determinants of Health. *Closing the Gap in a Generation: Health Equity through Action on the Social Determinants of Health*. Final Report. Geneva, WHO, 2008 ([http://whqlibdoc.who.int/publications/2008/9789241563703\\_eng.pdf](http://whqlibdoc.who.int/publications/2008/9789241563703_eng.pdf)).
  40. Braveman P, Gruskin S. Defining Equity in Health. *J Epidemiol Community Health* 2003, 57(4): 254-258.
  41. Diderichsen F, Evans T, Whitehead M. The Social Basis of Disparities in Health. In: Whitehead M, Evans T, Diderichsen F, Bhuiya A, Wirth M. (arg.). *Challenging Inequities in Health: From Ethics to Action*. New York, Oxford University Press, 2001: 13-23.
  42. Wilkinson R, Marmot M. (arg.). *Social Determinants of Health: The Solid Facts*. Kopenhagen, WHO Regional Office for Europe, 2003.
  43. Farmer P. *Pathologies of Power: Health, Human Rights and the New War on the Poor*. Berkeley, University of California Press, 2003.
  44. van Doorslaer E, O'Donnell O, Rannan-Eliya RP, Somanathan A, Adhikari SR, Garg CC, Harbianto D, Herrin AN, Huq MN, Ibragimova S. Effect of Payments for Health Care on Poverty Estimates in 11 Countries in Asia: An Analysis of Household Survey Data. *The Lancet* 2006, 368(9544): 1357-1364.
  45. Cornia GA, Jolly R, Stewart F. (arg.). *Adjustment With a Human Face, Protecting the Vulnerable and Promoting Growth. Volume 1*. Oxford, Clarendon Press, 1987.
  46. Cornia GA, Jolly R, Stewart F. An Overview of the Alternative Approach. In: Cornia GA, Jolly R, Stewart F. (arg.). *Adjustment With a Human Face, Protecting the Vulnerable and Promoting Growth. Volume 1*. Oxford, Clarendon Press, 1987: 131-146.
  47. Marmot M Sir. Health in an Unequal World. *The Lancet* 2006, 368(9552): 2081-2094.
  48. Goldemberg J, Johansson TB, Reddy AK, Williams RH. A Global Clean Cooking Fuel Initiative. *Energy for Sustainable Development* 2004, 8: 5-12.

49. Deaton A. *Global Patterns of Income and Health: Facts, Interpretations, and Policies*. WIDER Annual Lecture 2006. Princeton, NJ, Princeton University ([www.princeton.edu/~rpds/downloads/deaton\\_WIDER\\_FINAL\\_annual\\_lecture\\_ALL.pdf](http://www.princeton.edu/~rpds/downloads/deaton_WIDER_FINAL_annual_lecture_ALL.pdf)).
50. Pogge T. Priorities of Global Justice. *Metaphilosophy* 2001, 32: 6-24.
51. Szreter S, Mooney G. Urbanization, Mortality, and the Standard of Living Debate: New Estimates of the Expectation of Life at Birth in Nineteenth-Century British Cities. *Economic History Review* 1998, 51: 84-112.
52. Szreter S. Economic Growth, Disruption, Deprivation, Disease, and Death: On the Importance of the Politics of Public Health for Development. *Population and Development Review* 1997, 23: 693-728.
53. Szreter S. Health and Security in Historical Perspective. In: Chen L, Leaning J, Narasimhan V. (arg.). *Global Health Challenges for Human Security*. Cambridge, MA, Global Equity Initiative, Asia Center, Harvard University, 2003: 31-52.
54. Commission on Macroeconomics and Health. *Macroeconomics and Health: Investing in Health for Economic Development*. Geneva, WHO, 2001 ([www.cid.harvard.edu/cidcmh/CMHReport.pdf](http://www.cid.harvard.edu/cidcmh/CMHReport.pdf)).
55. Whitehead M, Dahlgren G, Evans T. Equity and Health Sector Reforms: Can Low-Income Countries Escape the Medical Poverty Trap? *The Lancet* 2001, 358(9284): 833-836.
56. United Nations. *UN Millennium Development Goals* ([www.un.org/millenniumgoals/goals.html](http://www.un.org/millenniumgoals/goals.html)).
57. Pogge T. The First United Nations Millennium Development Goal: A Cause for Celebration? *Journal of Human Development* 2004, 5: 377-397.
58. UN Millennium Project Task Force on Improving the Lives of Slum Dwellers. *A Home in the City*. Londres, Earthscan, 2005.
59. Moser KA, Leon DA, Gwatkin DR. How Does Progress towards the Child Mortality Millennium Development Goal Affect Inequalities between the Poorest and Least Poor? Analysis of Demographic and Health Survey Data. *BMJ* 2005, 331: 1180-1182.
60. Gwatkin DR. How Much Would Poor People Gain from Faster Progress towards the Millennium Development Goals for Health? *The Lancet* 2005, 365: 813-817.
61. Wagstaff A, Claeson M, Abrantes A, Alban A, Axelsson H, Baingana F, Batson A, Bos E, Brenzel L, Bustreo F, et al. *The Millennium Development Goals for Health: Rising to the Challenges*. Washington, DC, World Bank, 2003.
62. Jamison DT, Breman JG, Measham AR, Alleyne G, Claeson M, Evans DB, Jha P, Mills A, Musgrove P. (arg.). *Disease Control Priorities in Developing Countries*. 2. argitalpena. Washington, DC, Oxford University Press and World Bank, 2006: 3-34.
63. Commission for Africa. *Our Common Interest: Report of the Commission for Africa*. Londres, Commission for Africa, 2005.
64. UN Millennium Project. *Investing in Development: A Practical Plan to Achieve the Millennium Development Goals*. London, Earthscan, 2005.

65. Wagstaff A, Claeson M, Hecht RM, Gottret P, Fang Q. Millennium Development Goals for Health: What Will It Take to Accelerate Progress? In: Jamison DT, Breman JG, Measham AR, Alleyne G, Claeson M, Evans DB, Jha P, Mills A, Musgrove P. (arg.). *Disease Control Priorities in Developing Countries*. 2. argitalpena. Washington, DC, Oxford University Press and World Bank, 2006: 181-194.
66. Birdsall N. *Stormy Days on an Open Field: Asymmetries in the Global Economy*. Research Paper 2006/31. Helsinki, World Institute for Development Economics Research, 2006 ([www.wider.unu.edu/publications/rps/rps2006/rp2006-31.pdf](http://www.wider.unu.edu/publications/rps/rps2006/rp2006-31.pdf)).
67. Birdsall N. *The World is not Flat: Inequality and Injustice in our Global Economy*. WIDER Annual Lecture 2005. Helsinki, World Institute for Development Economics Research, 2006 ([www.wider.unu.edu/publications/annual-lectures/annual-lecture-2005.pdf](http://www.wider.unu.edu/publications/annual-lectures/annual-lecture-2005.pdf)).
68. Braveman P, Gruskin S. Poverty, Equity, Human Rights and Health. *Bull WHO* 2003, 81: 539-545.
69. Franco A, Alvarez-Dardet C, Ruiz MT. Effect of Democracy on Health: Ecological Study. *BMJ* 2004, 329: 1421-1423.
70. Benatar SR, Daar AS, Singer PA. Global Health Ethics: The Rationale for Mutual Caring. *International Affairs* 2003, 79: 107-136.
71. Pogge T. Human Rights and Human Responsibilities. In: De Greiff P, Cronin C. (arg.). *Global Justice & Transnational Politics*. Cambridge, MA, MIT Press, 2002: 151-195.
72. Pogge T. Recognized and Violated by International Law: The Human Rights of the Global Poor. *Leiden J Int Law* 2005, 18: 717-745.
73. Pogge T. Severe Poverty as a Human Rights Violation. In: Pogge T. (arg.). *Freedom from Poverty as a Human Right: Who Owes What to the Very Poor?* Oxford, Oxford University Press, 2007: 11-53.
74. Babb S. The Social Consequences of Structural Adjustment: Recent Evidence and Current Debates. *Annu Rev Sociology* 2005, 31: 199-222.
75. Labonté R, Schrecker T. Globalization and Social Determinants of Health: The Role of the Global Marketplace (part 2 of 3). *Global Health* 2007, 3: 1-17.
76. Comisión Mundial del Medio Ambiente y del Desarrollo. *Nuestro futuro común*. Madril, Alianza, 1987.
77. Callahan D. *False Hopes. Why America's Quest for Perfect Health is a Recipe for Failure*. New York, Simon and Schuster, 1998.
78. Epstein H, Chen L. Can AIDS Be Stopped? *New York Review of Books*, 2001-03-14.



# Enpresaren gizarte erantzukizuna lan zuzenbidearen ikuspegitik

**OLGA FOTINOPOULOU**

EHUko Enpresa Zuzenbidea Saileko irakaslea

## Sarrera<sup>1</sup>

Gaur egun interes handia sortzen duen gaia da enpresaren gizarte erantzukizuna (EGE), eta beraz, nazioartean, Europar Batasunaren barnean edota estatuen baitan eztabaida bizi baten pean dagoen nozioa<sup>2</sup>. Ohiz kanpoko garrantzia eskuratzen ari da apurka-apurka EGEa, inplikazio handiak dituelako enpresen jarduera ekoizlean zein ekonomikoan sartzen diren alderdi guztien gain; besteak beste, langileak, akziodunak, sindikatuak, bezeroak, kontsumitzaileak, hornitzaileak, azpikontratatistak, eta abar. Ez da harritzekoa, honenbestez, enpresaren jarduera esparru ia guztiei loturik egotea EGEaren zabaltasuna, eta ezta hainbat arlo ezberdinetatik aztertua izatea ere: dela ekonomia, soziologia edo filosofiatik, dela lan zuzenbidearen, merkataritza zuzenbidearen zein zuzenbide zibilaren ikuspegitik.

Ildo beretik, eta nahiz eta hainbat egilek gizarte erantzukizunak lan zuzenbidearen esparrutik kanpo egon behar zuela uste izan, gaur egun eztabaida ezina da EGEaren dimensio soziala. Izan ere, ezin zalantzan jar daiteke langileek al-

derdi inplikatuaren artean duten leku nabarmena. Hori dela eta, langileen ordezkari diren erakundeek gero eta interbenzio aktiboagoa eskatzen dute EGEaren arrazoibideen inguruan, kontuan harturik EGEak langileen lan baldintzen gainean daukan eragina, batez ere industrializatu gabeko herrialdeetan kokatzen diren enpresen langileei dagokienean.

EGEak lotura handia dauka globalizazioarekin, eta bereziki enpresen nazioartekotze prozesuarekin zein deslokalizazio industrialarekin. Hala ere, ezin ahantz dezakegu EGEaren nozioa enpresa guztien antolaketan —izan multinazionalak edo ez— aplikatzen dela egun, nahiz eta esparru sozialetik aztertuz gero, eskubide sozialak aintzatetsita ez (edo ezegonkor) dauden herrialdeetan diharduten enpresa multinazionalak langileen eskubide eta lan baldintzen gain proiektatzen den nagusiki. Ikuspegi horretatik, EGEaren lan dimentsioaren aspektu batzuk aztertzen saiatuko gara datozen orrialdeotan: enpresaren gizarte erantzukizunaren kontzeptua batetik, eta enpresen gizarte erantzukizunaren edukia bestetik.

## Enpresaren gizarte erantzukizunaren kontzeptua

Zer da EGEa? Noiz da enpresa bat sozialki arduratsu? Bi galdera horiei erantzuteko ezinbestekoa da EGEaren nozioa aztertzea. Alde honetatik, EGEari buruzko definizio ezberdinak daude, guztiak ere, oro har, nahiko zehaztugabeak edo lausoak<sup>3</sup>. Dena den, eta nahiz eta zenbait ikuspegiaren arabera enpresa batek legea betetze hutsarekin hura sozialki arduratsua dela ulertu behar dugun, ia egile guztiek onartzen dute gaur egun EGEa borondatezko printzipioaren bitartez eratzten dela. Alegia, enpresek betebeharrak juridikoetatik haratago beren borondatez bereganatzen duten jokabidea dela EGEa. Horrek esan nahi luke, hitzarmen kolektibotik eta legeak ezarritako betebeharretatik haratago doala EGEa, eta, ondorioz, ez dela posible bete beharreko zuzenbide arauen bitartez enpresa bat sozialki arduratsu izatera behartzea<sup>4</sup>. Horregatik, indarrean dauden arauak betetzen dituen enpresa ba-

tek ez du zertan derrigor sozialki arduratsu izan; bai, ordea, alderantziz. Hau da: legea eta hitzarmen kolektiboak betetzen ez dituzten enpresak ez dira sekula sozialki arduratsu izango<sup>5</sup>. Horrek zailtasun nabarmenak dakartza, zenbaitek (OIEk<sup>6</sup> edo, Europa mailan, UNICEk, OCDEk, OITk<sup>7</sup>) erantzukizun sozialen azalpen eta estrategien aldebakartasunaren sinonimo jotzen dutelako borondatezko printzipio hori<sup>8</sup>. Laburbilduz, aldeztu dena zera da: EGEaren testuingurua ez dela inolaz ere izango ez parte-hartzailea eta ezta esku-hartzailea ere. Ez da hori, ordea, erakunde espainiar eta europarrak edota erakunde sindikalek aldarrikatzen duten interpretazioa, borondatezko printzipioa elkarrizketa sozialarekin eta negoziazio kolektiboarekin bateragarri izatea baizik. Gisa honetan, eta nahiz eta EGEa enpresa multinazionalak egindako aldebakarreko jokabide-kodeen<sup>9</sup> bitartez antolatuta egon (negociazio kolektiboaren alternatiba gisa), berriki emandako esperientziek esaten digute partaidetzaren erregulazio mekanismoetara lerratzea dela EGEaren joera<sup>10</sup>.

Borondatezko printzipioarekin batera eta horrekin estuki lotuta, galdagarritasun juridikoaren arazoa sortzen zaigu EGEari buruz hitz egiten dugunean. Kasu honetan, modu boluntarioan sozialki arduratsu izatea erabaki duten enpresei EGEa galdatzerik ba ote dagoen ala ez eztabaidatzen da. Hau da, behin enpresek horrelako erabakia hartzen dutenean, jakin beharko lukete derrigortuta daudela «irizpide minimo batzuk» betetzera<sup>11</sup>. Hori nola egin da arazoa, ordea. Beste era batera esanda, enpresek ez badituzte EGEa bideratzeko hartzen dituzten tresnak betetzen —ezta minimo horiek ere—, nola galdatuko diegu: judizialki edo estrajudizialki? Edota ez dago zer galdatu?

Enpresen gizarte erantzukizunaren edukia:  
barne eta kanpo erantzukizun soziala

EGEaren berezko zabaltasunak, hura enpresaren jarduerara esparru ia guztiei loturik egotea dakar. Alde batetik, enpre-

sentzat berriak diren jarduerak barneratzen ditu, eta bestetik, duela denbora dezentetik hona sustatuak izan diren jarduerak (baina berariaz EGEaren terminoarekin identifikatu ez direnak). Horregatik, EGEari buruz hitz egiten dugunean, jakin beharko genuke zerk osatzen duen EGEaren mamia lanaren ikuspuntutik. Ildo honetatik, multinazional batzuek —batez ere garapen bidean dauden herrialdeetan kokatuta daudenek—, sozialki arduratsuak diren praktikak jarduera filantropiko bezala zein karitatezko edo ohiko gizarte jarduera bezala definitzen dituzte. Baina definizio horrek aurrez aurre topo egiten du europar sindikatuak duten jarrerarekin, horiek ez baitituzte enpresa batek egindako kanpo jarduerak balorazio irizpide bakar bezala hartzen, barne antolaketa zein barne jarduerak kontuan hartu gabe.

Izan ere, enpresa baten jarduera nekez jo daiteke sozialki arduratsu langileen eskubideak urratzen dituenean, adin txikiko langileak enplegatzen dituenean kasu, edota oinarritzko lan baldintzak errespetatzen ez dituenean. Horregatik, ezin ditugu ekintza sozialak edo filantropikoak EGEaren edukian sartu; EGEak ezin baitu izan ez *marketing* tresna eta ezta negoziazio kolektiboaren ordezkoko ere<sup>12</sup>.

Ezabapen hori eginda ere, lan zuzenbidearen ikuspegitik bederen, oso era zabalean erabilia da EGEaren nozioa, enpresen ekimen ezberdinak deskribatzeko. Bakan batzuk aipatzeagatik: lan baldintzen hobekuntzari dagozkion aspektu batzuk, lanbide heziketa, langileen lanbidetasuna eta aukera berdintasuna, edota emakidadun, kontratista zein hornitzaileak giza eskubideak errespetatzera behartzeko mekanismoak<sup>13</sup>. Lan eduki horiei honokoak gehitu dizkio Europako Batzordeak Liburu Berdean: lan arloa, familia arloa eta norbere bizitza uztartzea, soldata berdintasuna, osasuna eta segurtasuna lanean eta azpikontratazioen zein enpresen berregituratzearen fenomenoak. Hori dela eta, EGEan sartu nahi diren lan-edukiak zuhurtasunez aztertu behar dira. Horretarako, lehenik eta behin, EGEaren barneko eta kanpoko dimentsioak ezberdintzea komeni da.

Barneko EGEak gizarte interesaren ikuspegitik begirutzen dio enpresaren barnealdeari. Hori horrela, enpresaren kudeaketan giltzarri diren alderdiekin du zerikusia, hala nola, giza baliabideak, osasuna eta segurtasuna lanean, langileen prestakuntza, enplegua, ordainsarien berdintasuna, eta abar. Lehenago aipatu bezalaxe, ordea, EGEa legeak eta hitzarmen kolektiboak ezarritako betebeharretatik haratago doanez, legez edo hitzarmen kolektiboen bidez araututako lan baldintzek EGETik at geratu behar dute. Barneko EGEak, ondorioz, leku txikia du: nazio bakoitzeko negoziazio kolektiboaren arloarekin topo egiten duelako. Hori dela eta, hitzarmen kolektiboek arlo horiek jorratzen dituzten kasuetan EGEak joko kanpo gelditu behar duelakoan gaude; azken horrek, indarrean dauden arauen betebeharretik abiatu eta haratago doan zerbait eskaini behar lukeelako. Borondatetasuna —EGEaren oinarritzko printzipio bezala— ez dator bat hitzarmen kolektiboaren arauen eraginkortasun juridikoarekin, eta ezta legez ezarritako negoziatzeko betebeharrekin ere. Horregatik, EGEaren barne edukian agertzen diren arloek negoziazio kolektiboaren testuinguruarekin talka egiten dutenean, enpresaren erantzukizun juridiko bilakatuko lirateke.

Gauzak horrela —negociazio kolektibo indartsua daukaten estatuetan bederen—, oso esparru murrizta izango du barneko EGEak, harekin kontraesanean sartu gabe hitzarmen kolektiboaren akzioa gainditzen duten jarduera eta praktiketara mugatuko baita. Enpresa praktika horiek denboran zehar errepikatzen badira, langileentzat kontratu baldintza onuragarriagoak sor ditzakete batzuetan, horretarako geure lan ordenamenduak ezartzen dituen ondorio juridiko guztiak aplikatuko zaizkielarik.

Kanpoko EGEa ez dagokio soilik jatorrizko enpresari, baizik eta baita haren eskumendeko adarrei zein merkataritza bazkideei ere, bereziki deszentralizazioa eta ekoizpenaren deslokalizazioa dagoen jardueren kasuan. Ildo horretatik segituz, EGEaren helburua oinarritzko lan- eta giza eskubi- den sustapena eta aintzatespena hedatzea litzateke. Esan li-

teke, honenbestez, kanpoko EGEaren esparrua estuki lotuta dagoela multinazionalak garatzen dituzten jarduerekin<sup>14</sup>.

Kontua, kasu honetan, enpresek euren merkataritzazko praktiketan oinarrizko eskubideak errespetatzeko konpromisoa euren gain hartzea da, «arlo honetan legedi arinagoa —edo, areago, legerik eza— luketen hirugarren herrialde batzuen abantailak baliatzeari uko eginda»<sup>15</sup>.

Ezin ahantz daiteke, herrialde askotan, langileen eskubide indibidual zein kolektiboek nozitzen duten degradazioaz baliatu eta euren jarduerak lan arloan araudirik eza nagusitzen den —eta berme judizial oso zalantzazkoa duten— espazioetara lekualdatu eta deslokalizatzea dela multinazional handien joera, halako moldez non OITk definitutako nazioarteko arauak berberak ere, berretsiak eta barne ordenamendu juridiko askotara erantsiak izanagatik<sup>16</sup>, behin eta berriz urratzen diren, ez soilik konpainia transnazionalen aldetik, baizik eta baita gobernuen aldetik ere. Operadore juridiko nazionalen utzikeria dela medio, eta eskubide horien urraketa zabarrenak kriminalizatuko lituzkeen Nazioarteko Lan Epaitegi baten inexistentzia tarteko, aski ezagunak dira arauak betetzen ez dituzten estatuak modu eraginkorrean erantzule egiteko dauden zailtasunak, azken horiek langileen eskubiderik oinarrizkoenak ez zaintzearen arduradun badira ere.

Inon izatekotan, testuinguru honetan litzateke dudarik gabe zentzuzkoa EGEa, enpresa globalizatuak euren negozioak hedatzen dituzten espazio orotan langileentzako eskubide-zoru minimo bat mantentzeko konpromiso gisara ulertua. Alabaina, azken aldiotako joerari jarraiki, erantzukizun sozial korporatiboaz mintzatzea —euren ekoizpena kokaturik duten herrialde bakoitzean enpresek norbere jardunbide leerroak ezartzeko borondate bezala ulertua— ez da, behar bada, egokiena, ez behintzat garapen bidean dauden zenbait herrialde zehatzei dagokienean, kaltetutako eskubide laboralen zati handi bat, legeak onartua eta are konstituzioak babestua egonagatik, ez baita ez errespetatzen eta are gutxiago bermatzen, estatuok legedia betearazten ez duten heinean.

Egokiena, beraz, gobernuen eta enpresa multinazionalen erantzukizun juridikoa lortze aldera pausoak ematea litzateke beharbada, EGEa estatuen araudiaren betetzeaz haraindi doazen jardueretarako lagaz batez ere (eskubide sozial oinarrikoenak onartzen ez dituen legedia nagusitzen den espazio nazionaletarako, alegia); korporazioak barne egotera behartuz, ez soilik zuzenean kontrolatzen dituzten jardunetan, baizik eta baita ekoizpen kate osoan ere. Enpreson erantzukizunen nondik norakoak zabaldu beharko lirateke, honenbestez: dela enpresaren adar ezberdinek eta tailerrek, zuzkitzaile zein hornitzaileek, edota are kontratistek garatutako jardueretara.

Azken buruan, globalizazioak, merkataritzaren liberalizazioak, gobernuen politikak zein mundu mailako ekoizpen praktikak arautzeko gobernu nazionalak nahiz nazioarteko erakundeek erakutsi duten gaitasun ezak, desarautzea eragin dute, eta ondorioz, araudien ahultzea eta gutxieneko babes laboralen zein lanerako baldintzen endekatzea. Testuinguru ahalkegarri samar honetan, beharrezko bihurtu da «jarduera ekonomikoen eta langileen eskubideen arteko konexioa eta OITren konbentzio oinarrikoenak betetzea»<sup>17</sup> helburu izango duten sistema globalak antolatzea, eta orobat, nazioz gaindiko izaera duten enpresek «jarduten duten leku orotan gutxieneko lan molde bidezko eusteari»<sup>18</sup> begira erantzukizuna beren gain hartzea: haurrak enplegatzeko aukera ezeztatuz<sup>19</sup>, derrigorrezko lana debekatuz eta enpleguan zein okupazioan dagoen diskriminazioa ezabatuz... harik eta askatasun sindikalaren eta negoziazio kolektiboaren onarpena erdietsi arte<sup>20</sup>.

Ohikoa da oso enpresa globalizatuek eskubide sozialen multzo hori borondatezko izaera duten aldebakarreko tresnen bidez aurrera eramatea. Hartara, modu autonomoan arautuko ditu enpresa horrek lan esparruko harremanak «halako moldez non araudi horren egozpen eremua enpresak berak bere buruari —eta berak definitutako enpresen arteko lankidetzaren elementuei— egiten dion aipamen hutsa

besterik ez den»<sup>21</sup>. Publizitazio ikaragarria izanagatik, asko dira aldebakarreko tresna horiek dituzten arriskuak: kanpo araudien beharra urritu eta sindikatuek lantokietan duten zeregina ahultzeko balizko tresna gisara erabil daitezke, besteak beste. Erranak erran, mekanismo horiek mehatxu izatera ailega daitezke estatuaren paper arautzailearentzat zein negoziaketa kolektiboarentzat, gobernuen jarduera pribatizatzaile eta desarautzailearen alde eginez.

Sarri, euren botere ekonomikoari esker, botere politikoa ere bidegabeki edukitzeko aukera izan ohi dute enpresa multinazionalak: horregatik, eta aipatutako guztia tarteko, nahitaezkoa da berme-estrategia egokiak bideratzea, EGEa ez dadin soil-soilik esku horietan geratu. EGEa nazioarteko erakunde sindikalek elkarrizketa sozialaren eta negozioazio transnazionalen bidez sustatu behar dutelakoan gaude, gutxien-gutxienik OITren oinarritzko printzipioak jasoz. Hau guztiau, konpainia globalizatu erraldoiek euren negozio eta jarduerak aurrera eramaten dituzten munduko herrialdeetan jarduera sindikala garatu ahal izateko giro egokia sortze aldera, beti ere.

## Konklusioa

Juridikoki, eta orokorrean esanda, EGEaren gaiak bi arazo handi sortzen ditu lan zuzenbidearen ikuspuntutik. Alde batetik, oinarritzko eskubidearen ideia helmena. Ikusi dugun bezala, EGEaren helburua langilearen eskubideak bermatzea da, baina gehienbat pertsona bezala eta ez hainbeste langile bezala; hau da, eskubide horiek beraien iturriengatik (iturri konstituzionalak eta nazioarteko hitzarmenak) eta xedeengatik (bizitzaren babes eta gizakien duintasuna) karakterizatzen dira. Azken ikuspuntu horrek askatasun kolektiboak biltzen ditu eta, batez ere, lan segurantza, intimitate eskubidearen babes eta ordainsari duina. Bigarren arazo nagusia da jakitea ea nola zigortzen diren kode edo beste edonolako EGEaren tresnak horiek betetzen ez direnean.



Bi arazo horien konponketan gaude eta, horregatik, tresna horiek juridikoki aztertzen segitu behar dugu, batez ere nazioartean edo Europar Batasunean egiten ari diren aurrerapausoak.¶

- 
1. Garapen Iraunkor eta Ingurumen Hezkuntzarako UNESCO Katedrak eta Eusko Jaurlaritzak lagundutako UNESCO 08/20 ikerkuntza proiektuaren emaitza da artikulua hau.
  2. Literatura handia topa dezakegu gai honi buruz, hala nola —askoren artean— lan zuzenbidearen ikuspuntutik: Antentas Collderam, J.M.: «Los sindicatos ante la globalización. ¿Hacia qué formas de solidaridad internacional?», *Cuadernos de Relaciones Laborales* 26/1, 2008, 35-55. Arthurs, H.: «Who's Affraid of Globalization? Reflections on the Future on Labour Law», in John D.R. Craig eta S. Michael Link (arg.): *Globalization and the Future of the Labour Law*, Cambridge University Press, Cambridge, 2006, 51-76. Banks, K.: «The Impact of the Globalization on Labour Standards. A Second Look of Evidence», in John D.R. Craig eta S. Michael Link (arg.): *Globalization and the Future of the Labour Law*, Cambridge University Press, Cambridge, 2006, 77-107. Baylos, A. eta Merino, A.: «Códigos de conducta negociados», in Fernando Valdés (zuz.): *Manual Jurídico de Negociación colectiva*, La Ley/Kluwer, Madril, 2008, 1019-1049. Daugareilh, I.: «La responsabilité sociale des entreprises transnationales et les droits fondamentaux de l'homme au travail: le contre-exemple des accords internationaux», in I. Daugareilh (zuz.): *Mondialisation, Travail et Droits fondamentaux*, Bruylant/LGDJ, Brusela, 2005, 349-384. Daugareilh, I.: «La contrattazione collettiva internazionale», *Lavoro e Diritto* 4, 2005, 599-629. Fields, Gary S.: «International Labor Standards and Decent Work: Perspectives from the Developing World», in Robert J. Flanagan eta William B. Gould IV (arg.): *International Labor Standards. Globalization, Trade and Public Policy*, Stanford University Press, California, 2003, 61-79. Leary, V.A.: «Forms Follow Function: Formulations of International Labor Standards - Treaties, Codes, Soft Law, Trade Agreements», in Robert J. Flanagan eta William B. Gould IV (arg.): *International Labor Standards. Globalization, Trade and Public Policy*, Stanford University Press, California, 2003, 179-205. Merino Segovia, A.: «La definición de las cualidades morales y éticas de los trabajadores de la empresa de dimensión transnacional: los códigos de comportamiento ético y profesional», *Revista de Derecho Social* 31, 2005, 85-110. Merino Segovia, A. eta Rentero Jover, J.: «Fórmulas atípicas de regulación de las relaciones laborales en la empresa transnacional: códigos de conducta y buenas prácticas», in A. Baylos (koord.): *La dimensión europea y transnacional de la autonomía colectiva*, Bomarzo, Albacete, 2003, 271-302. Moreau, M.A.:

- Normes sociales, droit du travail et mondialisation. Confrontations et mutations*, Dalloz, Paris, 2006. Salerno, F.: «Natura giuridica ed effetti dei codici di condotta internazionali per imprese multinazionali», *Lavoro e Diritto* 4, 2005, 655-670. Sobczak, A.: *Réseaux de sociétés et codes de conduite: un nouveau modèle de regulation des relations du travail des entreprises européennes*, LGDJ, Paris, 2001.
3. Hau da, adibidez, Europar Batasunak Liburu Berdean emandako definizioa: «enpresek beren merkataritza eragiketetan eta beren solaskideekiko harremanetan gizarteko kezkak eta ingurumen kezkak borondatez sartzea» (Europako Batzordeak, 2001, 20. paragrafoan). [COM (2001) 366 Azken dokumentua, (2002) 347 azken komunikazioak]. Ildo beretik, Europako Batzordeak honela definitzen du enpresen gizarte erantzukizuna (EGE): «enpresak bere borondatez ingurugiroarekiko eta gizartearekiko kezkak kontuan hartzea bere merkataritza-jardueretan eta bitartekariekin (*stakeholder*) dituen harremanetan». Horri buruzko iruzkin bat irakur daiteke, Rodríguez-Piñero, M.: «Una nueva iniciativa comunitaria sobre responsabilidad social de las empresas», *Relaciones Laborales* 11, 2006, 1-9.
  4. «No se puede forzar por ley a las empresas a ser socialmente responsables. [...], RSE no significa sino realizar acciones e iniciativas añadidas respecto al pleno cumplimiento de las leyes y los convenios colectivos en vigor. Por tanto no creo que la RSE pueda imponerse por ley, sino que debe ser el resultado de una decisión voluntaria tomada por la empresa» (Cerfeda, W.: «El sindicalismo europeo ante la responsabilidad social empresarial», *Cuadernos de Información Sindical* 63, 2005, *La dimensión laboral de la Responsabilidad Social de las Empresas*, 12. or.).
  5. Ryder, G.: «La responsabilidad social de las empresas y los derechos de los trabajadores», *Educación Obrera* 130, 2003, *La Responsabilidad Social de las Empresas: mitos y realidades*, 24. or. (www.ilo.org, Nazioarteko Lan Erakundearen webgunea).
  6. Enplegatzaileen Nazioarteko Erakundea.
  7. Hala nola, *ILO's Tripartite Declaration of Principles concerning Multinational Enterprises and Social Policy*, OITk administrazio kontseiluan adostua 1977ko azaroan (2000n zentzaturatuta). OCDE: *Guidelines for Multinational Enterprises*, 1976koa. NBEko Munduko Paktoa: *An Global Compact*. Horiek aztertzeko, Perulli, A.: *Diritto del Lavoro e globalizzazione*, Cedam, Padua, 1999, 266-299.
  8. «Las empresas entienden la RSE como una decisión que se toma y se lleva a la práctica de forma unilateral», (Cerfeda, W.: «El sindicalismo europeo...», *loc. cit.*, 11. or.). Nazioarte mailan kontribuzio asko egin dira, Justice, D.W.: «El concepto de responsabilidad social de las empresas: desafíos y oportunidades para los sindicatos», *Educación Obrera* 130, 2003, *La responsabilidad social de las empresas: mitos y realidades* (www.ilo.org).
  9. Baina ez bakarrik; ikus, beraz, Baylos, A.: «Un instrumento de regulación: Empresas transnacionales y acuerdos marco globales», *Cuadernos de Relaciones Laborales* 27/1, 2009, 107-125. Jokabide kodeei buruzko problema-

- tikan sakontzeko, ikus Aparicio Tovar, J.: «Los derechos sociales ante la internacionalización económica», in Askoren artean: *La reforma del marco normativo del mercado de trabajo y el fomento de la contratación indefinida: puntos críticos*, Comares, Granada, 1999. Baita ere, Baylos, A.: «Los Acuerdos-Marco de empresas globales: una nueva manifestación de la dimensión transnacional de la autonomía colectiva», *Revista de Derecho Social* 28, 2004, 193-212. Gu ere bat gatozen ikuspuntu kritiko batetik, Merino Segovia, A.: «La definición de las cualidades morales y éticas de los trabajadores de la empresa de dimensión transnacional: los códigos de comportamiento ético y profesional», *Revista de Derecho Social* 31, 2005, 85-109. Ikuspuntu ekonomikotik, ikus: Heras Saizarbitoria, I. eta Errazti Amozarrain, A.M.: «Jokabide kodeak, label sozialak eta enpresaren gizar-te erantzukizuna nazioartean», *Uztaro* 37, 2001, 19-46.
10. Gisa honetan, «el análisis de las diferentes iniciativas empresariales pone de manifiesto que el principio de participación dista mucho de ser asumido como un elemento básico en el desarrollo de la RSE, especialmente en lo que concierne a la implicación de los trabajadores» (Aragón, J., Rocha, F. eta Cruces, J.: «La dimensión laboral de la RSE en España: un análisis de casos», *Cuadernos de Información Sindical* 63, 2005, *La dimensión laboral de la Responsabilidad Social de las Empresas*, 37-38 or.).
  11. Baylos, A.: «Códigos de conducta y buenas prácticas de las empresas en materia laboral. El problema de su exigibilidad jurídica», *Estudios de derecho judicial* 66, 2004, 247-312, 294. or.
  12. Fernández Toxo, I.: «La responsabilidad social empresarial desde la perspectiva sindical», *Cuadernos de Información Sindical* 63, 2005, *La dimensión laboral de la Responsabilidad Social de las Empresas*, 24. or.
  13. 2002ko maiatzaren 10ean, Alderdi Sozialistak aurkeztutako lege proposamenaren arabera; azkenean aurrera atera ez zena.
  14. Logikoa denez, EGEaren gaia enpresen berregituratze prozesuetan ere aurkitu dezakegu (kaleratze kolektiboak, enpresen itxierak...). Baina kasu horietan enpresaren ardura ezartzea da arazoa beraren ingurumenari begira. Europar Batasuneko zuzenbidean, enpresen berregituratze prozesuak gizarte erantzukizun ikuspuntutik hartuta arazo pila sortzen ditu (Sobczak, A.: «La responsabilité sociale de l'entreprise: menace ou opportunité pour le droit du travail», *Relations Industrielles* 59/1, 2004, 26-51. Egile bera, «Le cadre juridique de la responsabilité sociale des entreprises en Europe et aux Etats-Unis», *Droit Social* 9-10, 2002, 806-811. Ikus «Anticipación y gestión del cambio: un enfoque dinámico de los aspectos sociales de la reestructuración empresarial». Europako Baztordearen erresoluzio proposamena Europako Baztordearen dokumentu batean gauzatu, «Prever y gestionar el cambio: Un enfoque dinámico de los aspectos sociales de las reestructuraciones de empresa», *EIRR* 343, 2002. Europako Baztordeak ere: *Gestión del cambio. Grupo de alto nivel sobre las consecuencias económicas y sociales del cambio. Informe final*, Empleo y asuntos sociales. Relaciones laborales y cambio industrial, Comisión Europea,

Dirección de Empleo, Relaciones Laborales y Asuntos Sociales. Unidad V/D/3. 1998ko azaroan bukatutako eskuizkribua eta horren bitartez egindako dokumentua, «Orientaciones de referencia para gestionar el cambio y sus consecuencias sociales», 2003ko ekaina]. Baita ere, enpresen bat-egite edota zatiketatan ikus ditzakegu EGEak sortzen dituen arazoak (Del Rey Guanter, S. eta Luque Parra, M.: «Descentralización productiva y relación laboral: escisión de empresas», *Revista de la Facultad de Derecho de la Universidad Complutense* 23, 1999, 469-471. J.L. Monereo Pérez-ek esaten duen bezalaxe, AEDTSSen XVI. kongresuan aurkeztutako orokorreko ponentzian —«Las relaciones laborales en la reestructuración y el saneamiento de empresas»—: «la reestructuración de empresas es un fenómeno muy complejo, puesto que abarca multitud de fenómenos económico-jurídicos». Ildo horretatik, egile horrek aipatzen dituen adibideak nabarmenak dira; hala nola: enpresen zatiketak, sozietate zatiketak, antolakuntzaren eraldaketak (externalización, ETT, descentralización productiva y funcional, subcontratación); enpresa estrukturaren aldaketak (enpresa taldeak, enpresa-red deritzonak...). Adibidez, egile horrek aztertzen duen bezala, Endesa Taldeak 1999ko apirilaren 27an egindako akordioa, non bigarren Kapituluaren erregulazioaren bidez: «Las condiciones de las transferencias de personal y de la circulación de trabajadores dentro del grupo, en el marco de los procesos de reorganización empresarial. Se indica que las garantías establecidas en el capítulo II se aplicarán a los procesos de reordenación societaria y reorganización empresarial del Grupo Endesa, quedando comprendidos dentro de los referidos procesos: a) La fusión por absorción y aportación de rama de actividad eléctrica a las nuevas filiales; b) La separación de actividades, establecida en el art.14 y la disposición transitoria 5ª de la Ley 54/1997, de 27 de noviembre, del sector eléctrico; c) La escisión total o parcial, por Endesa o por sus filiales de una o varias unidades productivas autónomas, a sociedades ya constituidas o de nueva creación así como las sucesivas segregaciones por estas sociedades de las unidades productivas recibidas de Endesa o de sus filiales (art.12)». Lan zuzenbide ikuspuntutik, Monereo Pérez, J.L.: *Empresa en reestructuración y ordenamiento laboral*, Comares, Granada, 2006, esaten duena zera da: «es posible hablar de una reestructuración interna que afecta a la organización y gestión de la fuerza de trabajo (movilidad funcional geográfica; modificación de condiciones de tiempo de trabajo; reducción de salarios; suspensiones por causas técnicas y organizativas; despidos por causas económicas y organizativas; planes de reorganización, descuelgue salarial, etc.), y de reestructuración laboral externa, que concierne a la organización y gestión de la empresa y de la fuerza de trabajo estableciendo mecanismos de colaboración interempresarial (descentralización productiva, contratas y subcontratas, utilización de Empresas de Trabajo Temporal), formas de concentración jurídica en la unidad (operaciones que afectan a la estructura jurídica de la empresa: transmisión de empresas, señaladamente fusiones, absorciones, escisiones, fi-

- lializaciones, etc.), formas de concentración en grupo de empresas (unidad de empresa económica y pluralidad de empresarios) y estrategias de deslocalización empresarial, que remiten a la movilidad espacial o geográfica de la empresa (reubicaciones territoriales de los procesos productivos) y a los desplazamientos temporales de trabajadores (especialmente frecuente en el ámbito de la Unión Europea). Junto con las cuestiones expuestas, el tema de la reestructuración y saneamiento de las empresas alcanzaría asimismo a las situaciones de crisis por las que éstas pueden atravesar, que daría lugar —en su máximo exponente— a la apertura de un procedimiento concursal, que en el Derecho español se regula en la Ley 22/2003, de 9 de julio, concursal, que transpone el Reglamento nº 1346/2000 del Consejo de 29 de mayo 2000, sobre procedimiento de insolvencia» [DO L160, ekainaren 20koa; zuzenketak DO L176, 2002ko uz-tailaren 5ean. Ikus 80/987/CEE Kontseiluaren Direktiba, 1980ko urriaren 20an, sobre protección de los trabajadores en caso de insolvencia del empresario, geroztik aldatuta 2002an eta 2008an]. Sakontzeko, kontsulta dai-teke Monereo Pérez, J.L.: «Evolución del Derecho del Trabajo: el proceso de racionalización jurídica de la cuestión social», *Relaciones Laborales* 2001/2, 197-254; Lyon-Caen, G.: «L'infiltration du Droit du travail par le Droit de la concurrence», *Droit Ouvrier*, 1992, 313hh; Giubboni, S.: *Diritto sociali e Mercato. La dimensione sociale dell'integrazione europea*, Il Mulino, Bologna, 2003, 165hh; baita ere 261. or. Monereo Pérez, J.L.: «La organización jurídico-económica del capitalismo moderno: El derecho de la economía. Estudio preliminar», in G. Ripert: *Aspectos jurídicos del capitalismo moderno*, Comares, Granada, 2001, XXII. or.
15. Merino Segovia, A: «Responsabilidad social corporativa: una dimensión laboral» ([www.uclm.es/organos/vic\\_investigacion/centros/celds/LEGISLACION%20Y%20JURISPRUDENCIA/RESPONSABILIDAD%20SOCIAL%20CORPORATIVA1.pdf](http://www.uclm.es/organos/vic_investigacion/centros/celds/LEGISLACION%20Y%20JURISPRUDENCIA/RESPONSABILIDAD%20SOCIAL%20CORPORATIVA1.pdf)).
  16. Molina, C.E.: *Las Normas Internacionales del Trabajo y su efectividad en el Derecho Colombiano*, Temis, Bogota, 2005, 166-224 or.
  17. González, J.: «¿Qué papel tienen las organizaciones sindicales en la elaboración e implementación de los códigos de conducta?», in *La Responsabilidad Social Corporativa y los Códigos de Conducta: ¿Beneficios para todo el mundo?*, Fundación Pau I Solidaritat Catalunya, Bartzelona, 2002, 55. or.
  18. Baylos, A.: «Códigos de conducta...», *loc. cit.*, 272. or.
  19. Mora Cavello de Alba, L.: «La explotación infantil y el Derecho del trabajo», *Revista de Derecho Social* 25, 2004, 111-120, 117hh.
  20. Lanaren oinarritzko eskubideak OITko nazioarteko hurrengo hitzarmenetan erregulatuta: OIT 138, 29, 105, 111, 87 eta 98.
  21. Baylos, A.: «Códigos de conducta...», *loc. cit.*, 253. or.

# Gizarte erantzukizuna UPV/EHU

**AMAIA MASEDA  
IRATXE AMIANO  
JASONE ASTOLA**

EHUko Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate  
Hedakuntzako errektoreordea  
EHUko Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria  
EHUko Berdintasunerako zuzendaria

## Sarrera

UPV/EHUK erakundearen alderdi guztietan gizarte erantzukizuna barneratzeaz arduratzen den Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetza dauka. Horrek erakundearen maila guztietan konpromisoa hartzen dela eta kontzeptua ulertzen dela esan nahi du. Hasierako ahaleginetan, kontzientziazioa sortzea funtsezkoa da; horregatik, Errektoreordetzaren oinarritzko zeregina gizarte erantzukizunaren alderdiak ulertzea da, printzipioak, funtsezko gaiak eta arazoak barne.

Konpromisoak eta ulermenak erakundearen goretetik hasi behar luke. Gizarte erantzukizunak erakundearentzat izan ditzakeen onurak ulertzea oso garrantzitsua izan daiteke erakundeko buruen konpromisoa lortzeko. Horregatik, ahaleginak egin beharko lirateke erakundeko buruek gizarte erantzukizunak dakartzan ondorioak eta onurak ondo uler ditzaten.

Hori guztia genero berdintasunaren eta ekonomia eta gizarte garapenaren artean lotura positiboa dagoela ahaztu

gabe, izan ere, horregatik da genero berdintasuna Milurteko Garapen Helburuetako bat. Hori dela eta, UPV/EHU-ko gizarte erantzukizunaren definizioaren barnean sartzen da erakundearen jardueretan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea eta defendatzea.

## Gizarte erantzukizunaren jatorria

Gizarte erantzukizunaren (GE) jatorria enpresa munduan kokatu behar da. Enpresa estatubatuarrak izan ziren kontzeptu hori aplikatu zuten lehenak. Gizarte erantzukizuna enpresen negozioak gidatzeko modua da, beren jardueren alderdi guztiek bezeroengan, langileengan, akziodunengan, tokiko komunitateengan, ingurumenean eta, oro har, gizartean dituzten eraginak kontuan hartzen dituen.

Enpresen Gizarte Erantzukizunari (EGE) buruzko Adituen Foroak<sup>1</sup> adierazten du *enpresen gizarte erantzukizuna ez dela indarreko lege betebeharrak hertsiki betetzea bakarrik, baizik eta enpresek beren gobernuan, kudeaketan eta estrategian gizarteko, laneko eta ingurumeneko kezkei buruzko politikak eta prozedurak beren borondatez sartzeara, eta baita beren interes taldeekiko harremanaren eta elkarrizketa gardenaren ondorioz sortzen diren giza eskubideak errespetatzea ere, modu horretan beren ekintzetatik sortzen diren ondorio eta eraginaren erantzukizuna beren gain hartuz.*

Gizarte erantzukizuna pixkanaka protagonismoa hartzen ari da, mundu mailako erakundeak, eta beren alderdi interesdunak, gizartearekiko jarrera erantzulea izatearen beharrei eta horrek dakartzan onurei buruz kontzientziatzen ari diren heinean.

Enpresa kudeaketaren ereduak jasandako aldaketa horrek enpresa mota guztiei eragiten die, bai pribatuei bai publikoei. Herritarrak, sistemarengan zuten konfiantza galtzarekin batera, gero eta zorrotzagoak dira eta informazioa gero eta gardenagoa izan dadila eta enpresen jarduerari buruzko informazio garrantzitsua zuzenean eskuratzeko aukera izan de-

zatela eskatzen dute. Eskakizun mailaren gorakada horrek administrazio publikoei ere eragiten die, funts publikoen kudeatzaileak direlako. Ildo horretatik, gobernu erantzulearen etengabeko hobekuntza beharrezkoa da enpresa publikoetan eta pribatuetan, gardentasunarekin eta kudeaketa erantzulearekin zerikusia duten arazoak neurri berean gertatzen baitira bi esparruetan.

Erakunde publikoen kasuan, gainera, horien izaerari atxikita dagoen betebeharra da, publikoak direlako eta beren gizarte osoaren onuraren alde lan egiteko sortuta daudelako.

Gobernu erantzulearen politikak enpresa guztiei aplikatu behar litzaizkieke etorkizunean, eta administrazio publikoek aitzindari eginkizuna bete behar dute, gainontzeko enpresen eredu gisa jokatzuz. Gobernuak, aldaketak sustatzeko eta sisteman hobekuntzak ezartzeko duen gaitasunari esker, bere erakundeen bitartez sektore pribatuarentzako jardunbide egokien eredu gisa jokatzeko aukera dauka.

## Gizarte erantzukizuna eta unibertsitateak

Unibertsitateen kasuan, gizarte erantzukizuna erronka bat da. Izan ere, kontzeptu horrek ondorengoa dakar berarekin: goi mailako hezkuntza zentroek, profesional onez gain, beste arazoekiko sentikorrak eta beren herrialdearen garapenarekin eta zaugarrienen gizarteratzearekin konprometitua ere prestatzeko konpromisoa hartu behar dute. Horrez gain, profesional horiek gogotsuak eta sortzaileak izan behar dute beren lanbidea gauzatzean, eta beren komunitatearen garapen parte-hartzailea sustatu behar dute.

Jakina zen unibertsitateek ezin zutela enpresa askok azken urteetan egin duten gizarte erantzukizunari buruzko hausnarketatik kanpo gelditu, ez unibertsitateak ere erakundeak direlako soilik, baizik eta baita enpresetan lan egingo duten etorkizuneko profesionalak, giza eskubideak demokratikoki sustatu behar izango dituzten herritarrak eta gure mundu globalizatuan ongizate komuna beren esku izango duten



etorkizuneko funtzionarioak prestatzea dagokielako ere. Horregatik, gaur egun, gero eta unibertsitate gehiagok sustatu eta praktikan jarri nahi dute unibertsitateen gizarte erantzukizuna (UGE).

Enpresen munduan gertatu zen moduan, «gizarte erantzukizuna» kontzeptuaren agerpenak eta aplikazioak ez dakar unibertsitatean gizartearekiko erantzuleak diren jardueri hasiera ematea, erakunde batzuek zerikusia duten ekimenak martxan jarri dituztela baizik, bereziki, ingurumen iraunkortasunaren esparruan. Une honetan martxan dauden azterketetako datuen arabera<sup>2</sup>, Espainiako 77 unibertsitateetatik 19k gizarte erantzukizuna (GE) bere horretan gauzatzen dutela adierazi dute. Dena den, beste askok gizarte erantzukizuneko praktikak gauzatzen dituzte, esaterako, elkartasun programak, minusbaliatuentzako laguntzak, ingurumenaren zainketa, etab., baina ez dituzte gizarte erantzukizuneko jardueratzat hartzen.

Gizarte erantzukizuna lantzerakoan, unibertsitateak hiru harreman izan beharko ditu kontuan:

- Unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremana: unibertsitateak bere erabakiek eta jarduerak gizartean duten eragina ulertu beharko luke. Unibertsitateak gizarteak eragin horiekin lotuta unibertsitatearengandik espero dituen jokabideak ulertu beharko lituzke. Hori funtsezko gaiak eta gizarte erantzukizuneko arazoak kontuan hartuta egin beharko litzateke. Ildo horretatik, unibertsitateetako gizarte kontseiluek gizarte erantzukizunarekin zerikusia duten ekintzak praktikan jartzean betetzen duten zeregin garrantzitsua nabarmendu behar da. Beraz, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseilua da euskal gizarteak Unibertsitatean parte hartzea bermatzen duen unibertsitateko gobernu organoa.
- Unibertsitatearen eta alderdi interesdunen artekoa: unibertsitateak bere alderdi interesdun ezberdinak zein diren jakin beharko luke. Unibertsitatearen erabakiek eta

jarduerak eragin potentzialak eta benetakoak izan ditzakete norbanako eta erakunde horiengan. Eragin potentzial edo benetako horiek erakundeek edo pertsonak beren burua alderdi interesduntzat hartzera bultzatzen dituen interesaren oinarria dira. Eta, azkenik;

- Alderdi interesdunen eta gizartearen artekoa: unibertsitateak kontuan izan beharko lituzke, alde batetik, erakundearen eragina jasaten duten alderdi interesdunen interesen arteko harremana eta, bestetik, gizartearen itxaropenak. Alderdi interesdunak gizarteko zati badira ere, gizartearen asmoekin bat ez datozen interesak izan ditzakete. Alderdi interesdunek unibertsitatearekiko interes espezifikoa dituzte, eta horiek gizarteak edozein gairekiko portaera erantzule gisa hartu behar denari buruz dituen itxaropenekiko ezberdinak izan daitezke. Adibidez, ikasleek prestakuntza eguneratua jasotzeko duten interesa eta gizarteak baliabide publikoak ondo kudeatzeko duen interesa gai beraren ikuspuntu ezberdinak izan daitezke.

Erakunde batek, bere gizarte erantzukizuna aztertzerakoan, hiru harremanak kontuan hartu beharko ditu. Baliteke unibertsitateak, bere alderdi interesdunek eta gizarteak ikuspuntu ezberdinak izatea, beren helburuak ezberdinak direlako.

Horri dagokionez, funtsezkoa da kontuan hartzea unibertsitatearen zeregina ez dela estatua edo garapenerako GKEak ordeztzea, baizik eta *goi mailako prestakuntza integralean* duen zeregina gero eta hobeto hartzea bere gain, *helburu etikoekin eta bere komunitatearen garapen iraunkorraren alde eginez*. Nahitaezkoa izango da unibertsitatearen eta kanpoko komunitatearen arteko harremana ez izatea aldebakarreko dohaintza, proiektzioa eta laguntza; alderantziz, beharrezkoa da *elkarte* gisa jokatzeko eta *ikaskuntza komunitatea* sortzea (kanpoko bazkideek unibertsitateari bere akademia eta hezkuntza zeregina betetzen lagundu behar diote). Gizarte erantzukizuna atzeraelikadura prozesua barne hartzen duen kudeaketa estrategia dela ulertu behar dugu.

## Gizarte erantzukizuna eta garapen iraunkorra

Gizarte erantzukizunaren funtsezko ezaugarria erakundeek beren erabakiak hartzerakoan gizarte eta ingurumen ardurak kontuan hartzeko eta beren erabakiek eta jarduerak gizartean eta ingurumenean duten eragina beren gain hartzeko duten gogoia bada, gizarte erantzukizunaren xede garrantzitsuenetakoa garapen iraunkorrari<sup>3</sup> laguntzea dela esan dezakegu. Garapen iraunkorra bizi kalitatearekin, osasunarekin eta oparotasunarekin zerikusia duten xedeak gizarte zuzentasunez betetzea da, lurra bizitzari bere aniztasun guztiarekin eusteko duen gaitasunari bere horretan eutsiz. Gizarte, ekonomia eta ingurumen helburu horiek bata bestearen menpe daude eta elkarri indarra ematen diote. Garapen iraunkorra gizarte osoaren itxaropen handienak adierazteko bidetzat har daiteke.

Batzuetan gizarte erantzukizuna eta garapen iraunkorra terminoak trukatu egiten badira ere, eta nahiz eta horien arteko harremana hurbilekoa izan, kontzeptu ezberdinak dira.

Garapen iraunkorra onarpen handia duen kontzeptua eta 1987ko Ingurumenari eta Garapenari buruzko Munduko Batzordearen *Gure Etorkizun Komuna* (*Our Common Future*) argitalpenaren ondorioz nazioarteko aintzatespena jaso zuen helburu nagusia da. Garapen iraunkorraren oinarria gizartearen beharrak asetzea da, planetaren muga ekologikoak errespetatuz eta etorkizuneko belaunaldiak beren beharrak asetzeko izango duten gaitasuna arriskuan jarri gabe. Garapen iraunkorrak bata bestearen menpe dauden hiru dimentsio ditu (ekonomikoa, gizartekoa eta ingurumenekoa); esaterako, pobreziarekin amaitu ahal izateko ingurumena eta gizarte zuzentasuna babestu behar dira. Nazioarteko hainbat forotan azpimarratu izan da helburu horien garrantzia, adibidez, 1992ko Nazio Batuen Ingurumenari eta Garapenari buruzko Biltzarrean eta 2002ko Garapen Iraunkorrari buruzko Munduko Goi Bileran.

Gizarte erantzukizunaren interes gunea erakundea da eta erakunde batek gizartearekiko eta ingurumenarekiko di-

tuen erantzukizunak barne hartzen ditu. Garapen iraunkor-  
 rarak pertsona guztien ekonomia, gizarte eta ingurumen hel-  
 buruei egiten die erreferentzia, horregatik, modu erantzulean  
 jardun nahi duten erakundeek kontuan hartu behar dituz-  
 ten gizartearen itxaropen guztiak laburbiltzeko modua dela  
 esan daiteke. Beraz, gizartearekiko erantzulea den erakunde  
 baten helburu orokorrak garapen iraunkorraren alde egitea  
 izan beharko luke.

Unibertsitate sektorean garapen iraunkorra sustatzeko  
 hainbat ekimen nazional eta nazioarteko daude, trukeak  
 egiteko eta ikasteko baliagarriak izan daitezkeenak. Adibi-  
 dez, nazioartean ondorengoak daude: Global Higher Edu-  
 cation for Sustainability Partnership (Unesco, Unibertsitateen  
 Nazioarteko Elkarte, University Leaders for a Sustainable  
 Future), Unescok koordinatutako Garapen Iraunkorrerako  
 Hezkuntzaren Hamarkada ekimena, GUNI (Global Univer-  
 sity Partnership for Innovation), Copernicus Campus (Eu-  
 ropa), European Academy for Business in Society (EABIS),  
 Environmental Association of Universities and Colleges  
 (EAUC). Nazio mailan, CRUEk garapen iraunkorrari eta  
 ingurumen kalitateari buruzko lan talde bat dauka, eta hain-  
 bat unibertsitatek, esaterako Kataluniako Unibertsitate Po-  
 liteknikoak, ESADEk edo Santiagoko Unibertsitateak, jar-  
 dunbide egokiak gauzatu dituzte gizarte erantzukizunaren  
 esparruan.

## **Enpresen Gizarte Erantzukizuneko tresna arauemaileak**

Nazioarteko ekimenez gain (LANEren funtsezko hitzar-  
 menak, Europar Batasunaren Liburu Berdea, etab.), hainbat  
 erakundek gizarte erantzukizunarekin zerikusia duten por-  
 taera kodeak edo arau independenteak proposatu dituzte.  
 Dena den, edozein ingurune kulturaletan edo herrialdetan  
 aplikatu daitezkeen arauak egiteak dakarren konplexutasunak  
 eztabaida handiak sorrarazi ditu.

Dauden portaera kode guztien artean, ondorengoak azpimarratu behar dira:

- SA 8000, SAIk egindakoa (Social Accountability International).
- ISO 26000, ISOk egindakoa (International Organization for Standardization).
- Etika. Enpresen Gizarte Erantzukizuna Kudeatzeko Sistema.
- GRI iraunkortasun memoriak.

Tresna horien artean, unibertsitate munduan zabalduena GRIk iraunkortasun memoriak egiteko emandako metodologia da. GRI 1997an sortu zen CERES (Coalition for Environmentally Responsible Economies) gobernuz kanpoko erakunde estatubatuarraren eta NBIPen (Nazio Batuen Ingurumen Programa) arteko ekimen gisa, iraunkortasun memoriaren kalitatea, zorroztasuna eta erabilgarritasuna sustatzeko asmoz. Ekimen horrek enpresen, irabazi asmorik gabeko aholku erakundeen, ikuskaritzen, inbertsio elkartean edo sindikatuetakoa ordezkarien babesa eta konpromisoa jasotu du, beste askoren artean. Guztien artean, memoriak egiteko gida bateratu bati buruzko adostasuna lortzeko lan egin dute, mundu guztian onartua izan dadin.

Hainbat unibertsitatek, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoak edo Santiagoko Unibertsitateak esaterako, beren Gizarte Erantzukizunerako Memorien bitartez, GRIren metodologia barnerratu dute informazioaren eta adierazleen tratamenduan, beren kudeaketa sistema hobetzeko tresna gisa.

## UPV/EHUko Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetza

Aurreko orrialdeetan aipatutakoarekin bat etorritik, UPV/EHUK Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetza dauka. Errektoreordetza horren bidez, garapen iraunkorra bultzatu nahi du Unibertsitatean, bertako gizarte, ekonomia eta ingurumen alderdiak kontuan hartuta.

Horretarako, lana hainbat eremutan banatzen du: gizartearekiko harremanetik hasi eta iraunkortasuneraino, garapenerako lankidetzak, borondatezko lana eta balioen hezkuntza bezalako eremuetatik igarota. Hori guztia emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspuntutik zehazten du.

## Jarduketa ardatzak

Unibertsitateak lantzen dituen gizartearekiko kudeaketa erantzulearen 4 ardatzak ondorengoak dira:

- Gizartearekiko erantzulea den erakundearen kudeaketa, ondokoei dagokienez: laneko giroa, giza baliabideak, barneko prozesu demokratikoak eta ingurumenaren zainketa.
- Gizartearekiko erantzulea den prestakuntza akademikoaren eta pedagogiaren kudeaketa, ondorengoei dagokienez: gaiak, curriculumaren antolamendua eta metodologia didaktikoak.
- Ikasgelatik sustatutako jakintzaren eta ikerketaren ekoizpenaren eta hedapenaren gizartearekiko erantzulea den kudeaketa.

Komunitateko giza garapen iraunkorrean izandako parte-hartzearen gizartearekiko erantzulea den kudeaketa.

- Unibertsitatean garapen iraunkorra sustatzeaz eta Unibertsitateak sortzen dituen eraginak gutxitzeaz arduratzen da. Hauek dira eragin horietako batzuk:
  - Eraginak erakundearen funtzionamenduan: Unibertsitateko kideengan eta ingurumenean.
  - Hezkuntza eraginak: prestakuntzan, baita etika profesionalean eta gizarte eginkizunean ere.
  - Eraginak jakintzan: jakintzarako eta zientziaren aurrerapenerako irisgarritasunean, ikerketen helburu diren arazoak aukeraketan eragiten du.
  - Gizarte eraginak: gizarteko erreferentzia eta eragilea delako.

Estrategiaren oinarria Unibertsitatea dagoeneko egiten ari dena identifikatzea, indartzea eta irudikatzea da. Gizarte

erantzukizunak barne hartzen dituen jardunbideek ohikoak izan behar dute UPV/EHUrentzat, erakunde gisa, eta Unibertsitateko kide diren pertsona guztientzat, pertsona gisa.

Horretarako hainbat ekintzari ekiten zaie:

- Kudeaketaren arduradunek konpromiso esplizituak hartzen dituzte, esaterako, garapenerako lankidetzari dagozkion Unibertsitateen Jokabide Kodeari atxikitzea.
- Unibertsitateko kideak dagozkion erabakietan eta gardentasunean parte hartzera bultzatzen dira. Komunikazio eta informazio kanalak argi ezartzen dira, Unibertsitateko kideek gobernu taldearen jarduketaren gaineko beharrezko kontrola gauzatu ahal izan dezaten, iraunkortasunari dagokionez.
- Baliabideak ingurumena gehiago errespetatuz erabil daitezela lortzeko jarraibideak ezartzen dira, esaterako: energia berriztagarrien erabilera edo hondakinen kudeaketaren hobekuntza.
- Elkartasun politikak hobetzen dira.
- Funtsezkoa da Unibertsitateko kideen ekimenak babes-tea, elkartasunari, ingurumenarekiko erantzukizunari eta bakearen kulturari buruzko jardunaldiak eta eztabaidak egiten direnean.
- Unibertsitateko kide guztiek eta gizarteak Unibertsitatean hartzen diren erabakietan parte hartzea errazten duten egiturak sortzen dira prozesu parte-hartzaileen bidez, adibidez, UPV/EHUko Lankidetzaren Kontseilua edo Iraunkortasunerako Ibilbide Orria.

Ikus dezakegun moduan, Unibertsitatean gizarte erantzukizunarekin zerikusia duten ekintzak praktikan jartzeko, hainbat lan eremu garatu behar dira, esaterako:

- Garapenerako lankidetzaren
- Ingurumenaren iraunkortasuna
- Borondatezko lana
- Balioen hezkuntza
- Gizartearekiko harremanak
- Berdintasuna

## Berdintasuna UPV/EHUn

Esan denez, emakumeen eta gizonen berdintasuna gizarte-erantzukizunaren definizioan dago UPV/EHUn. Eta hori ziurtatzeko hainbat gauza egin dira.

Dirección para la Igualdad/Berdintasunerako Zuzendaritza UPV/EHuko Gobernu Kontseiluaren erabakiz sortu zen, 2006ko ekainaren 15ean, errektorearen —garai hartan, Juan Ignacio Pérezen— menpeko kide bakarreko kargu akademiko gisa<sup>4</sup>. Hortaz, Zuzendaritza apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak —Unibertsitateen Lege Organikoa aldatzeko Lege Organikoak— Espainiako unibertsitateak berdintasun unitateak<sup>5</sup> sortzera premiau baino lehen sortu zen. UPV/EHU emakume eta gizonen berdintasun printzipioarekin erlazionatutako eginkizunak garatzeaz arduratzen den organo bat sortu duten Estatuko lehen<sup>6</sup> unibertsitateen artean dago.

Gobernu aldaketaren ondoren, eta Iñaki Goirizelaia buru duen gaur egungo errektoretza taldearen zuzendaritzapean, UPV/EHuko errektoreak 2009ko urtarrilaren 26an emandako erabakiak, Zuzendaritza Kontseiluaren funtzionamendu arloak egituratu eta zehazteari eta eskumenak eskuordetzeari buruzkoak, Zuzendaritza Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetzaren menpeko organo izatera igaroko zela ezarri zuen.

Orduz geroztik, bere egitura sendotuz joan da:

- 2009ko uztailaren 14an argitaratu zen, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 2009ko ekainaren 22ko erabakia<sup>7</sup>, UPV/EHuko Idazkaritza Nagusiarena, UPV/EHuko Berdintasunerako Batzordearen sorrerari eta bere funtzionamendu arautegiari buruzkoa —Batzordea 2009ko urrian eratu zen formalki eta, bertan, UPV/EHuko hiru estamentuak (irakasleak, ikasleak eta AZPko langileak) eta hiru campusak daude ordezkatuta—;
- Urte bereko urrian Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaritzarekin partekatutako administrari laguntzaile bat iritsi zen Zuzendaritzara; eta



- 2009ko abenduan berdintasuneko teknikari bat hasi zen lanean<sup>8</sup>.

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2006ko ekainaren 15eko erabaki hark zioen Berdintasunerako Zuzendaritzaren eginkizunak honako hauek zirela:

- Egoeraren diagnostikoa egitea;
- UPV/EHUren barne funtzionamenduan eta kanpora begirako jardueran emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzera zuzendutako neurri zehatz eta eraginkorrrak bilduko dituen plana prestatzea;
- Berdintasun plan horretan jasotako edukien jarraipena eta ebaluazioa egitea; eta
- Arlo honetan agin dakioken beste edozein eginkizun.

Sortu zenetik, Zuzendaritzak ekintza ugari burutu ditu. Ekintza horien helburua Zuzendaritzaren beraren eginkizunak betetzea eta unibertsitate esparruari buruzko lege ezberdinen helburuak gauzatzea izan da. Hainbat esparrutan jardun da:

- Irakaskuntzan (genero ikuspegia duten graduoko eta graduondoko irakasgaien datu bankua);
- Ikerkuntzan (genero ikuspegia duten ikerkuntza proiektuen datu bankua, genero ikuspegia duten graduondoko ikerketa lanak eta doktorego tesiak egiteko deialdiak);
- Ikusgaitasunean (UPV/EHUko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa; une honetan, bigarrena egiten ari dira);
- Hedapenean (UPV/EHU berdintasuna sustatzeko jardunaldiak eta hitzaldiak antolatzeko laguntzen deialdia, martxoaren 8ko jardunaldien antolaketa...);
- Hizkuntzaren erabilera ez sexistan (gidak eta sarrerak prestatzen, interesatuta dauden pertsoneri laguntzeko tresnak ematen...).

Gaur egun, Berdintasunerako Zuzendaritza eta Berdintasunerako Batzordea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana<sup>9</sup> prestatzen ari dira; eta, bertan, irakaskuntza-

rekin eta ikerkuntzarekin erlazionatutako kontuak aztertuko dira, baita gizarte eta lan harremanei eta horiek gizartean duten hedapenari buruzko erakunde kontuak ere. Asmo deklarazioetan oinarritutako plana izan ez zedin, egin daitekeen plan bat prestatzea erabaki da, ezarritako epean benetan gauza daitezkeen ekintzak izango dituen, dinamikoa, abian jar-tzen denean bertan hobekuntza posibleak ikusgai utziko di-tuena, eta katalizatzailea, lortu nahi den berdintasuna eraiki-tzeko beharrezko oinarriak finkatzeko ahalegina egingo bai-ta. Lehenengo plan hori 2009/2010 ikasturtearen amaiera al-dera onartzea espero da, eta bertan jasotako ekintzak gauza-tzeko ezarri den epea UPV/EHUko egungo zuzendaritza tal-dearen agintaldiarekin batera amaituko da.

Plan hau unibertsitateak emakumeen eta gizonen berdinta-suna modu eraginkorrean ziurtatzeko duen eginkizunari bu-ruz bai Espainiako bai Euskal Herriko legetan dauden manu guztiak biltzen saiatzen da. Lege horietatik UPV/EHUK jaso-zen dituen eginkizunen artean, ondorengoak nabarmendu-ko ditugu:

- «Gizarte eta kulturako desberdintasunak gutxitzen eta gizonezkoen eta emakumeen arteko berdintasuna lor-tzen laguntzea, borondatea eta gaitasuna duten pertsona guztiei unibertsitate heziketara iristeko bidea erraztuz»<sup>10</sup>;
- «Androzentrikoa ez den jakintza ekoizten laguntzea, unibertsitateek egoki iritzitako ekintza positiboko neu-riak babestuz, emakumeei unibertsitatean sartzeko bi-dea errazteko eta emakumeak jakintza-arlo guztietan ari-tzea bultzatzeko»<sup>11</sup>;
- «Jakintza-arlo guztietako irakas-lanean eta ikerketa-la-netan genero-ikuspegia txerta dadin, hizkera ez-sexista erabil dadin, eta emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egindako garapen sozial eta histo-rikoa jaso dadin bermatzea»<sup>12</sup>.

Irakaskuntzara mugatuta, manuak argiak dira: UPV/EHUK jakintza transmititu behar du, jakintza ez androzentrikoa; genero ikuspegia txertatu behar du; emakumeen jakintza

eta ekarpena jaso behar du; eta, horretarako, hizkera ez sexista erabili behar du.

Kategoria horiek guztiek azalpen txiki bat behar dute. Jaintza androzentrikoa izan dadila saihesteko —hau da, gizezkoak gizadiaren historiaren erdigune bakar gisa har daitezela—, garrantzitsua da generoaren kategoria analitiko erabiltzea —elementu biologikoan oinarrituta, hots, sexuan, pertsonen eginkizun berezia ematen dien patriarkatuaren kultur eraikuntza hori—. Generoa funtsezko tresna da giza zientziak aztertzeko, edozein ikerlan aberasten baitu, bere diskurtsoa ondorengo analisiaren pean jarritz: nor ari den hizketan —gizezkoa edo emakumezkoa—; nori buruz ari den —aztergaia—; eta norentzat edo zertarako ari den hizketan; horrela, hobeto ulertzen dira testuak, eta horien azpian dauden interesak ikus daitezke.

Kategoria analitiko horrekin egindako ikerketek ondorengoetarako aukera ematen dute: aztertu beharreko gaian emakumeen presentzia edo falta lehenagotzea eta, horrela, kontuan hartzen ez dituen diskurtsoaren partzialtasuna agerian uztea. Analisi batean genero erlazioak jasota ez daudenean, aipatzen ez den botere erlazioa dago<sup>13</sup> eta horren berehalako ondorioa historia faltsutzea da. Hortaz, generoa analisirako kategoria erabilgarri bihurtzen da<sup>14</sup>, intereseko gai berriak identifikatzen dituelako, ikerketaren arloan elkar ulertzeko alderdi berriak eskaintzen dituelako eta ikerketari esparru teoriko berria ematen diolako. Esparru horretatik askotan jartzen dira zalantzan naturalizat hartzen diren zenbait eraikuntza<sup>15</sup>. Genero ikuspegitik berehala ikusten da hizkuntzaren erabilera sexista dagoen ala ez<sup>16</sup>.

Ikerkuntzari dagokionez, esandakoaz gain, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Euskar Legearen 33.4 artikulua ondorengo gaineratzen du:

Prestakuntza eta ikerketaren aldeko deialdietan, Hezkuntza Administrazioak batik bat honako ezaugarriak betetzen dituzten proiektuak baloratuko ditu:

- a) Proiektuen buru emakumeak izatea, emakumeen ordezkari txikia den ikerketa-eremuetakoak badira.

- b) Ikerketa-taldean emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua izatea.
- c) Emakumeen eta gizonen ezberdintasunarekin eta sexuen arteko hierarkia-harremanarekin zerikusia duten arazoak ulertzen laguntzea.
- d) Ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak proposatzea.

Planaren eginkizuna puntu horiek betetzen direla ziurtatzea da. Nolanahi ere, UPV/EHU jada ari da gai horien inguruan lanean, batzuetan legeak atera baino lehen eta, beste batzuetan, Berdintasunerako I. Plana izan aurretik.

Ekimen aitzindarien artean *Emakumeari buruzko Ikerketarako Mintegia* nabarmendu behar da, Teresa del Valle Murga irakaslearen zuzendaritzapean hamarkada bat baino gehiago (1981-1994) martxan egon zena<sup>17</sup>. Mintegi eman-  
kor horren helburuetako bat emakumeen egoerari eta errealtateari buruzko ikerketa sustatzea izan zen. Horregatik, 1992/93 eta 1993/94 ikasturteetan «Emakumeei eta Genero Sistemiei buruzko Ikerketarako Masterra» antolatu zuen Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Teresa del Valle Murgak eta Carmen Díez Minteguik zuzenduta.

Ondoren, *Ekimen Feminista / Red de Estudios Feministas y de Género* iritsi zen, talde gisa 2006. urtean sortua, eta UPV/EHUko irakaskuntzan, ikerkuntzan eta administrazio eta zerbitzuetan lan egiten duten pertsonen osatua, bereziki emakumeek. Funtsean, *Ekimen Feminista* emakumeen gaineko jakintza eta jakintza bera eraldatzeko eremu bat zabaltea eta unibertsitatea eta gizartea eraldatzen laguntzea helburu nagusizat zuten mintegi, talde, jardunaldi edo ekimene-  
netan lan egin zuten edo lanean ari ziren pertsonen bultzatu zuten.

Pertsona horiek egindako lanaren emaitza gisa, egun UPV/EHUK ondorengoak ditu:

- 2001az geroztik berezko titulu bat —emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaineko masterra: berdintasunaren eragileak—; 2008/2009 ikasturteaz geroztik unibertsitate master bat —ikasketa feministak eta generokoak—;

- berdintasunari buruzko irakasgaiak edo genero ikuspegi dutenak bai graduetan —30 bat Gizarte Zientzia eta Zientzia Juridikoetan; eta 16 Giza Zientzietan— bai graduondokoetan —8 Gizarte Zientzia eta Zientzia Juridikoetan eta 13 Giza Zientzietan—, 57 pertsonak eskaintzen zituztenak Gizarte Zientzia eta Zientzia Juridikoetan eta 20k Giza Zientzietan;
- mintegi iraunkor ezberdinak eta ikasketa feministen eta generokoen sarea<sup>18</sup>.

Lortu nahi den berdintasuna ez da irakaskuntzara eta ikerkuntzara mugatzen; aitzitik, Unibertsitateko gizarte eta lan harremanetara ere zabaltzen da. Eginkizunei dagokionez, ondorengoak agertzen dira: langileen lan, prestakuntza eta sustapen baldintzetan bereizkeriarik gerta ez dadin bermatzea; prestakuntza eta sustapena berdintasunean oinarrituta sustatzea; berdintasunaren aurkako ekintzen salaketak tratatzeko protokoloa ezartzea; norberaren bizitza, familia-ko bizitza eta lana bateratzea; edo Unibertsitateak beste enpresa batzuekin dituen harremanetan berdintasuna kon-tuan hartzeko mekanismoak ezartzea.

UPV/EHU jabetzen da bere jarduketek gizartean duten balio sinbolikoaz, eta, beraz, bere gizarte hedapena berdintasunarekin lotzeko ahaleginak egingo ditu —hizkuntzaren erabilera ez sexistaz baliatuta, ekitaldi akademiko guztietan partekotasuna sustatu edo Unibertsitateko organoetan emakumeen eta gizonen arteko presentzia orekatua bultzatu—.

Informazio hori guztia eta UPV/EHUko emakumeen eta gizonen berdintasunarekin erlazionatutako besteren bat interesdunen eskura dago [www.berdintasuna.ehu.es](http://www.berdintasuna.ehu.es) webgunean. Horrek UPV/EHU berdintasuna gauzatzeko egiten ari den lana eta jarri duen interesa islatu nahi ditu.

Nolanahi ere, elkarte baten barruan gizarte erantzukizuneko kultura sortzeak denbora asko behar izan dezake. Alabaina, Errektoreordetza ziur dago sistematikoki aritzea eta lehendik dagoen balio eta kulturetan oinarrituta lan egitea dela gizartearekiko elkarte erantzulea lortzeko bidea.¶

1. EGERi buruzko Adituen Foroa 2005eko martxoaren 17an sortu zen, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren ekimenez, hainbat ministeriotako ordezkarien eta enpresa taldeetako, sozietate zibileko erakundeetako eta unibertsitateetako adituen parte-hartzearekin.
2. *Ingeniería y Gestión Responsable (iGR)* ikerketa taldean *gizarte erantzukizunaren arteak Espainiako unibertsitateetan duen egoera* aztertzea helburu duen proiektu bat gauzatzen ari gara.
3. Une honetako beharrak asetzen dituen garapena, etorkizuneko belaunaldiak beren beharrak asetzeko izango duten gaitasuna arriskuan jarri gabe.
4. Eta lehenengo zuzendaria Mertxe Larrañaga Sarriegi izan zen.
5. Ordurako, ordea, Eusko Legebiltzarrak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea onartuta zuen. Horren arabera, beharrezkoa zen euskal administrazio publikoetan zenbait organo sortzea gizarteko esparru guztietan, baita goi mailako hezkuntzakoan ere (berariaz 33. artikulua aipatua), emakumeen eta gizonen arteko aukera eta tratu berdintasuna sustatu eta bermatzeko.
6. Berdintasunerako Zuzendaritza baino lehenagoko unitateen artean, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Genero Berdintasunerako Bulegoa, 2004an sortua, eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko *Observatori per a la Igualtat*, 2005ean sortua, nabarmentzen dira.
7. Erabaki hori eta Batzordearen osaera honako helbide honetan daude: [www.berdintasuna.ehu.es/p234-content/eu/contenidos/informacion/planigualdad\\_estructura/eu\\_info/estructura.html](http://www.berdintasuna.ehu.es/p234-content/eu/contenidos/informacion/planigualdad_estructura/eu_info/estructura.html) (azken kontsulta 2010eko martxoaren 30ean egin zen).
8. Webgunean ikus daiteke egitura: [www.berdintasuna.ehu.es/p234-content/eu/contenidos/centro/planigualdad\\_dondeestamos/eu\\_ubicacio/dondeestamos.html](http://www.berdintasuna.ehu.es/p234-content/eu/contenidos/centro/planigualdad_dondeestamos/eu_ubicacio/dondeestamos.html) (azken kontsulta 2010eko martxoaren 30ean egin zen).
9. Nahiz eta hori izango den UPV/EHU osorako I. Plana, nabarmendu behar da 2004an UPV/EHUko Lan Harremanen Eskolako Aukera Berdintasunen I. Plana prestatu zela.
10. Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 6.1.g) art.
11. Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 7.m) art.
12. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legearen 33.2 art.
13. Halaxe ulertu zuen Joan W. Scott-ek: «Gender: A Useful Category of Historical Analysis», *American Historical Review* 91, 1986, 1053-1075, bereziki 1069, bertan zehatz-mehatz aipatzen baita generoa dela boterea antolatzekeo eremua eta bitartekoa. Testu horiek, eta beste batzuk, James Emelang eta Mary Nash-ek (arg.) bildu zituzten: *Historia y género*, Alfonso el Magnánimo, Valentzia, 1990, 23-56.
14. Horren erabileraren adibide bat Lina Gálvez Muñoz-en lanean ikus daiteke: «Logros y retos del análisis de género en la historia económica de la empresa», *ICE Historia empresarial* 812, 2004, 77-89, [www.revistasice.com/cmsrevistasICE/pdfs/ICE\\_812\\_77-89\\_\\_037F94EA03D8100877FDEF9A84A17240.pdf](http://www.revistasice.com/cmsrevistasICE/pdfs/ICE_812_77-89__037F94EA03D8100877FDEF9A84A17240.pdf) (azken kontsulta 2010eko apirilaren 8an egin zen).

15. Generoa analisirako tresna gisa erabiltzearen inguruko hausnarketa interesgarria eskaintzen du Cristina Molina Petit-ek: «Contra el género y con el género: crítica, deconstrucción, proliferación y resistencias al sujeto excéntrico», in Alicia H. Puleo (arg.), *El reto de la igualdad de género. Nuevas perspectivas en Ética y Filosofía Política*, Biblioteca Nueva, Madril, 2008, 259-272.
16. Interesgarria da zertan datzan jakiteko: «Guía para el uso no sexista de la lengua castellana y de imágenes en la UPV/EHU», [www.berdintasuna.ehu.es/p234-content/eu/contenidos/informacion/ikasketak/eu\\_ikasketa/adjuntos/GUIA.pdf](http://www.berdintasuna.ehu.es/p234-content/eu/contenidos/informacion/ikasketak/eu_ikasketa/adjuntos/GUIA.pdf) (azken kontsulta 2010eko apirilaren 8an egin zen).
17. Mintegia Teresa del Valle Murgak zuzendutako «Mujer vasca. Imagen y realidad» izeneko ikerlanetik (1975-1984) abiatuta eratu zen. Mintegiaz gain, beste batzuk ere izan ziren, baina informalagoak. Adibide gisa, Zuzenbide Fakultateko *Feminismoa eta Zuzenbidea* mintegia aipa daiteke.
18. Gainera, 2006/2007 ikasturtean, emakumei buruzko ikerketei, ikerketa feministei eta generokoei buruzko 60 ikerketa proiektu baino gehiago izan ziren —47 Gizarte Zientzia eta Zientzia Juridikoetan eta 15 Giza Zientzietan—; 18 tesi defendatu ziren Gizarte Zientzia eta Zientzia Juridikoetan eta 2 Giza Zientzietan; Giza Zientzietan 5 tesi UPV/EHUko langileen ardurapean izan ziren, baina beste unibertsitate batzuetan defendatu ziren; eta ikertzeko gaitasuna lortzeko 2 lan egin dira gai horien inguruan Gizarte Zientzia eta Zientzia Juridikoetan.

G A I A K



**135** IDURRE ALONSO

Gaur egungo erronkak euskal literaturaren  
irakaskuntzan



# Gaur egungo erronkak euskal literaturaren irakaskuntzan

**IDURRE ALONSO**

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateko irakaslea

Euskal literaturaren irakurketa ikasketei oso lotuta ageri zaigu gaztetxoan artean, eta oinarrizko ikasketak bukatu ostean ere, irakurle askok daukaten literatur erreferente nagusia eskola da (Alonso, 2006). Horrek premiazko bihurtzen du literaturaren irakaskuntzak dituen funtzioei eta proposatzen dituen edukiei buruz hausnartzea, eta aurrerantzean egin beharreko bidean oinarri sendoak finkatzea.

Izan ere, literatura nola eta zein baliabide pedagogikorekin irakatsi behar den erabakitze orduan, askotariko iritzia daude —eta askotan, kontrajarriak—. Artikulu honek arazo hori du abiapuntu. Eta hortik abiatuta, euskal literaturaren irakaskuntza gaur egun zein egoeratan dagoen aztertzea du helburu, etorkizunerako erronka batzuk proposatzearekin batera.

Horretarako, artikuluan hiru atal bereizi dira: lehenengoan, literaturaren irakaskuntzak azken bi mendeotan izan dituen xedeen garapena jasotzen da, eta gaur egun lortu nahi diren helburu berrietarako baliabideak. Bigarrenean, euskal literaturaren irakaskuntzak gaur egun duen egoeraren diagnostika eskaintzen da, hezkuntza-legeak, eskola-libu-

ruak eta ikastetxeetako jarduna aztertuz. Hirugarren atalean, berriz, euskal literaturaren irakaskuntzak etorkizunerako dituen erronkak proposatzen dira.

## Irakaste-xedeen garapena azken bi mendeotan

XIX. mende hasieran, sentsibilitate erromantikoarekin, hizkuntza autoktonoekiko nahiz ahozko herri-literatura eta poesiarekiko interesa sustatu zen<sup>1</sup>. Horrela, herriaren jakinduria bultzatzearekin identifikatu zen hezkuntza, eta literaturari zegokion irakasgaia *literatura nazionalak* irakasteko baliatu zen. Horrekin batera, garaiko mugimendu nazionalistak ere kultur ondare nazionala zabaltzearen alde agertu ziren<sup>2</sup>.

Euskal Herriaren kasuan, erromantizismoak baino areago XIX. mendeko aldaketa soziopolitikoek eragin zuten euskal izaera eta kultura bultzatzearen aldeko mugimendua. XIX. mendearen amaieran Euskal Herriaren izaera juridiko, politiko, ekonomiko, demografiko eta kulturala erabat aldatu ziren. 1876an, foruak abolitu ostean, mugimendu abertzale eta euskaltzaleak euskal nortasuna aldarrikatzeari ekin zion, joesora foruzalea eta autonomiazalea areagotuz eta euskal izaera sustatuz (Perez, 2004:76).

Euskal nortasuna indartzeko ahalegin horietan sortu ziren lehen euskal eskolak. Haien sorrerak historian lehen aldiz euskara bihurtu zuen bitarteko eta helburu (Torrealdai, 1997:103). Bestalde, garai bereko gertaera garrantzitsu batek indartu egin zuen eskolan kontzientzia nazionala lantzearen garrantzia: frantziar nahiz espainiar Estatuetan XIX. mendean hasitako industrializazio kapitalistaren garapenarekin batera derrigorrezko eskolaratzea onartu zen, nahiz eta benetako eskolaratzea beranduago gertatu (Perez, 2004:52)<sup>3</sup>. Euskal Herrian 1920ko hamarkadan egin ziren ekipamendu-egokitzapen esanguratsuak herri xehea ere eskolara zedin (Arpal, Asua eta Dávila, 1982:25). Beraz, herri xehea eskolaratzeko prozesua irakaskuntza euskaldunaren garapenarekin batera hasi zen<sup>4</sup>.

1960tik aurrera euskara eta euskal kulturaren irakaskuntza bermatuko zuten ikastolak hasi ziren sortzen Bizkaian eta Gipuzkoan; ondorioz, esan daiteke euskal literaturaren irakaskuntza sistematikoa 1960ko hamarkada inguruan hasi zela.

Laburbilduz, batetik mugimendu erromantikoez ondare nazionalari eman zioten garrantziak, eta bestetik, derrigorrezko eskolaldia onartzeak —eta Hego Euskal Herriaren kasuan, foruen galerak ere bai— bultzatu egin zuten eskolatan lekuan lekuko kontzientzia nazionala sustatzea. Haur eta gazteengan sentimendu hori sortzea helburu hartuta, literaturaren alorrean idazle batzuk aukeratu ziren herrialde bakoitzean; horiek izango ziren ondare literario nazionala osatuko zutenak, alegia, belaunaldiz belaunaldi memoria historikoan gordetzea merezi zutenak. Ondare nazional horrek bide emango zuen lekuan lekuko kohesio soziokulturala erdiesteko.

Beraz, historizismoaren ereduak autoreen kanonizazioa eragin zuen, bai eta literaturaren historiaren transmisioak lehenetasuna izatea ere. Horrela, eduki kontzeptualei eman zitzaizkien lehenetasuna, eta testuen irakurketak eta azterketak bigarren mailara zokoratu ziren. Gaur arte iraun dute orduan sortutako metodologiek eta eduki kontzeptualen nagusitasunak, eta zenbait ikastetxetan horiek dira nagusi oraindik.

Dena dela, esan behar da XX. mendearen bigarren erdialdean aldaketa garrantzitsuak gertatu direla literaturaren irakaskuntzari ezarri zaizkion helburuetan. Hain zuzen ere, literatura nazionalak irakastearen helburuari beste helburu bat gehitu zaio: ikaslearen gaitasun komunikatibo eta literarioak garatzea. Aldaketa horren trantsizio-unea 1969an etorri zen, estrukturalismoaren eskutik, T. Todorov eta S. Doubrovskik zuzendutako Cerisy-La Salleko kongresuan literaturaren irakaskuntzaren egoera aztertu zenean. Testuak ikasgelako jardueretatik kanpo geratzen ari zirela ikusita, egoera hura iraultzeko beharra aldarrikatu zen, eta aurreko berrogeita hamar urteetan egondako literatur irakaskuntzarako etena proposatu (Todorov, 1971:635).

Zergatik irakatsi literatura? Zer irakatsi? Nola irakatsi? Hiru ildo horiek jorratu zituzten 1969ko Cerisy-La Salleko *L'enseignement de la littérature* kongresuan. Todorov (1971:628) zioen moduan, ez dago galdera horiei modu bakar eta sinplean erantzuterik; unibertsitate, eskola eta herrialde bakoitzeko testuinguruari erreparatu behar zaio, eta beraz, erantzun partzialak baino ez daude. Dena dela, irizpide nagusi batzuk zehatz daitezke.

Horrela, kongresu hartan finkatu ziren etorkizunean literaturaren irakaskuntzak izan beharko zituen zenbait hatsarre. Horien artean, literatur historiaren irakaskuntza errotik aldatzea helburu zutenak aipatu behar dira; aldarrikatu zen ordura arte indartuz zihoan literaturaren historia irakasteko eskema *kronologiko* eta *nazionalak* ez zuela zentzurik. Antolaketa kronologikoaren orde, generoetan edo bestelako faktoreetan oinarritutako esperientziak proposatu ziren (Todorov, 1971:634). Horri lotuta, irakasle bakoitzak ikasturteko programaren edukiak zehazteko aukeraren alde egin zen. Ardatz nazionalaren orde, nazio-mugak gainditzea proposatu zen, muga nazionalak bi arazo nagusi zekartzala argudiatuz: lehena, literatura nazionala soilik irakasteak oztopatu egiten zuela kanpoko literaturek herrialdeko autoreengan zuten eragina aztertzea; bigarrena, ikasleei ez zitzaizela aukerarik ematen beste literatura batzuetan idatzitako maisulanak ezagutzeko (id.).

Laburbilduz, Cerisy-La Salleko kongresuan planteatu zen testua kokatzea literatur irakaskuntzaren erdigunean, testu-azterketen bidez. Testu-azterketak literaturaren berezko ezaugarriak identifikatzera bideratzea proposatu zen; modu horretan, ikasleak baliabide haiek barneratuko zituen, eta gai izango zen testuak aztertzeko ez ezik, sortzeko ere.

Ondorioz, 1970etik aurrera, testuak hartu zuen garrantzi handiena bigarren hezkuntzan, eta testu-azterketak nagusitu ziren. Horrela, literaturak galdu egin zuen hezkuntza morala eta estetikoa transmititzeko funtzioa, eta lan bakoitzaren nola eratu zen ulertzeko elementuen analisisa lehenetsi

zen (alegia, ezaugarri literarioen analisisa). Edozein kasutan, ez zen egin literaturaren historiarekiko etenik, eta gainjarri egin ziren literaturaren historiaren irakaskuntza eta testuen lanketak (iruzkin gisa landuak, gehienetan).

Kongresu hartatik aurrera egindako proposamen didaktikoetan, testuen ulermena eta sormena lehenetsi da. Ildo horretan, 1970eko hamarkadatik aurrerako proposamenek lehenetsi egin dute ikaslearen gaitasun komunikatiboak gartztea hizkuntza eta literatura biltzen dituen jakintzagaian. Era berean, aldarrikatu dute literaturaren irakaskuntzak aukera eman behar diela ikasleei literatur diskurtsoa sortzen eta jasotzen ikasteko (ulertzen, interpretatzen, aplikatzen eta baloratzen). Edozein modutan, ikaste-irakaste prozesuak ikaslearen motibazio, interes eta esperientzietan oinarritu behar duela aldarrikatu dute.

Ikaslearen esperientzia eta interesei buruz ari garela, ezin dugu aipatu gabe utzi haur eta gazte literatura, eta literatura mota horrek irakaskuntzarekin duen lotura ondo ulertzeko, haren sorrera ezagutu beharra dago. XVIII. mendearen hasieran Europako herrialde nagusietan ikerketa pedagogikoarekiko kezka sortu ziren; horrela, Rousseau, Basedow eta beste hainbat pentsalariren lanari esker, XVIII. mendearen amaierarako haurrei ez zitzaien «heldu txikiak» bailiran irakasten, pedagogoen ustez haurrei beren ezaugarrien araberako edukiak eskaini behar zitzaizkien. Aldaketa haren ondorioz, literatura espezifikoko baten ideia sortu zen, haur eta gazteei zuzendutakoa (Escarpit, 1981:61<sup>5</sup>). XVIII. mendearen erdialdean sortu ziren Suedian eta Londresen haur eta gazteei zuzendutako lehenengo liburuxkak; dena dela, XX. mendean izan du haur eta gazteen literaturak hedapenik handiena, derrigorrezko eskolaratzea gauzatzearekin batera. Honela azaltzen du Escarpitek (1981:123) derrigorrezko eskolaratzeak literaturari ekarri dion aldaketa:

A partir de entonces la literatura infantil y juvenil no solamente se dirigirá a un público enorme, sino que la naturaleza de dicho público será diferente: las masas, tanto rurales como

urbanas, entrarán en el ámbito del libro. Las estructuras pedagógicas de cada país tuvieron que enfrentarse a la demanda de nuevos lectores produciendo material para leer: manuales de lectura por una parte, y obras literarias, por otra.

Gorago ikusi dugun moduan, Cerisy-La Sallen 1969an egindako kongresuak testua kokatu zuen literatur irakaskuntzaren erdigunean, eta ondorioz, azken berrogei urteotan irakurle gaituak hezteko beharrak markatu du proposamen pedagogikoen norabidea. Horretarako, bi helburu nagusitu dira: ikaslea irakurtzera zaletzea eta irakurtzen nahiz testuak ekoizten gaitzea, hau da, testuak ulertzen, interpretatzen eta irizpide kritikoz baloratzen irakastea. Bi helburu horiek bereizteak eragin du espainiar Estatuko ikasgeletan, bederen, formazio-irakurketa eta irakurketa funtzionala bereiztea (Colomer, 1998:108). Modu horretan, alde batetik, testu-azterketak egin dira (kontsagratutako autoreen testuak baliatuz), eta bestetik, irakurketa libreak.

## Egungo errealitatea: curriculum, testuliburuak eta ikastetxeetako jarduna

Curriculum XIX. mendean sortu zen eskolan zein eduki landu behar ziren zehazteko<sup>6</sup>. Bilbaoren ustez (2003:25), hiru dira XIX. mendeaz geroztik egon diren curriculum-ereduak: paradigma positibista (ikuspegi teknologikoa); paradigma interpretatzailea (ikuspegi praktikoa); eta, azkenik, paradigma sozio-kritikoa (ikuspegi kritikoa).

Hego Euskal Herrian bi curriculum-eredu daude, Euskal Autonomia Erkidegoan bata eta Nafarroan bestea. Eredu horiek paradigma praktikoa kokatu izan dira nagusiki (Bilbao, 2003:26). Oinarrian jasotzen da curriculum eskola bakoitzaren beharrezko egokitu behar zaiela, eta irakaslea dela egokitzapen horren arduraduna.

Bestalde, Raventósek (2005:26) ohartarazten duen moduan, Europar Batasunaren erronka garrantzitsuenetarikoa gaur egun curriculumaren berrantolaketan datza, eta curri-

culumaren eginkizun nagusia eskolako edukiek egunerokotasunean duten erabilgarritasuna agerian uztea da.

Gaur egungo curriculumaren ezaugarri nagusia izaera malgua eta ireki samarra da. Ikasturteko programazioa diseinatzea irakasleek egin beharreko lana da, modu horretan ikastetxearen testuinguruari eta ikasleen ezaugarri psikosozialei egokitu ahal izateko. Hizkuntza eta literatura irakasgai berean biltzen dira, eta Lehen Hezkuntzatik Batxilergoa bukatu arte *Hizkuntza eta Literatura* irakasgai komuna da.

Hego Euskal Herriko curriculum-legeei dagokienez, hiru helburu garrantzitsu jasotzen dituzte literaturaren irakaskuntzan: ikaslearen gaitasun komunikatiboak garatzea, literaturaren historia irakastea eta irakurzaletasuna sustatzea. Hortaz, badirudi curriculumean ere islatzen dela bi eredu pedagogikoren batuketa, eta azken bi mendeotan literaturaren irakaskuntzari esleitu zaizkion helburu guztiak bildu dituela. Edozelan ere, esan behar da edukietan curriculum biek eman diotela lehentasuna literatura nazionalaren historia irakasteari, garai bakoitzeko testu esanguratsuenak lantzea proposatuz. Beraz, ez dira lehenetsi gaitasun komunikatiboen garapena eta ikasleak irakurzaletzeko helburua. Izan ere, helburu horiek nabarmendu izan balira, bestelakoak izango ziratekeen ikasgeletan testuak aukeratzeko irakasleei proposatuko zitzaizkiekeen irizpideak (besteren artean, ikasleen interesak, testuingurua eta gaitasun kulturala). Dena dela, EAEko curriculumean aipatzen da landuko diren testuek, ahal den neurrian, gazteen mundu-ikuskerarekin eta testuinguruarekin lotura eduki behar dutela. Ikuspegi hori garrantzitsua izan daiteke ikasleen motibazioa sustatzeko; Nafarroakoak ez du halakorik zehazten.

Edozein kasutan, esan daiteke 1970eko hamarkadatik hona ikuspegi pedagogiko berriak sortu diren arren, horiek ez direla, oraindik, guztiz txertatu Hego Euskal Herriko curriculum-ereduetan. EAEko curriculumak Nafarroakoak baino ikuspegi berritzaileagoa izan arren, gabezia nabarmenak azaleratzen dituzte biek. Nafarroakoaren kasuan, eredu za-

harrari jarraitzen diola esan daiteke, edukiak zurrun aurkeztuz (irakatsi behar diren autoreak zehaztuz, kasu) eta ezagutza kontzeptualak lehenetsiz. EAEko curriculumari dagokionez, antzematen zaio ikuspegi berriarekin bat egiteko saiakera; horren adibide dira, besteak beste, irakatsi beharreko idazleen aukeraketa irakaslearen esku uztea edota merkatuaren ezaugarri soziologikoei arreta eskaintzea.

Laburbilduz, esan daiteke bi eredu didaktikoak (literaturaren historia irakastea zuena helburu eta gaitasun komunikatiboak garatzea lehenesten duena) elkartu egin direla curriculum-legeetan, nahiz eta lehenbiziko ereduak indar handiagoa izan oraingoz. Hurrengo lerroetan ikusiko dugun moduan, eskola-liburuetan ere antzeko fenomenoak atzeman daiteke. Hemen azalduko ditudan datuak Hego Euskal Herrian oso erabiliak diren hiru argitaletxeren testuliburuetan oinarritutakoak dira: Giltza, Ibaizabal eta Elkarrekoak.

Gorago esan dudana moduan, eskola-liburuetan ere bi eredu pedagogikoak nabarmentzen dira. Hala ere, horietako bakoitzean curriculumaren berritasunaren alderdi batzuk baino ez dira jaso. Ildo horretan, esan daiteke ezberdinak direla, oro har, aztertutako testuliburuaren egituraketa eta lehenesten diren alderdiak.

Hala ere, badaude ezaugarri batzuk liburu guztietan errepikatzen direnak, eta horiek iruditu zaizkit hona ekartzeko interesgarrienak. Batetik, guztietan lehenesten dira eduki kontzeptualak (Elkar argitaletxeko testuliburuetan salbu). Hain zuzen ere, literaturaren historiari —idazlearen biografiari eta testuinguru soziokulturalari— eskaini zaio tarterik zabalena. Horrek dakar berarekin hezkuntza-prozesuen agente nagusia irakaslea izatea, eta ikaslearengan informazioa «uztea».

Bestalde, eskola-liburuek duten hutsunerik nabarmenatarikoa, beharbada, honakoa dugu: ariketek ez dute progresibotasunik, ez testuliburuan zehar, ez eta ikasmaila batetik bestera ere. Horrek dituen eragozpenak ugari dira: ikasleak behin eta berriz egiten ditu antzeko jarduerak, eta beraz,



ezagutza teorikoan aurreratzen badu ere, ezagutza praktiko berbera da beti. Testu-iruzkinetan ere behin eta berriz errepikatzen dira iruzkin-ereduak; testuliburu batzuetan galdera itxietan oinarritzen dira, eta beste batzuetan, ikasleari jorratu beharreko arloak aurkezten zaizkio, berak gara ditzan. Batera zein bestera, progresibotasuna falta da, gero eta testu nahiz iruzkin konplexu eta osoagoak irakurri eta sortzeko prestakuntza eskaintzea. Gainera, beste gabezia bat ere badago: ikasleari ez zaio laguntzarik eskaintzen aurretik ikasitakoarekin loturak egiteko; hori da ikasketa esanguratsuen ardatza, hain zuzen ere, ikasi dena lehendik ikasitakoarekin lotzea eta ikasitako guztiari osotasuna ematea. Horrez gain, sorkuntzari eskainitako jarduerak urriak dira liburu guztietan.

Hala ere, eta hutsuneak aipatu ostean, iruditzen zait komeni dela biltzea eskola-liburu batzuek dituzten bertuteak. Izan ere, etorkizuneko jardueretarako eredu bikaina eskaintzen digute. Ildo horretan, literatur gaitasuna garatzen laguntzeko, baliabide garrantzitsuak dira testuari buruzko hausnarketak eta balorazioak bultzatzen dituzten jarduerak. Ibaizabalek zenbait proposamen egiten ditu bide horretan, ikasleari galdetuz, besteak beste, testuko ondorioak ongi aterata daudela iruditzen zaion, argudioetan hutsuneren bat nabaritu duen edota beste argudioren bat erantsiko liokeen. Ariketa mota horrekin ahalbidetzen da ikasleak ikastea bai ulermenean sakontzen, bai eta bere arrazoiak modu koherentean azaltzen ere; biak ditugu komunikazio-gaitasunak.

Bestalde, ikasketa-prozesua eraginkorra izan dadin, ezinbestekoa da irakasleak kontuan hartzea ikaslearen kapital kulturala, hau da, ikasleak daukan ezagutza gaiaren inguruan. Irakaslea ezagutza horretan oinarritu behar da ikasketa-prozesua antolatzeko, baina testuliburuaren azterketa honek iradokitzen du gutxi direla ezagutza horiek neurtzera bideratzen diren jarduerak. Horietan, eredu bikaina eskaintzen du Elkar argitaletxeak; bertan, ikasleari galdera batzuk egiten zaizkio landuko den gaiari buruz. Jarduera horiek au-

rre-ezagutzak neurtzeko nahiz motibazioa lantzeko erabil daitezke.

Bukatzeko, esan behar da testuliburuak bideratuta daudela, hein handi batean, curriculumean zehazten diren hiru helburuetatik bat asetzeraz: literaturaren historia irakastera. Edozelan ere, ematen du komunikazio-gaitasuna garatzeko helburuari ere heldu nahi diotela astiro-astiro, eta beraz, pentsa daiteke testuliburu berrietan helburu horrek gero eta tarte zabalagoa izango duela. Irakurzaletasuna sustatzearen xedeari dagokionez, testuliburuaren lanketatik kanpo gertatzen da.

Atal honekin amaitzeko, ikasgeletako jardunari buruzko zenbait datu bilduko ditut hurrengo lerroetan. Gorago ikusi dugu zeintzuk diren literaturaren irakaskuntzak bete behar-ko lituzkeen helburuak curriculumaren arabera, eta ikusi dugu, halaber, testuliburuetan zein neurritan islatzen diren horiek. Orain, ikasgeletako errealitatera egingo dugu jauzi. Horretarako, Hego Euskal Herriko hogeita bat ikastetxetan Batxilergoan zer eta nola irakasten den ikusiko dugu<sup>7</sup>.

Literaturaren irakaskuntzan bi helburu nagusi bereizten dira gaur egun Hego Euskal Herrian: bata euskal literaturaren historiari buruzko datuen transmisioari dagokio. Literaturaren historia irakasteko gehien erabiltzen den euskarria testuliburua da, eta EAeko irakaslerik gehienek testuliburuaren arabera antolatzen dituzte edukiak. Bestalde, 1970eko hamarkadatik gaur arte ikasgelako jarduera garrantzitsua bihurtu da testu-iruzkina. Aztertu ditudan ikastetxeetan ere tartekatu egiten dira, ikasgelako jardueretan, eduki teorikoak eta testu-iruzkinak. Iruzkin horien helburuak, oro har, azterketa linguistikoa egitea edota eduki teorikoak testuan identifikatzea izan ohi dira (literatur baliabideei buruzko teoria, kasu). Bestalde, testuliburua euskarri nagusia izatearen ondorioz, irakasten diren eduki teorikoetan nahiz testu-iruzkinetan lekurik handiena duten idazleak testuliburuak nabarmentzen dituztenak dira. Dena dela, testuliburuaren askotariko literatur generoen idazleak nabarmentzen ba-

dira ere, ikasgeletan lantzen direnak narrazio-idazleetara mugatzen dira (nahiz eta ez dagoen horretarako arrazoi pedagogikorik). Ildo horretan, ikastetxe askotan ikasleei eskaintzen zaien ikuspegia oso hertsia dela esan daiteke, eta zenbait kasutan idazle bakarraren erreferentzia izan ohi dute ikasleek (euskaldunen kopurua handia ez den guneetan eta ikastetxe pribatuetan, batez ere). Edozein kasutan, ondo-koak dira ikasgeletan gehien lantzen diren idazleak, lanke-ta-kopuruaren arabera emanda: Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia, Ramon Saizarbitoria, Anjel Lertxundi, Joan Mari Irigoien, Txillardegia, Pako Aristi, Xabier Mendiguren, Arantxa Urretabizkaia eta Gotzon Garate.

Metodologiari dagokionez, ikasgeletan egiten diren jardueretan, irakasleek testuliburueta ariketak proposatzen dituzte. Ildo beretik, atal horretan agerian geratu da, oraindik ere, testuliburuak gabezia nabarmenak dituztela irakas-kuntza pedagogikoari dagokionez (sorkuntzara bideratuta-ko ariketa gutxi, eduki teorikoek pisu handia, etab.).

Obra osoen irakurketari dagokionez, ikasleei irakurketa sustatzeko helburuarekin irakurrarazten zaizkien liburuak gehienetan ez dira aukeratzen literatur sisteman esanguratsuenak edo garrantzitsuenak izan direlako; aitzitik, bestelakoak dira aintzat hartzen diren faktoreak: merkatua (marketinga, promozioa, sariak...), ikasleen gustuak eta ikaslearen motibazioa (hitzaldiak eta gomendioak). Hori dela eta, aldakorra izan ohi da irakurgaien zerrenda. Hala ere, idazle batzuk urtero irakurtzen dira, dela jendartean duten ospeagatik, dela ikasleen artean lortutako arrakastagatik. 2004-2005 ikas-turtean, esaterako, honako hauek izan ziren irakurrienak (hauek ere kopuruaren arabera emanda): Bernardo Atxaga, Julen Gabiria, Ramon Saizarbitoria, Fernando Morillo, Joan Mari Irigoien, Xabier Etxeberria, Unai Elorriaga, Juan Luis Zabala, Patxi Zubizarreta eta Jon Arretxe.

Hortaz, ikasgelan gehien lantzen diren idazleeta batzuk irakurrien zerrendan ere aurki ditzakegu. Modu horretan, jite oso ezberdineko idazleak irakurtzen dira. Horren

arrazoiak askotarikoak dira; besteak beste, irakasle batzuk saiatzten dira literaturaren historian esanguratsu izan diren idazleak irakurrarazten, eta beste batzuek, berriz, merkatuari lotuago dauden irizpideak baliatzen dituzte irakurgaiak hautatzeko. Gainera, irakasleek aipatzen dute lanketa bakoitzaren helburua argi ez edukitzeak ere zaildu egiten duela zer landu eta zer irakurri erabakitzea. Izan ere, curriculum-ean ere ez da zehazten landu behar den eduki bakoitza zein helbururekin dagoen lotuta, edota helburu bakoitza nola erdietsi daitekeen.

Zehaztasun falta horrek eragiten du, beharbada, literaturaren irakaskuntza ez egotea bideratuta ikaslearen literatur gaitasuna garatzera. Izan ere, ikusi dugu ikasgelan eduki teorikoek betetzen dutela literaturari dagokion denborarik gehiena; etxean irakurtzen diren liburuekin, ostera, ez da proposatzen ulermenean, balorazioan, interpretazioan... sakontzeko lanketarik. Hortaz, ikasleen gaitasun literario eta komunikatiboak lantzea eguneroko jardunbideetatik urruti geratzen da.

Bukatzeko, horri guztiari gehitu behar zaio hizkuntza eta literatura irakasgai bakarrean biltzeak literaturari eragin dion bazterketa. Euskal Herriaren kasuan are nabarmenagoa da bazterketa hori, gazteen euskara-maila apalak beharrezko bihurtzen baitu hizkuntzaren irakaskuntza lehenes-tea. Edonola ere, ez da ahaztu behar hizkuntza irakasteko tresna baliagarria dela literatura.

## Etorkizunerako erronkak

XX. mendean zehar aldaketa nabarmenak gertatu dira hezkuntzaren alorrean. Aldaketarik garrantzitsuena hezkuntza bera ulertzeko ikuspegi berriak ekarri du: egungo hezkuntzak ez du jarraitu nahi ikasleari informazioa transmititzeko tresna soila izaten; bizitzarako baliagarri izango zaizkion esperientziak eskaintzeko gunea ere izan nahi du. Ondorioz, eduki kontzeptualen aurrean esperientziak eta

ikasketa esanguratsuak lehenetsi dira, eta ikasketa-prozesu parte-hartzaileak sustatu, ikasleen interes eta testuingurua-ekin lotutakoak.

Bide horretan, ikasleek jaso behar dituzten ezagutzen funtsa aldatu egin da, eta irakatsi beharreko edukiak ere bai. Literaturari dagokionez, etorkizunerako erronka garrantzitsua da ikasketa esanguratsuak lortzea. Ondorioz, testuen corpusa aukeratzeko irizpideak aldatu egin dira; ezinbesteko jotzen da ikasleen *kultur kapitala* aintzat hartzea, hau da, noraino iristen den ikasleek egin, esan eta uler dezaketena (Lomas, 1996). Azken batean, eduki zailegietatik eta ulergaitzetatik abiatuz gero, ikasleei edukiak buruz ikastea beste biderik ez zaie geratuko, eta beraz, irakaskuntza ez da esanguratsua izango. Horrek guztiak berarekin dakar literaturaren lanketa-prozesua prozesu jarraitu baten barruan kokatzea, non edukiak, irakurgaiak nahiz jarduerak zailtasunaren arabera antolatuko diren. Ikusi dugu, ordea, egungo eskola-liburuetan behin eta berriz errepikatzen direla antzeko jarduerak literatura lantzeko. Baina helburua lortzeko jarduera ordenatuak behar dira, prozesu jakin baten garapena posible egingo dutenak. Horrela, helburua lortzeko baliabide erabilgarriak zeintzuk diren identifikatu, baliabideen hurrenkera erabaki eta aukeren arteko hautua egin ahal izango da (Dewey, 1916:93). Helburuak eta baliabideak ondo uztartzea ezinbestekoa da, bai ikaslea motibatuzko, bai haren garapena bermatzeko. Gainera, ikasketek ikaslearen jarreretan eragiteko, hautatzen diren edukiek batasuna eduki behar dute, bai ikasleen esperientzia eta ezagutzekin, baina baita (edukiek) beren artean ere. Beraz, ikaslearen gaitasun komunikatiboak ondo antolatutako prozesuen bidez garatzeko beharra dago.

Testu literarioen lanketei dagokienez, testu-iruzkin askok jite linguistikoa dute egungo testuliburuetan; obra osoen irakurketek duten lanketari dagokionez, kontrol batera mugatzen dira kasurik gehientsuenetan (ikasleak liburua irakurri duela frogatzea dutenak helburu). Dena dela, onar-

tzen badugu literatura irakastearen helburu behinena ikaslearen gaitasun komunikatiboak garatzea dela, onartu behar dugu, orobat, testu literarioen lanketek ulertzeko prozesua sustatu behar dutela, eta hortik abiatuta, ikaslea testua berreraikitze gaitu. Modu horretan, ikasleak ikasi egingo du testuak ulertzen, informazioa modu partzial edo osoan gordetzen, laburtzen, beste batzuekin lotzen, baloratzen, edukiak askotariko egoeretara egokitzen... (Reyzábal eta Tenorio, 1992:16).

Literatur generoei dagokienez, ikasgelan gehien lantzen diren idazleak narrazio-idazleak dira, eta ikasturtean zehar ia erabat mugatzen dira irakurgaiak aipatutako literatur generora. Hala ere, eskolaren egitekoen artean dago ikaslearen literatur gaitasuna garatzea, eta ondorioz, askotariko generoak irakurtzeko gaitzea. Hori dela eta, urteko irakurgaietan nahiz ikasgelan lantzen diren edukietan genero nagusiak, bederen, txertatzeko ahalegina egitea dagokio eskolari.

Bukatzeke, eta teoria pedagogiko berriek planteatu dituzten helburuen egokitasuna eta beharrezkotasuna ukatu gabe, iruditzen zait azpimarratu egin behar dela ikasleari bere kulturaren gaineko gutxieneko kokapen historikoa ematearen garrantzia, literatur testuak egoki irakurri, ulertu eta interpretatzeko. Izan ere, ikaslearen gaitasun komunikatiboak garatzeko ahaleginetan, ez dut uste komeni denik literatura-aren historiaren irakaskuntza alboratzea.

Testuak garai eta testuinguru zehatzetan sortzen dituzte autoreek, eta testua bere markoan ez kokatzeak eragotzi egiten du haren ulermena eta interpretazioa. Bestalde, garrantzitsua da ikasleak literatur sistema zer den eta nola garatzen den ezagutzea. Izan ere, literatur gaitasunaren barruan kokatzen da, nire ustez, literatur sistemek nola funtzionatzen duten jakitea; kultura orokorraren barruan kokatzen da, berriz, ikasleak *bere inguruko* literatur sistemako faktoreak ezagutzea. Literaturaren irakaskuntzak lortu nahi badu ikasleak modu kritikoz baloratzea testuak nahiz horien harrerak, ezinbestekoa da jakitea testuek zer-nolako bidea egiten du-

ten idazten direnetik harrera-prozesua amaitzen denera arte (merkatuaren egitekoa, instituzioen eragina, idazleak bere liburua ezagutarazteko egindako bidea, eta abar). Eta hori guztia ezagutzeko bidea izan daiteke euskal literatur sistemari erreparatzea, erdiguneak eta periferiak nola sortzen diren azaltzea, gaur egun ditugun argialetxeak ezagutzea, jakitea zein den haien egitekoa obrak ezagutarazteko garaian, sari-keta literariorik garrantzitsuenak zeintzuk diren ezagutzea, aztertzea euskal autoreek zer-nolako bideak jorratzen dituzten literatura jendarteratzeko, literatur mugimendu nagusien ekarpenak zeintzuk izan diren jakitea...

Ezagutza horrekin bultzatuko dugu gaurko ikaslea bihar-ko irakurle kritikoa izatera, merkatu-indarrei edota kanonari itsu-itsuan jarraituko ez diena. Hortaz, literaturaren historiari nahiz literatur sistemari dagozkion ezagutza kontzeptualak bitarteko gisa landu behar direla onartuta ere, behar-beharrezkoa da irakasle nahiz irakaskuntzako gaitontzeko agenteek ezagutza praktikoa nahiz kontzeptualak egoki uztartzea, ikaste-irakastearen prozesua ezagutza-mota batera edo bestera mugatu gabe.¶

- 
1. Azurmendik (2007:71) dioen moduan, ez dago mugimendu erromantikoaren sorrera lurralde eta data zehatz batean kokatzerik: «Ikertzaileek ezin dute fenomeno definitu, ezin dute haren data mugarritu ere, geografikoki nola banatu ere ez dakite: batek 1770-1830 artean kokatzen ditu (Iraultza baino lehen hasita), besteak 1790-1850 artean; batek Ingalaterran hasten ditu, besteak Frantzian, Alemanian. Segurua da, dena delako fantasma hori, goizago edo beranduago Europa osoan agertu dela, eta 1800 inguruan ibili dela».
  2. Dena dela, eta literaturak kontzientzia nazionala indartzeko zeukan funtzioa XIX. mendean indartu zela onartuta ere, funtzio hori aspalditik zertorren literaturaren kontzeptuarekin uztartuta (Even-Zohar, 1993:363). Horrekin lotuta, garrantzitsua da gogora ekartzea Zabaletaren lana (2000), non sakon aztertzen den estatuek eskola nola baliatu duten nazioaren irudia, historia eta tradizioa zabaltzeko, nazioarenganako zaletasuna eta berarekiko atxikimendua ezartzen saiatuz, horretarako sinboloak eraikiz eta, askotan, nazioaren tradizioa zein historia, edota nazioa bera ere, asmatuz.

3. Escarpitek (1981:123) emandako datuen arabera, frantziar Estatuan 1881ean onartu zen Hezkuntza-Sistema orokor eta derrigorrezkoa; espainiar Estatuan, berriz, 1904an.
4. Horrela, 1918an esaterako, Oñatin egindako Eusko Ikaskuntzaren lehen-dabiziko kongresuan, euskararen irakaskuntzak derrigorrezkoa izan behar zuela erabaki zen, eta horrekin batera, Diputazioei baliabide materialak euskaraz sortzea eskatu zitzaien historiari, arteari eta beste jakintzagai batzuei buruz (Eusko Ikaskuntza, 1919:123).
5. Bibliografian lanaren gaztelaniazko bertsioa aipatzen den kasuetan, orrialdea hari dagokio.
6. Hego Euskal Herriko curriculumaren abiapuntua Moyanoren legea (1857) dugu, irakaskuntza-sistema espainiarra ezarri zuena (Bilbao, 2003:59); Iparraldekoa, berriz, Jules Ferryren legeak (1881) ezarri zuen (id.: 75).
7. Aztertutako ikastetxeen lagina ezagutzeko, ikusi Alonso, 2009.

### Bibliografia

- Aguiar e Silva, V.M., 1977, *Competencia lingüística y competencia literaria (Sobre la posibilidad de una poética generativa)*, Gredos, Madril.
- Alonso, I., 2006, «Euskal irakurlea: 2004ko Durangoko Azokako neurketa», *Jakin* 152. 73-93.
- Alonso, I., 2009, *Euskal literaturaren irakaskuntza Hego Euskal Herriko Baxillergoan. Eduki kontzeptualetatik gaitasun komunikatiboetarako bidean*, Doktorego Tesia. Helbide honetan ikusgai: [www.micinn.es/teseo/imprimirFicheroTesis.do?fichero=55811](http://www.micinn.es/teseo/imprimirFicheroTesis.do?fichero=55811).
- Arpal, J., Asua, B. & Dávila, P. (arg.), 1982, *Educación y Sociedad en el País Vasco*, Txertoa, Donostia.
- Azurmendi, J., 2007, *Volksgeist Herri Gogoa. Ilustraziotik nazismora*, Elkar, Donostia.
- Ballesteros, C. et al., 2001, «El pensamiento del profesor. Enseñanza de la lengua y Reforma», in A. Camps (koord.), 2001, 195-207.
- Bertochi, D., 1995, «La aproximación al texto literario en la enseñanza obligatoria», *Textos de Didáctica de la Lengua y de la Literatura* 4. 23-37.
- Bilbao, B., 2003, *Curriculum eta kultura Euskal Herrian*, Utriusque Vasconiae, Sevilla.
- Björk, L. & Blomstrand, I., 2000, *La escritura en la enseñanza secundaria. Los procesos del pensar y el escribir*, Biblioteca de Textos, Bartzelona.
- Camps, A. (koord.), 2001, *El aula como espacio de investigación y reflexión*, Biblioteca de Textos, Bartzelona.
- Colomer, T. & Camps, A., 1996, *Enseñar a leer, enseñar a comprender*, Celeste/MEC, Madril.
- Colomer, T., 1991, «De la enseñanza de la literatura a la educación literaria», *Comunicación, Lenguaje y Educación* 9. 21-31.
- Colomer, T., 1995, «La adquisición de la competencia literaria», *Textos de Didáctica de la Lengua y de la Literatura* 4. 8-22.



- Colomer, T., 1996a, «La evolución de la enseñanza literaria», *Aspectos Didácticos de Lengua y Literatura* 8. 127-171.
- Colomer, T., 1996b, «La didáctica de la literatura: temas y líneas de investigación e innovación», in C. Lomas (koord.), 1996, *La educación lingüística y literaria en la enseñanza secundaria*, Horsori, Bartzelona. 123-142.
- Colomer, T., 1998, *La formación del lector literario. Narrativa infantil y juvenil actual*, Fundación Germán Sánchez Ruipérez, Madril.
- Colomer, T., 2004, «La literatura en los nuevos manuales de la educación secundaria obligatoria», *Textos de Didáctica de la Lengua y de la Literatura* 36. 43-67.
- Delmiro, B., 1994, «Los talleres literarios (historia y propuestas)», in C. Lomas (arg.), 1994, *La enseñanza de la lengua y el aprendizaje de la comunicación*, Trea, Gijón. 109-147.
- Delmiro, B., 1995, «El aprendizaje de la escritura literaria», *Textos de Didáctica de la Lengua y de la Literatura* 4. 57-66.
- Delmiro, B., 2002, *La escritura creativa en las aulas. En torno a los talleres literarios*, Biblioteca de Textos 173, Graó, Bartzelona.
- Dewey, J., 1916, *Democracy and Education*, The MacMillan Company, New York [gaztelaniazko bertsioa: *Democracia y educación*, Morata, Madril, 1995].
- Dewey, J., 1938, *Experience and Education*, The MacMillan Company, New York [gaztelaniazko bertsioa: *Experiencia y educación*, Biblioteca Nueva, Madril, 2004].
- Díaz-Plaja, A. & Mendoza, A., 1988, «El comentario de texto en la escuela», in J. García & A. Medina (arg.), 1988, *Didáctica de la lengua y la literatura*, Anaya, Madril. 562-592.
- Diesbach, N., 2002, *Los retos de la educación en el amanecer del nuevo milenio*, La Llave, Gasteiz.
- Doubrovsky, S. & Todorov, T. (zuz.), 1971, *L'enseignement de la littérature*, Plon, Paris.
- Erriondo, L., Garagorri, X. & Isasi, X., 1998, *Hezkuntzaren normalkuntza*, UEU, Donostia.
- Escarpit, D., 1981, *La littérature d'enfance et de jeunesse*, PUF, Paris [gaztelaniazko bertsioa: *La literatura infantil y juvenil en Europa*, FCE, Mexiko, 1986].
- Eusko Ikaskuntza, 1919, «Conclusiones de la Secc. VI (Enseñanza) del I Congreso de Estudios Vascos celebrado en Oñate, 1918», in J. Arpal, B. Asua & P. Dávila (arg.), 1982.
- Eusko Jaurlaritz, 1992, *Oinarrizko Curriculum Diseinua*, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritz, 1997, «180/1997 dekretua, uztailaren 22koa, Batxilergoko Curriculum onartzen duena», *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* 164.
- Even-Zohar, I., 1993, «A Función da literatura na creación das nações de Europa», *Grial* XXXI. 441-458. [Gaztelaniazko bertsioa: «La función de la literatura en la creación de las naciones de Europa», in D. Villanueva

- (arg.), 1994, *Avances en Teoría de la Literatura*, Universidad de Santiago de Compostela, Santiago de Compostela. 357-377].
- Fernández, A. et al., 1998, «La educación lingüística y literaria en el bachillerato», *Textos de Didáctica de la Lengua y de la Literatura* 15. 15-27.
- Fernández, I., 1993, «Gerraondoaren historia luzea: euskal eskolagintza», *Uztaro* 9. 59-88.
- Gadamer, H.G., 1960, *Wahrheit und Methode*, J.C.B. Mohr, Tübingen [gaztelaniazko bertsioa: *Verdad y método*, Ediciones Sígueme, Salamanca, 1977].
- Garrido, M.A., 2004, *Nueva Introducción a la Teoría de la Literatura*, Síntesis, Madril.
- Lomas, C. & Miret, I., 1995, «El laberinto de la literatura», *Textos de Didáctica de la Lengua y de la Literatura* 4. 4-7.
- Lomas, C. & Osoro, A., 1994, *El enfoque comunicativo de la enseñanza de la lengua*, Paidós, Bartzelona.
- Lomas, C. & Osoro, A., 1996a, «Los objetivos de la educación lingüística y el currículo de *Lengua Castellana y Literatura* en la enseñanza secundaria», in C. Lomas (koord.), 1996, *La educación lingüística y literaria en la enseñanza secundaria*, Horsori, Bartzelona. 25-66.
- Lomas, C. & Osoro, A., 1996b, «Los materiales didácticos: análisis e instrucciones de uso», in C. Lomas (koord.), 1996, *La educación lingüística y literaria en la enseñanza secundaria*, Horsori, Bartzelona. 183-222.
- Lomas, C. & Vera, M., 2004, «Los libros de texto», in C. Lomas (koord.), 2004, *Textos de Didáctica de la Lengua y de la Literatura* 36. 7-14.
- Lomas, C., 1996, «La educación lingüística y literaria», in C. Lomas (koord.), 1996, *La educación lingüística y literaria en la enseñanza secundaria*, Horsori, Bartzelona. 13-24.
- Luzuriaga, L., 1982, *Historia de la educación y de la pedagogía*, Losada, Buenos Aires.
- Medina, A., 1988, «Didáctica de la literatura», in J. García & A. Medina (koord.), 1988, *Didáctica de la lengua y la literatura*, Anaya, Madril. 511-534.
- Meix, F., 1994, «Teorías literarias y enseñanza de la Literatura», *Textos de Didáctica de la Lengua y de la Literatura* 1. 53-64.
- Miret, I. & Reyzábal, M.V., 1990, «La propuesta», *Cuadernos de pedagogía* 181. 8-12.
- Moore, T.W., 1985, *Introducción a la teoría de la educación*, Alianza Editorial, Madril.
- Nafarroako Gobernu. Hezkuntza eta Kultura Departamendua, 2002, «62/2002 Foru Dekretua, martxoaren 25ekoa, Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoaren egitura eta curriculumaz ezartzen dituen (Irakasgai komunak eranskina)», *Nafarroako Aldizkari Ofiziala* 49.
- Núñez, G., 1994, *Educación y literatura. Nacimiento y crisis del moderno sistema escolar*, Zéjel editores (Textos y ensayos 10), Almería.
- Perez, K., 2004, *Curriculumaz eta testuliburuaz Euskal Herrian*, Utriusque Vasconiae, Donostia.

- Prats, J., 2005, «El sistema educativo español», in J. Prats & F. Raventós (zuz.), 2005, *Los sistemas educativos europeos ¿Crisis o transformación?*, Colección Estudios Sociales 18, «La Caixa» Fundazioa, Bartzelona. 177-228.
- Raventós, F., 2005, «La crisis de los sistemas educativos europeos», in J. Prats & F. Raventós (zuz.), 2005, *Los sistemas educativos europeos ¿Crisis o transformación?*, Colección Estudios Sociales 18, «La Caixa» Fundazioa, Bartzelona. 12-28.
- Reyzábal, M.V. & Tenorio, P., 1992, *El aprendizaje significativo de la literatura*, La muralla, Madril.
- Rosenblatt, L.M., 1938, *Literature as Exploration*, The Modern Language Association, New York [gaztelaniazko bertsioa: *La literatura como exploración*, FCE, Mexiko, 2002].
- Sánchez, J. & Rincón, F., 1987, *Enseñar literatura*, Cuadernos de pedagogía, Laia, Bartzelona.
- Saussure, F., 1916, *Cours de linguistique générale*, Payot, Paris [gaztelaniazko bertsioa: *Curso de lingüística general*, Planeta de Agostini, Bartzelona, 1984].
- Swain, M., 1985, «Communicative competence: some roles of comprehensible input and comprehensible output in its development», in J. Cummins & M. Swain, 1986, *Bilingualism in Education*, Longman, New York. 116-137.
- Todorov, T., 1971, «Conclusion», in S. Doubrovsky & T. Todorov (zuz.), 1971, 627-635.
- Torrealdai, J.M., 1997, *Euskal kultura gaur*, Jakin, Lizarra.
- Torres, J., 1989, «Libros de texto y control del currículum», *Cuadernos de pedagogía* 168. 50-55.
- Zabaleta, I., 2000, *Nazioa eta Hezkuntza-Sistema espainiarraren sorrera*, UEU, Bilbo.



**ARTEA 157**

Tamalez ez zuen jo • Dantzaren memoria  
Ulertzen ez dutenen begirada  
Non da Laith Al-Amiri?

**HAIZEA BARCENILLA**

**TEKNOZIENTZIA 163**

Hasierako laburra • Elektrikaren maisuba  
Genetikaren maisua • Hipotesitik haratago  
Amaierako laburra

**INAKI IRAZABALBEITIA**

**LITERATURA 169**

Metodoa • Liburutegian • Besteen bizitza

**GOIZALDE LANDABASO**

**SOZIOLINGUISTIKA 176**

Lehiakortasuna eta ekologia  
Krisia eta euskara  
Politikarien eta gizartearen musika txikia  
Anlisi soziolinguistiko desitxuratua  
Euskararen alde enpresa mailan

**LIONEL JOLY**

**GLOKALIA 183**

Lularen lilura  
Euroaren tristura  
Apocalipsy Now (on The Road)?

**JOSU LARRINAGA**

## Tamalez ez zuen jo

2008ko abenduaren 14an George Bushek Irakeko lehen ministroa bisitatu zuen Bagdaden. Prentsaren aurreko aurkezpenean zegoela, kazetari batek bere zapatak hartu eta burura bota zizkion AEBetako presidenteari. Dirudienez, Irakeko kulturaren zapata bat botatzea omen da pertsona bati egin ahal zaion irainik lazgarriena. Interpretazio interkulturalerara jo gabe, asko ginateke Bushen aurrean eskura genukeen elementurik mingarriena burura zuzenduko geniokeenak. Ulegarria da Muntazer Al-Zaidik (hura baita kazetariaren izena) aukerari heldu izana, ordainean hilabete bazuk giltzapean pasatu behar izan bazituen ere.

Aipagarria da orobat irudiak munduan zehar egin zuen bira, youtube bezalako Internet kanalei esker hein onean. Jaurtiketaren momentua edo Bushen ustekabe aurpegia erabiltzen zuten musika bideoak eta muntaiak agertu ziren nonahi, eta zenbaitek diote harrezkero zapata, objektu lez, tresna kontestatario bihurtu zaigula.

Egungo ideologia eta kritikaren ahulezia erakusten digu honek, Al-Zaidiren mugimenduaren atzean, beste edozeren aurretik, desesperazioa baitzen nagusi. Txikitutako lurralde bat salbatzeko ezintasunaren adierazpena. Eta horren ostean desesperazioak dirau. Mundu osoak irudi horiek ikusi dituen arren, zapatekin txapak eta kamisetak egin baditugu ere, Bush Texasko bere arrantxoan zaldiak pasioan ateratzen ibiliko da oraintxe, lasai onean, inolako epaiketa internazionalen beldurrik gabe. Kazetari ero baten zapatak badira bere mehatxurik beldurgarriena, gauzak kontrolpean daude. Eta denok dakigu kontrolpean daudela.

## Dantzaren memoria

Orain gutxi, Rennesen dagoen arte egitura interesgarri bat ezagutzeko parada izan nuen. Bere izena *Musée de la Dan- ce* da, hots, dantzaren museoa, eta horrelako tituluak instituzio pakidermiko bat iradoki arren, guztiz kontrakoa da kasua. Lehen Frantziako Zentro Koreografiko Nazional zeritzonak, Boris Charmatz koreografoaren eskuetara pasatu denean hartu du probokazio bat dirudien izendapen berria. Izan ere, artean museoa instituzio zaharkitua, mugiezina, kanonikoa izan ohi da; zentroa, aldiz, berritzailea, apurtzai- lea, momentuan momentukoari dedikatutakoa, beti aurrera begira izateaz harrotzen da. Zergatik orduan museora itzu- li, horrenbeste urtez horretatik ihes egiten saiatu bagara?

Dantzaren izaerarekin bat dator izenaren probokazioa, dantza museifikatzea txit zaila delako, alegia. Erakuts dai- tezke arropak, noski, edo balet batekin doan musika jo dai- teke; baina dantza betiere da espektakulu bat, alderdi fisiko eta presentzial nagusia duena, dantzarien interpretazioari oso lotua dagoena. Arte museo batean artelanaren aurrean gaude; dantzaren museo batean, aldiz, dokumentazioa izan- go da nahi eta nahi ez aurkeztuko zaiguna: dantzaren ingu- ruan dagoen guztia, eta ez dantza bera.

Charmatzentzat dantza objektualizatu ezinaren errealita- teak ez ditu ateak ixten, irekitzen baizik. Hau da, ezinezko eginkizun baten aurrean fantasia eta irudimena erabiltzera bultzatzen gaitu, museo bat zer den hausnartzera, dantzaren izaeraren inguruko gogoetak garatzera, posibilitate berriak bilatzera. Charmatzen proiektuak utopikoa badirudi ere, bere fedea eta egin dituen planteamenduek ikuslea atzetik eramaten dute.

Hortik haratago, badago dantzaren natura honetan oso erakargarria den beste puntu bat: ez du historia idatzirik. Musikak ez bezala, dantzak ez du idazkera sistema oroko- rrik garatu. Zenbait saiakera egon dira, baina hain zaila da koreografia baten mugimendu oro erregistratzea, ezen espe-

zialista gutxi batzuek bakarrik uler ditzaketen helburu horretarako sortutako «alfabetoak». Esaterako, *Beltxargen lakua* bezalako balet tradizional bat ikusterakoan, berregite bati egiten diogu so, pieza klasiko horien dokumentazio osorik ez baitzaigu geratzen. Beraz, erabilitako pausoak, banan-banan hartuta, XIX. mendean erabiltzen zirenak izan arren, guztizko koreografia, dantzari kopurua edota pausoen konbinazioa asmatutakoak dira.

Dantzak ez du agian historia idatzirik izanen, baina badu memoria bat. Pertsonengan, aurkezpenetan aurkitzen den memoria. Zeinu eta mugimendu edo geldialdien bidez jakinarazten dena. Dantzaren memoria dantzariarengan beregan dago. Dantzariak ikasten ditu belaunaldiz belaunaldi igorritako mugimenduak, bere egiten ditu, errepikatu edo berritu, eta beste bati erakusten dizkio. Eraldaketa prozesu iraunkorra da dantzarena, eta historia eta orainaldia pertsona bakoitzarengan eta pieza bakoitzean existitzen direla esan genezake. Garapen horretan galdu eta irabazi egiten da: ez da ikuspegi bakar bat inposatzen, beste diziplinetan maiz gertatzen den moduan; helarazten ez dena, ordea, betiko galtzen da.

Historialaria izanda, askotan sumatu dut nire sorbaldetan gure aurreko gertakarien zama. Planteatutako edozerk erreferentziaren aztarna du, hasten dugun edozein proiektuk, atzera begira eta bere lekua zehazteko beharra. Dantzan, pieza bakoitzarekin jaiotzen da egilea berriz; edo historia hori guztia bere barnean daramanez, ez du behintzat bere kanpoan bilatu behar. Berak igortzen ez duena, aldiz, galdu egingo dela jakiteak orobat zama astuna izan behar du.

Boris Charmatzen proiektuak ez du bakarrik museoaren egiturari buruz hitz egiten, ezta soilik dantzaren galkortasunaren inguruko galderak planteatzen ere. Museo batek historia sortzen du, zenbait gauzei iraunaren pribilegioa ematen die beste batzuen kaltean. Dantzak ez du historiarik, bai museo bat ordea. Denontzat irekia dago museo horretan gorde behar ditugun historiak zehaztea.

## Ulertzen ez dutenen begirada

Orain urte bat inguru, Francesc Torresek *Iluna da lo datza-gun gela* erakusketa aurkeztu zuen Artiumen. Bi lan ziren erakusketaren osagarri, biak gudaren ingurukoak. Lehen, *Memorial*, Golkoko gerra garaian egindako instalazio bat zen: eskopeten gainean zibilen kaperak jartzen zituen Torresek edozein etxe arruntarena izan zitekeen salako altzari baten aurrean. Horretan zegoen telebistan elurra ikusten zen soilik, hau da, irudirik gabeko emankizuna, instalazioaren beste aldean, pantaila handian, etengabeko su baten irudia agertzen zen bitartean. Horrela, armazko gatazka baten aurrean zibillon erantzukizuna gogorarazi nahi zuen, gerra sufritzen duen herriarekiko distantzia fisikoak eta telebistako irudien distantzia mentalak bultzatzen duten konpromiso falta salatuz.

Beste lana argazki serie bat zen. Erakusketaren izena zerman, eta Burgosko herri bateko hobi komunetik gorpuak ateratzearen prozesua dokumentatzen zuen. Gerra zibileko hildakoak ziren, eta ondo dakigunez, oraindik lur azpian eta identifikatu gabe daude horien antzera gorpu anitz. Historia beharko lukeena gaurkotasuna da oraindik, bere kontraesanei aurre egiteko ezgai den estatu batean bizi garen heinean. Hortik lanaren izena. Ume ginenean moduan, gure gela ilunean argi bat pizten saiatzen garen bakoitzean itzali egiten digute, horrela lo jarraitzea behartuz. Lur azpian daude mamuak, lur gainean munstroak.

Argazkiak zuri beltzekoak ziren, aspaldikoak izatearen joan blai. Izan ere, aspaldi gertatu behar zen zerbait irudikatzen zuten, zegokion momentua berreskuratu nahi lez. Arkeologoek poliki egiten zuten lan, herri osoa inguruan begira mantentzen zen bitartean. Horien artean, hainbat pertsona oso heldu, beharbada gertakariaren oroitzapen bat izan zezaketenak; edo haurtzaroan etxean desagertutako senide bati buruzko istorioak entzun zituztenak.

Argazki batean, aldiz, zortzi bat urteko bi ume agertzen ziren, galtza motzetan, irribarrez. Jakin-minez begiratzen



zizkieten zuloei eta gorpuei, edo horietatik geratzen ziren hondakinei. Udako beste gertakizun abenturero bat, alegia. Horien begiradak inpresionatu ninduen gehien, memoria-ren aztarnak galduz zihoazelako. Horien mugimenduek ez zuten historia baten oinordekotzarik erakusten.

Historia bahituta dagoenean, memoriaren eskubideak dira soilik. Baina memoriaren azken arrastoek alde egiten digutenean, zer da geratzen zaiguna? Nik neuk ez nuen Francoren garairik bizi, eta besteen kontakizunek osatzen dute nire memoria eraiki eta hauskor bakarra. Zerk iraungo du ni bezalakoek, zortzi urteko umeek, lur azpiko historia hura berridatzi behar dugunean?

## Non da Laith Al-Amiri?

Parisko Palais de Tokyo arte zentrora sartzen den bisitariak *Pergola* erakusketaren atala den Laith Al-Amiri artista-ren eskultura espektakularra aurkituko du sarreran bertan: zapata erraldoi bat, ia totem bat dirudiena. Jakina, Al-Zaidik Bushen burura botatako zapataren erreplika handitua da. *Ausardiaren sinboloa* du izenburu, eta Al-Amirik umezurztegi bateko umeekin batera eraiki zuen 2009ko urtarri-lean, bere herrialdearen egoeran mugimendu xume batek adierazten zuen adorea erakutsi nahian. Hori dela eta, piezak egun bakarra iraun zuen suntsitua izan aurretik, eta egun Parisko arte zentrorik *chicenean* berreraiki egin da.

Asko esan zitekeen lan horri buruz, esaterako, zenbateraino dirudien galdua eta lekuz kanpo bere kokaleku berrian; zenbateraino har dezakeen Parisen izaera anekdotiko eta dekoratzailea Irak bezalako lurralde txikitu eta minduan benetan probokatzailea izan zen objektu batek.

Baina utz dezagun behingoz objektua eta begira diezaio- gun bere testuinguruari. Izan ere, Laith Al-Amiri desagertu egin da. Eskultura berregiteko planoak eta argibideak bidali eta gero, urtarrilaren hasieratik Palais de Tokyoko komi- sarioek berarekin kontaktua galdu zuten guztiz. Hasieran

mobilak seinalea ematen zion baina ez zuen erantzuten; egun gutxira, mobilak seinalea emateari utzi zion. Irakeko Frantziako enbaxadarekin jarri ziren komisarioak ondoren kontaktuan, eta horien arabera, badirudi Al-Amiri atxilotu egin dutela. Kargu zehatzak ez daude oso argi, ez behintzat Frantziako enbaxadako langileentzat. Tikriteraino egin zuen bidea enbaxadako norbaitek, bertan kartzelaratua bide zegoelako; ez zioten Al-Amiri ikusten edo berarekin hitz egiten utzi, ordea.

Beraz, inork ez daki ziurtasun osoz non den Laith Al-Amiri. Hotzikarez susma daiteke Irakeko egoerarako bera ere ausartegia izan dela. Istorio hau letra txikitan agertu da egunkariren batean; zapataren argazkia, handi-handi aldizkari mordoan. Eskulturaren aurrean jartzen denak ez du horren guztiaren berri ematen duen inolako pankarta, kartel edo informazio orrialderik ikusiko; barregarria eta prekarioa dirudien karroza antzeko zapata bat eta komisarioaren kontzeptu artistikoaren azalpen erudituak besterik ez. Badugu jada politiko eta *engagé* izatea ahalbidetzen digun sinbolo ahula. Izango dugu denbora, hurrengo ehun urteetan, hobi komunak induskatzeko.¶

## Hasierako laburra

*Scientific American* aldizkariak zenbaki guztietan atzera begirako atal bat dauka eta bertan duela 50, 100 eta 150 urte aldizkariaren orrialdeetan publikatutako artikulua nabarmenenen berri dema. Aurtengo martxoko zenbakiak duela ehun urte polonioari buruz argitaratutako artikulua nabarmentzen du. Sinadurak erakarri zuen nire atenzioa: Mme P. Curie. Beste garai bat zen, baina Maria Sklodowskak bere ponte-izena ere autoukatu zuen, sobra ere. Izanek ez zuen izenik nonbait.

## Elektrikaren maisuba

Horrelaxe kantatu zuen Txirrita handiak Norteko Ferrokarrilaren elektrifikazioa deskribatzen duen bertso zoragarrian. Ez zuen idazten jakinen, baina ezin egokiago ulertu eta azaldu zuen lurrin-makinatik tren elektrikora egon zen jauzia. Dibulgatzaileon aitaponteko egin beharko genuke, zinez.

Ba elektrikaren maisua badator etorri bueltan. Oraingoan ez du ur irakinaren indarra ur hotzarenarekin ordeztuko, baizik eta barne-errekuntzaren burrunba elektrikaren isiltasunarekin. Otsailean Donostian juntatu ziren Europako Batasuneko gobernuen ordezkariak auto elektrikoaren aldarria egin zuten. Aldi berean, EAEko energiaren eta automozioaren clusterrek auto elektrikoa bultzatzeko hitzarmena sinatu berri dute eta sinadura-ekitaldian honelakoak bota dira: «*(Euskadi) va a liderar sin duda esta apuesta*».

Berri horiek leitzean, duela urte batzuk bioerregaiei buruz esan zigutena etorri zitzaidan burura: berotegi efektuari eta klima-aldaketari aurre egiteko erabateko soluzio mo-

duan saldu nahi izan zizkiguten. *Jakinen* irakurleok jakitun zarete hori ez dela horrela, gai horretaz jardun izan naizelako orrialde hauetan. Baldintza jakin eta zehatz batzuetan izan ezik, bioerregaiaren bizitzaren ziklo osoa aztertzen denean, landareak ereitetik hasita eta erregai-banaketaraino, agerikoa da karbono dioxido gehiago isurtzen dela landareek beraiek atmosferatik xurgatzen dutena baino.

Auto elektrikoari buruz galdera inportante asko daude erantzuteke. Lehenik eta behin, zer da Europako Batzordea, Espainiako gobernuak zein Eusko Jaurlaritza planteatzen ari direna? Oraingo barne-errekuntzako motorreko autoak auto elektrikoak ordezkatzeko soil-soilik? Hots, oraingo higikortasun-ereduari jarraitzea eta ibilgailu pribatua lehenesten jarraitzea? Leitutakoari erreparatuta proposamena bide horretatik doala ematen du eta eredu-aldaketarik ez dela planteatzen. Egia da berotegi gasen emisioaren ikuspegitik gutxiago isuriko lirakeela atmosferara, energetikoki errentagarriagoa delako litro bat gasolina zentral termiko batean erretzea zuzenean autoaren motorrean erretzea baino, alegia, litro bat gasolina erreta kilometro gehiago egiten ditu auto elektrikoak gasolinazko batek baino. Hala ere, jasangarritasunaren ikuspegitik egoera bertsuan geundeke gainerrako parametroetan: errepide-eraikuntza, trafikoa, autoak egiteko lehen gaiak, etab. Beraz, ordezkapen huts moduan planteatzen bada, jasangarritasunari iruzur egingo zaio.

Bestalde, gerta liteke EBk ezarri dituen emisio-politiken ondorioz, auto elektrikoak CO<sub>2</sub>ren emisioak emendatzea. Politika horiek ezartzen dute auto-fabrikatzaileek merkaturatzen dituzten autoen emisioen batez bestekoak 2015erako 130 g CO<sub>2</sub>/km izan behar duela eta 2020rako 95 g CO<sub>2</sub>/km-raino beheratu behar dela. Alabaina, auto elektrikoek eta 50 g CO<sub>2</sub>/km-ko emisioak baino txikiagoak dituztenek super-kredituak eskuratuko dituzte 2016 arte. Super-kreditu horiek medio, horietako auto bakoitza 3,5 auto bailiren kontara daiteke 2012an eta 2013an, 2,5 bezala 2014an, 1,5 bezala 2015ean eta 1 bezala 2016tik aurrera. Horrek ekar dezake fabrikatzaile-

leek emisio-maila handiko autoak saltzen jarraitzea jarritako murriztapen-helburuak bete gabe eta arautegia betez aldi berean.

Halaber, edozein delarik ere gibelean dagoen higikortasun-eredua, funtsezkoa da jakitea ibilgailu elektrikoaren bateriak kargatzeko usatuko den elektrizitatearen jatorria zein den. Datu bat klaru dago: energia elektrikoaren eskaera handitu egingo da. Eskari gehigarri hori osatzeko nolako energia-iturriak baliatuko diren zehaztea funtsezko datua da auto elektrikoaren ingurugiro-egokitasunaz eztabaidatzeko.

Eskaria zenbat haziko den ez dago garbi. Estatuaren kasuan zifra-dantza bat egon dago. *Real Academia de Ingenieria* delakoak iazko udan argitaratutako txosten batean, oraingo sarea 3.000.000 auto hornitzeko gai dela adierazi zen. Udazkenean, Luis Atienzak, *Red Electrica Española*ren lehendakariak, 6.000.000ko zifra bota zuen, erantsita sarea inteligenteagoa bilakatu behar dela horretarako eta kontsumo gutxiko orduetan kargatuko zirela suposatuta. Donostiako bileraren berotasunean, Carbacho industria-ministroak 7.000.000raino igo zuen eta biharamunean, hordagoa jota, Iberdrolako presidente Sanchez Galanek 10.000.000tan jarri zuen. Greenpeacek eta beste talde ekologista batzuek Herbehereetako CE Delft aholkularitzari enkargatutako *Green Power for Electric Cars* txostenean, EBko energia elektrikoaren eskariaren hazkundera %0,3-2,9 eta %3-18 bitartean kokatzen da 2020 eta 2030erako hurrenez hurren auto elektrikoaren ezarreraren eszenategi desberdinen arabera ([www.greenpeace.org/raw/content/eu-unit/press-centre/reports/green-power-for-electric-cars-08-02-10.pdf](http://www.greenpeace.org/raw/content/eu-unit/press-centre/reports/green-power-for-electric-cars-08-02-10.pdf)).

Estatuaren kasuan, Reoltec sareak eginiko aurreikuspenak adierazten du 2020rako eskaria %2,4 haziko dela batez beste (3.000.000 auto egongo lirateke), baina gaueko eskaera %12,2 emendatuko litzatekeela ([www.reoltec.net/varios/Asambleas/IV/11\\_REVE.pdf](http://www.reoltec.net/varios/Asambleas/IV/11_REVE.pdf)). Nola aseko litzateke erantsitako eskari hori? Aipatu Greenpeacen txostenean adierazten da gaueko kontsumoa handitzen bada, ikatzezko zentral termikoak eta

zentral nuklearrak egongo lirakeela posiziorik sendoenean erantsitako eskaria asebetetzeko. Zergatik? Mota horretako zentralak direlako piztu eta itzaltzeko eta produkzioa eskariari moldatzeko malgutasunik txikiena dutenak eta ondorioz eskaintza elektrikoaren parametro jakinen barnean kokatzeko oinarri sendoa ematen dutelako. Sistema elektriko batean malgutasunik handieneko elektrizitate-iturriak erabiltzen dira energia elektrikoaren eskari aldakortasunera moldatzeko. Laburtuz, arrisku handia dago auto elektrikoek behar duten energia gehigarria iturri ez-berriztagarri zikinen bidez produzitzea.

Dena dela, faktore askok eragingo dute energia elektrikoaren eskarian. Horietako bat banaketa-sarearen izaera bera da. Egungo sarearen eraginkortasuna asko hobeto daiteke kontrolerako sistema inteligentegoak jarrita. Autoen hornikuntza kudeatzeko moduak ere badu zeresana. Ez da gauza bera egun gasolinazko autoekin egiten den moduan, bateriaren karga bukatzen denean kargatzen jartzea, eta sare elektrikoak horri erantzun behar izatea; edo bateria-trukezko eskema bat garatzea, hots, deskargatzean beste batez aldatzea, bateria hori energia-eskaintza soberan dagoenean kargatu bada.

Hirugarrenik, bateriak beraiek izan daitezke arazoa. Egungo bateriarik eraginkorrenak litio ioizkoak dira. Alabaina, litio-erreserbak ez dira behar bezain ugariak. *Meridian International Research* erakundeak eginiko azterketaren arabera, egun munduan urtean produzitzen diren 60 milioi ibilgailuak elektrifikatuko balira, ezagututako litio-erreserbak 50 bat urtetan agortuko lirakeke ([www.meridian-int-res.com/Projects/Lithium.htm](http://www.meridian-int-res.com/Projects/Lithium.htm)). Gainera, erreserba horien erdia baino gehiago Bolivian eta Txilen dago, beraz erregai fosilen erreserbak baino estatu gutxiagotan metatuta daude. Beste aukera teknologiko batzuk egon daitezke, hala ere.

Aipatu ditugun horiek guztiek klaru lagatzen dute ibilgailu elektrikoak berotegi efektuzko gasen emisioak gutxiagotzen lagun badezake ere, ez dela erabateko soluzioa. Galdera asko erantzuteke daude higikortasun-ereduari, elektrizi-

tate gehigarriaren iturriari, banaketa-sistemari eta baterien izaerari buruz. Auto elektrikoa bultzatu behar da, baina auto partikularra lehenesten duen higikortasun-eredua gaindituz eta ekoitzi beharko den energia elektriko gehigarriak jatorri soilik berriztagarria izango duela segurtatuz. Garraio-sistemaren karbono dioxidozko emisioen arazoa bideratzeko soluzioaren zati bat da, ez besterik.

Elektrikaren maisuak laguntasun handia eman dakiguke emisioak murrizteko, baina berarekin elkar hartuta beste maisu batzuk ere beharko ditugu.

## Genetikaren maisua

Europako Batzordeak genetikoki moldatutako patata-mota bat ereitea onartu berri du. *Amflora* deritzo eta BAFSek saltzen du. Patata-mota horrek eztabaida luzea eta istilutsua izan du aprobatua izateko, antibiotikoei erresistentea delako. Kezka da erresistentzia hori ez ote dien bizidun batzuei erantsiko. Almidoia eta produktu industrialak egiteko usatuko da eta ez giza elikadurarako. Alabaina, Europako Batzordeak ateak irekita laga ditu animalia-pentsuak egiteko erabilia izan dadin.

Genetikoki moldatutako organismoen aurrean prebenzio-printzipioaren aldekoa naiz. Teknologia berria da, organismoetan arrotzak diren geneak sartzen ari gara, batzuk guztiz arrotzak zaizkionak, esaterako, animalia-geneak landareetan, eta horrek ondoriorik izango ote duen jakiteko denbora laburregia pasa dela uste dut.

Alabaina, bada beste puntu bat are gehiago kezkatzen nauena, alegia, genetikoki moldatutako elikagaiak zabaltzeak ekar dezakeela nekazaritzaren alorra gutxi batzuen esku uztea, nekazariak konpainia monopolista handi gutxi batzuen menpeko bihurtuta: terminator haziak, intsektizida jakin baten kontra erresistentea den landarea halabeharrez aldatu behar izatea, lokalki oso ondo moldatutako espezie-dibertsitatearen galera... Nekazaritza interes konkretu eta parti-

kularrak dituzten enpresa transnazional, monopolisten menpe gelditzen bada, esperientziak diosku beren interesak sozietatearen interesen, ongizatearen eta osasunaren gainetik daudela. Interes horiek adibidez GMOen etiketajearekin dauden gorabeheretan ikusten dira, hots, nola saiaturen diren letra txikia usatzen genetikaren lana ezkutatzeko.

## Hipotesitik haratago

Kalean galdetuz gero zerk akabatu zituen dinosauroak, «asteroide baten inpaktua» izango litzateke erantzunik zabalduena. Ba zientzialarientzat hipotesi bat baino ez da izan, errealitatearekin bat egiteko aukerarik gehiena zuena hala ere. Beste hipotesi batzuek ere pisua izan dute zientzialarien artean, esaterako bulkanismo itzel baten ondorioz jazotzea suntsipena.

Ba, itxura batean, asteroide hiltzailearenak hipotesi izateari laga dio eta komunitate zientifikoak errealitate bakartzat hartu du. Joan martxoaren 4an *Science* aldizkariaren edizio elektronikoan argitaratutako lan batek eman dio zilegitasun hori. Zientzialari talde handi batek inpaktuaren teoriaren alde eta kontra dauden oinatz kimiko, geokimiko eta geokronologikoak aztertu eta gero, epai zehatz batera iritsi da: «Chicxulub kraterra da kulpante bakarra». Epaia emana dago; eztabaida amaituta?

## Amaierako laburra

Zer gertatu da A gripearekin? Galdera horixe egin nion neure buruari Loiuko aireportuan A gripeari buruzko iragarri bat orma batean zintzilik ikusi nuenean. «*No news, good news*» esaten da ingelesez. Kasu honetan berririk ez hori ona ote den zalantzak ditut.¶



## Metodoa

Hau dena bazkari batean hasi zen. Zelan elkarrizketatu idazle bat bere liburua irakurri barik? Jakina, elkarrizketa laburra bada, demagun bost bat minutukoa, erraza da. Baina sakon eta luze elkarrizketatu behar bada? Lankide batek posible zela sutsuki defendatzen zuen; are gehiago, «metodoa» ere bazuela esan zidan. «Eta zeure metodo horrekin idazlea ez da konturatuko ez duzula liburua irakurri?». Ezetz erantzun zidan. Apustua ere egin genuen. Has gaitzen, baina, oinarritik. Metodotik.

Edozein idazlek balio du eta edozein liburuk. Lehenengo gauza eta garrantzitsuena: nortaz ari garen jakin behar du. Idazlearen nondik norakoak izan behar dituzu, alegia; bere biografia, aurretiaz egindako lanak, adierazpenak... komenigarria litzateke liburu horretaz egin dituzten hiruzpatalau kritika irakurtzea. Gehiago badira, hobe. Liburu horren gaineko kritikarik edo iruzkinik baldin badago, seguruen elkarrizketaren bat ere izango da. Horiek ere irakurri behar dira. Eta beste ezer idatzirik badu (liburu, artikulua...), horietaz egin eta esan direnak jasotzea ezinbestekoa da estiloaren zertzeladak eman diezazkizuketelako. Hau dena egin ostean, liburuaren hasierako hamar orrialdeak irakurri behar dira. Azken hamarrak, eta erditik beste hamar irakurri behar dituzu. Komenigarria litzateke pertsonaia nagusia ez den beste batekin gelditzea. Hiru edo laugarren mailako pertsonaia batekin. Eta metodoa borobildu nahi baduzu, erditik aurrerako edozein orrialdeko esaldi bat. Izan ere, elkarrizketan esaldi horrek zugaragindakoa nabarmen utzi behar duzu, eta lankidearen eta metodoaren «aitaren» aburuz, «izugarri pozten du egilea».

Generotan ere banatua du metodoa lankideak. Zailena: ipuin-liburua, eta errazena, olerki liburua. Tartekoa aukeratu genuen: eleberria.

Bai, badakit zer duzun buruan oraintxe berton, irakurle estimatua: lan gehiago eman diezazuke metodoa aurrera eramateak liburua bera irakurtzeak baino. Bai, hori egia da. Esperimentazioaren izenean, baina, gauza dezagun metodoa.

Tira, izan, badugu metodoa. Liburua hautatzeko sasoia zen.

Pentsatu genuen bietako batek elkarrizketatuaren liburua irakurria behar zuela, konparatzeko modua izan genezan. Adostu genituen, ba, egilea eta liburua. Nik irakurri barik, berak, ordea, irakurria zuena. Elkarrizketatuaren azken literatur lana. Eleberria, esan bezala. Ez dugu emango idazlearen izen-abizenik, garrantzitsuena hemen esperimentazioa delako... eta jokoan zegoen afaria ere bai.

Amaraunean aurkitu nituen iruzkin eta kritikak. Denak irakurri nituen; hiru bat. Baita egileari buruz idatzita zegoen asko. Elkarrizketak, erreferentzia galduak, berak idatzitako zerbait. Honekin batera aurretiaz idatziak zituenen gainekoak ere leitu nituen. Ostean, liburuari ekin nion. Metodo-sortzailearen iritziz, lehenengo hamar orriek gako zenbait ematen dizute: idazlea zuzenean harira sartzeko duen gaitasuna, batik bat. Azken hamarrek amaiera borobiltzen dakien esan diezazukete. Eta erdikoek tonua eta muinaren estiloa.

Sarean idazlearen informazioan murgilduta nengoela Pierre Bayard-en liburu batekin egin nuen topo: *Cómo hablar de los libros que no se han leído* (*Comment parler des livres que l'on n'a pas lus?*, 1997, Minuit). Ez, ez nuen liburua irakurri, hemendik eta handik esaten zituztenak begiratu besterik ez nuen egin. Berak antzekoa zuen metodoa. Liburuez eta literaturaz hitz egiteko ez-irakurtzea defendatzen zuen. Solasaldi atseginean zaudela solaskideak irakurri ez duzun liburu baten inguruan hasten direnean: A) Liburuari begirada bizkorra eman (batzuetan honetarako betarik ez dago) eta agerikoak komentatzea bide bat izan litekeela dio. Arrunkeriak. B) Ausartentzako aholkua: ezertxo ere irakurri gabe

liburuaren gaineko anekdotak asmatzea (askoz sortzaileagoa, bistan denez).

Paris VIII Unibertsitateko Frantses Literaturako irakasle horrek irakurketaren hausnarketa sakona egiten du: zer da, bada, liburu bat irakurri ostean gelditzen zaizuna? Aipuren bat, datu bat eta ideia batzuk; hori bera liburuia gainetik begiratuta lor dezakezu. Irakurri bako liburuak aipagai izan ditza-kegula adierazteko, besteak beste, Balzac eta Oscar Wilderen anekdotak libururutzen ditu. Azken horrek omen zioen liburu baten iruzkina egiteko orduan garrantzitsuena zera zela: testua aitzakia modura erabili eta norbere sormenari bide egitea eragin dizkizun iradokizunak agertzeko. Bai, Bayard irakaslearen B atalaren aldeko da Wilde ausarta. Zorrotz esan zuen irlandarrak: «I never read a book I must review; it prejudices you so» (komentatu behar dudan libururik sekula ez dut irakurtzen, hainbestekoa da egiten duen kaltea).

Horrek izugarritzko oxigenazioa eman zidan. Izan ere, iruzurgile sentitzen nintzen metodoaren aplikazioan. Esperimentazioa garrantzitsua da, eta sormen bide berriak urratu behar dira, bai. Baina bide berrien bilaketak kontzientzia kargua uzten zidan. Oscar Wilderekin topo egin nuen arte. Berak egiten bazuen...

Lehenengo hamar orrialdeetan ikusi nuen egilea alferrik galtzen zela sarrera luzeetan. Zuzenean istorioan murgiltzen zintuela. Azken hamarrekin, nolabait laburbiltzearren, hiltzailea nor zen jakin nuen. Erdikoetan nahasirik ibili nintzen; erdia aurkitu guran, egokienak zein ziren aztertzen. Azkenean, bost eta bost egin nuen. Hirugarren mailako pertsonaia aukeratu nuen. Eta baita esaldia ere: «trenbidera bota zuen zigarroa eta eskua estutu zion. Hizkera berezia zuen». Horrekin denarekin elkarrizketa egunera ailegatu nintzen. Egia esan, metodoa apur bat hankamotz gelditzen dela esan nezake, izan ere, lankideak adierazi ez zidan gauza bat falta zaio: segurtasuna. Garrantzitsua da zoazen informazioarekin zoazela, segurtasuna erakustea. Idazleak zerbait zuzentzen badizu ere sendo erantzun dezazun. Segurtasuna.

Egin genuen bada elkarrizketa. Elkarrekin. Idazlea pozik gelditu omen zen. Amaieran horrela adierazi zigun behintzat. Kexu ere azaldu zen zenbait lankidek liburua irakurri gabe elkarrizketatu izan dutelako. «Berehala igartzen duzu noiz irakurri duten liburua, egiten dizuten galderetan ikusten da, hain da nabarmena». Bai, irakurle maitea, horixe da esan ziguna. Fikzioa sortzea erraza da. Iruzur egitea ere bai. Baina non hasi eta amaitzen da bat eta bestea? Magoei gertatzen zaie. Begi aurrean egiten dizkizuten amarruak dira, eta hain zuzen ere, horixe da prestidigitadore on bati eskatzen zaiona: engaina nazazu, baina ondo.

Horri denari akabukoa emateko esan dezadan: Bat... sentitu nituen kontzientzia kargu zantzuak segurtasunaren ize-nean baztertu behar izan nituela. Bi... metodoak eman zidan lana ikusita gurago dudala liburua irakurtzea. Eta hiru... afaria ordaindu nuen.

## Liburutegian

Sekula ez naiz liburutegi batera joan. Bai, joana naiz, baina hitzaldi, mahai-inguru, kontzertu edota antzekoetara. Behin unibertsitateko liburutegira joan nintzen. Ikastera. Ikasle on baten zeregina da. Lehenbiziko lezioa: liburutegia ikasteko dago. Goizean goizetik joan nintzen, adierazi zidatenez, leku gutxi eta ikasle asko zegoelako. Ikasteko leku gutxi behar da, mahaitxoia eta aulkia. Aurrez aurre apunteetan murgilduta zegoen ikasle on bat nuen. Lantzean behin begiratzen nuen ikasi ez eze beste ezer egiten ote zuen jakiteko. Ikasi, soilik. Nik, berriz, ezin izan nuen ikasi. Isiltasun hura munstroa zen. *Lost*-en agertzen den ke beltzaren antzekoa. Narras zetorren eta apurka-apurka inguratzen zintuen. Jabetzerako, barruan sarturik zenuen. Beti gertatu izan zait liburutegietan eta elizetan. Isiltasun maiestatiko horretan edozein ate zabaldu eta jainkoa ager liteke agindu sakraturaren bat emateko. Izugarria. Ahopean berba eginda ere aise entzun zenezakeen shhhhhhhhh... madarikatua. Isiltasunak

arreta desbideratu dit, ikasteko zarata behar nuen. Musika, tabernetako edalontzi eta kafe makinaren zarata, berbaroak... hura izan zen ikasle gisa liburutegi batean izan nuen esperientzia bakarra.

Irakurle legez ere, gutxi. Ezer ez. Liburutegira liburu eskean joatea zer den ez dakit. Irakurri ditudan liburuak erotitakoak edo utzitakoak izan dira. Inguruan dituzun irakurleak aiprosenak izaten dira, liburuak aholkatzearekin batera, liburuak uzteko. Lagunek, ezagunek uzten zizkidaten liburuak irakurtzen nituen. Eta eurek nireak. Zenbat liburu kutun ez ote diren egongo apal arrotzetan hautsa biltzen? Bai, horixe da hain zuzen ere lagun edo ezagunei liburuak uztearen arriskua. Tira. Ahaztuak ditut, hortaz hain larria ez da izango.

A. liburutegi publikoen defendatzaile sutsua da. Erabil-tzaile ere bada. Etxeko bazter oro liburuz beteta zegoela ikusi zuen batean bilakatu zen liburutegi zale. Maite ez zituen liburuak oparitu eta dagoeneko ez du libururik erosten. Salbuespen bat: liluragarria den bateren bat aurkitzen duenean auzoko liburu dendan erosi ohi du. Azken boladaotan ez duela erosi aitortu dit.

Liburutegira ohitu egin bide da. Etxe alboan dauka eta lanera edota edozein lekura egiten dituen joan-etorrietan geldialditxoak egiten du liburutegian. Liburuak hartu, liburuak utzi. Inñaki da liburuzaina, bere etxe albokoa, eta hark aholkatuta hamaika hartu ditu. Azkena, Rodrigo Fresán-en bat. Mailegutza epea betetzear dagoela eta astirik ez duela amaitzeko? Sarearen bidez bere zenbaki-gakoa sartu eta luzatu egiten du mailegutza.

Berak bultzatuta-edo, hurbilen dudan liburutegian eman ditut izen-abizenak eta karneta eskuratu dut. Liburuak zaindu egin behar dira eta ezin da idatzi edo marrazkitxorik egin, ezin (jakina) apurtu, tolestu, sinatu, dedikatu, eta liburuak hondamendirik pairatzen badu norbera da erantzule. Eta «hondamena» berbarekin batera definizio soka luzean galdu da liburuzaina. Adibide amaigabeak bota dizkit. Bilbo

lur azpira eramango duen tsunamia, estralurtarren inbasioa eta Inkisizioaren agindua liburu erreketara egiteko ez beste denak ahaztu zaizkio. Baina mezuaren funtsa harrapatu dut. Ondoren sarearen bidez bilaketak eta liburuak hartzeko bidea azaldu dit.

Hondamendia hitzarekin tematu den bezala ikusita, pentsatu dut informatika oinarri guztiak azaldu behar zizkidalara zero eta batekin hasita. Baina ez. Neska azkarra naizela ikusi du, nonbait, eta zuzenean liburutegien web orrialdera joan da. Lau pauso besterik ez dira behar mailegua egiteko. Hemendik gora, beraz, liburutegiari muzin egiteko aitzakiarik ez dago... beno, beti egongo da aitzakiaren bat: munduaren akabera, bigarren uholde unibertsala... orain serio, Irakurketa Sare Publikoak dagoeneko irakurle berria dauka bere hatzapparretan.

## Besteen bizitza

«Ez zait egilearen bizitza interesatzen, idazten duena da balio duena, bere sormen lana, bestea gauza pribatua da». Horixe esaten zidan lehengoan B-k. Nik horrelako adierazpen irmoekin zalantza asko izaten ditut. Biografia eta autobiografiekin gogoratu naiz. Hamaika kaleratzen da urtero. Hamaika eta bat dira biografia zaleak. Are gehiago, idazle askoren lana eta bizitza lotuegi daude. Akordura datozkit horrela kolpean, lehenago aipatutako Oscar Wilde, Gabriel García Márquez, Pablo Neruda, James Salterren *Burning the days*, Chestertoni buruz idatzitakoa edota Agatha Christieren *Come, tell me how you live*. Sarrionandiaren *Akordatzen* literatura hutsa zen, ala?

Akorduan dut lagun baten gomendioari jarraituz Rosa Monterok idatzitako *Historia de mujeres* irakurri nuela. Alma Mahler (Gustav Mahler musikagilearen emaztea) eta Zenobia Camprubíren (Juan Ramón Jiménez idazlearena) istorioak gelditu zitzaizkidan itsatsita. Ai ama. Niri neuri bost inporta zait egilearen bizitza pribatua, baina harrez ge-

ro ez dut Juan Ramón Jiménez berdin ikusi. Irakurri ere ez. Egokia izan zen biografia hura irakurtzea?

B-k, ordea, ez du zirrikiturik utzi bere sendotasunean. Ba-tean eta hurrengoan ere esaten du, bide batetik doa bizitza, bestetik sormen-lana. Nik zalantzak ditut. Eskolan literatur-a ikasten genuen sasoiak etorri zaizkit gogora. Literatur lanak aztertzen genituen, eta bizitza ere bai. Zenbait lan ulertzeko baliagarriak izan ohi ziren jazoerak, bizipenak...

Ur sakonetan murgiltzeko gogo gutxi nuelako ez nion arreta handiagorik eman B-ri. Bere berben osteko pentsamenduetan jabetu naiz: irrazionaleria naiz literaturan. Lilurak eta grinak eramaten naute hautaketara. Izenburu batek, azal batek. Egilea ez da etereotasunean galdutako zer bat. Pertsona bat da. Bizi dena edo bizi izan dena. Eta bere literatur lana bizitza horrek baldintzatu(ko) du. Egia da idazle batzuen bizitza ez zaidala inporta, zenbat maitale izan zuten, sexu gustuak, edota zein jatetxe zuten maiteen. Baina onartu behar dut idazle batzuen lanek Siberian uzten dutela neure bihotza.¶



## Lehiakortasuna eta ekologia

Neokapitalismoaren eta ekologiaren arteko harremana ez da ona. Dirudienek, azken urte hauetan esfortzu bat egin nahi izan dute herrialde kutsatzaileenek Kiotoko itunarekin eta orain dela gutxi Kopenhageko bilkurarekin. Kopenhagen argi geratu den bezala, krisi ekonomikoaren garaian ekonomia eta lehiakortasuna sustatzea lurraren ekosistemaren bilakaera baino garrantzi handiagokoa da ekonomi handieneko herrialdeentzako.

Kioto berez ez zen miraria. Itunaren arabera, herrialde bakoitzak kopuru baterainoko eskubidea zuen kutsatzeko. Noski, industria gabeko herrialdeek, pobreenek, ez zuten kutsatzeko eskubide horiek erabiltzeko beharrik, eta gehien kutsatzen duten herrialdeek industria gabekoen kutsatzeko baimenak erosten zizkieten.

Kapitalismoak ekosistema babesteko mugak ezartzen dizkionean dirudunari, boterea duenari eta boterea lortzeko kutsatu duenari, eragina mugatua da: nahikoa du herrialde garatu horrek pobreak dirua ematea berdin kutsatzen jarraitzeko. Boteretsuak, gainera, alde batetik galtzen duena beste alde batetik berreskuratzen du: herrialde txiroek dirua berriz itzuliko baitiote kanpo zorraren bitartez.

Neokapitalismoaren eta hizkuntzen ekologiaren arteko harremana ere ez da ona.

Haugen edo Crystal autoreek hizkuntzen ekologiaren alde egin dute. Gugandik gertuago, Txepetxek hololinguistikaren bitartez proposamen etiko bat egin zuen mundu mailan hizkuntza guztiek etorkizuna izan dezaten; bere proposamenari «paradigma antiglosikoa» deitzen dio (*Un futuro para nuestro pasado*, 365. or.). Proposamenak utopikoa di-



rudi baina polita da; munduko gizartea sare handi bat litzateke, bere partaideak eleanitzak izango lirateke. Sarearen partaideen arteko komunikazioa bermatua izango litzateke hizkuntza bat baino gehiagoren bitartez; alegia, ez litzateke egongo hizkuntza bat denon ulermenerako (ingeleza adibidez), baizik eta sarea konplexuagoa litzateke hizkuntza txiki-ekie ere lekua egiteko. Gainera, elkar ulertzeko hizkuntzak ez lirateke inoren jatorrizko hizkuntza.

Ikuspuntu ekolinguistiko horiek berritzaileak eta interesgarriak dira, baina ez dirudi testuinguru ekonomikoak bultzatuko dituenik, eta neoliberalen artean eredu horien aldeko diskurtsoa ez da ohikoena.

Orain arte nagusitu den ikuspuntua, enpresa mailan, neoliberalen artean eta baita hainbat progresisten artean ere, elebitasun unilaterala da. Alegia, mundu mailan hizkuntza bat egotea, norberaren jatorrizko hizkuntzatik aparte, denon arteko komunikazioa ziurtatuko duena.

Ikuspuntu horren bultzatzaileak mota ezberdinekoak izan dira, eta dira, eta ikuspuntu hori babesteko arrazoiak ere antzak dira. Garai batean progresista eta komunista batzuek ikuspuntu hau bultzatu eta teorizatu zuten: munduko langileria alienatua eta zapaldua askatzeko, langileen eta mugimenduen arteko komunikazioa bermatu behar zen; gainera, hizkuntzak ere alienazioa suposatzen du, menperatzaileek sortutako hizkuntzatik aterata ere askatasuna lortuko litzateke. Esperantoa, adibidez, izan zitekeen hizkuntza egoki bat horretarako.

Esperantista batzuek, Piron-ek esaterako, pragmatismoaren eta etikaren ikuspuntu batetik aztertu dute esperantoaren auzia. Beraientzat hizkuntza bat nagusitzen bada mundu mailako instantzietan eta merkataritzan, ezin daiteke izan talde baten ama hizkuntza, bestela hizkuntza-talde horren partaideek haien kosmobisioa inposatu ez ezik negoziaketetan abantaila handia izango lukete. Kasu hori ingelesarekin gaur egun gertatzen dena eta frantsesarekin gertatu izan dena da. Esperantista horiek, nahiz eta normalean

munduko eleaniztasunaren alde dauden, munduko instantziatarako eta gestiorako hizkuntza bakar baten alde daude. Horien ustez, eta ematen dituzten adibideak ezin dira zailtzan jarri, instantzien eleaniztasunaren kostua oso handia da, kalitate aldetik: askotan gaizki ulertuak eta akatsak gertatzen dira komunikazioan. Gainera, kostua dirutan benetan handia da: adibidez OMEren 28. asanbladan 5 milioi dolarreko iguera bat esleitu zitzairen barneko itzulpen zerbitzuei, eta momentu berean, diru faltagatik, Afrikako osasungintza bultzatzeko hainbat proiektu ezetsi ziren; guztira 4,2 milioi dolar behar ziren proiektu horietarako.

Neoliberalismoaren arabera hizkuntza bakarraren aldeko apustua ingelesaren aldekoa da. Horretarako arrazoiak asko dira: hizkuntza bakarra merkeago ateratzen baitzaio enpresari, ingelesa izanik neoliberalisten ideologo eta enpresaburu nagusien jatorrizko hizkuntza. Gainera, momentuko inperioaren hizkuntza da, eta bere hizkuntza baliatu nahi du bere boterea ziurtatzeko, babesteko, bultzatzeko eta bere kosmobisioa inposatzeko. Hori ez da gauza berria eta ingelesaren aurretik beste batzuk egon dira: latina, frantsesa...

Gizarte gehienek ingelesaren nagusitasuna normalizat jotzen dute, Bourdieuk azaldu zuen bezala, boteretsuaren egiturak eta moldeak bereganatzen dituztelako alde batetik, eta, bestetik, etengabe ingelesaren aldeko mezua entzunarazten zaielako: ingelesaren zabalkuntza ona da munduko gizartearen komunikaziorako, mundua justuago egiten du eta, praktikan, lana bilatzeko ingelesa ezinbestekoa da. Gauza bera gertatzen da kronika ekonomikoekin, mezuak behin eta berriz errepikatzen dira horiek onar ditzagun: «laster ezingo dira pensioak ordaindu»... eta horregatik etorkizunean 85 urte arte lan egin beharko dugu. Halimik deitzen duen «musika txiki» hori errepikapenaren bitartez belarrietatik sartzen zaigu eta onartzen dugu ([www.acrimed.org/article1290.html](http://www.acrimed.org/article1290.html)). Udako azken kantuarekin berdin gertatzen zaigu: lehen aldiz entzuten denean musikalki negargarria iruditzen zaigu, baina hainbeste entzun eta gero nor-

maltzat jotzen dugu, eta gainera aisialdian entzuten dugunez, emozio baikorrekin lotzen dugu eta azkenean kantua entzuten dugunean poztu egiten gara. Pavlov ez dago urrun...

## **Krisia eta euskara**

Musika txikia belarrietan sartzen da eta gelditzen da, eta dena onartzera bultzatzen gaitu. Estatuak eta munduko instituzioek diru publikoa zuzenean eman diete bankuei krisitik ateratzeko, orain BNP bankuak 2009rako bere etekinak bikoiztu egin dituela esan du (*Le Point*, 2010-02-17): baina, noski, pentsioak ezingo dira ordaindu, edota enpresa batean hizkuntza bat baino gehiago edukitzea garestiegia da... Krisi garaian, beraz, euskarari dirua kendu behar zaiola diote, ekonomia suspertzeko. Ekonomiak jaiotze tasan, gizartearen ongizatean eta emigrazioan ere ondorio larriak dituenek, zaindu beharrekoa da; baina kontuak ondo egin behar dira eta ez propaganda bat besterik gabe.

## **Politikarien eta gizartearen musika txikia**

Krisia dagoela eta beraz euskararentzat dirurik ez dagoela zabaltzen duten bitartean, bada beste leitmotiv bat zabaltzen ari dena, epe ertain-luzean euskararentzat askoz kaltegarriagoa izango dena eta Euskal Herriko gizartean aldaketa kualitatiboa suposatzen duena: mezu honen arabera euskarari babesa kentzea EHko errealitatea kontuan hartzea litzateke, besterik gabe.

Orain dela gutxi arte, frankismoaren bukaerako jarrerak nagusitzen ziren, EAEn gutxienez. Europa mailan, 60 eta 70eko hamarkadetan, hizkuntza gutxituen aldeko mugimenduak zabaldu ziren: jarrera etikoa zen, menperatzaileari bere lekua aitortzea eta indargabeari denon ahaleginaren bitartez indarra ematea zen helburua. Euskal Herriaren kasuan, gainera, euskarak hainbat balio erantsi bereganatzen

zitzen: frankismoaren aurkako hizkuntza zen eta demokraziaren aldekoa. Funtzio integratzaile praktiko eta sinboliko handiak bereganatzen zituen eta indarrean zegoen jarrera nagusia diskriminazio positiboaren aldekoa zen. Garai horretan, ekonomiaren aldetik, gorabehera handiak egon ziren: 30 gloriosoen ondoko aurreneko krisiak gertatu ziren. Krisi horien tratamendua klasikoa zen: langileria estrukturatuta zegoen, sindikatuak boteretsuak ziren eta krisia eta paktu laborala klaseen arteko borroka bezala ulertzen zen.

Azken urte hauetan, ekonomisten eta kazetarien kroniken musika txikiari esker, indarrak eta jarrerak erabat aldatu dira. Etengabeko krisian gaude, erabateko lehentasuna eman behar zaio ekonomiari eta badakigu gure seme-alabek etorkizun latza edukiko dutela lanean eta ondorioz bizitza pribatuan ere (ez dugu ahaztu behar beldurra baliatzea dela jendea manipulatzeko tresna indartsuenetarikoa, aspalditik erabilia eta ondo ezagutua; publizistek eta hainbat sektek ondo kontrolatzen dute beldurraren balioa eta bere nondik norakoak). Beldur horiek eta beste hainbat mekanismo baliatuz, langileria desestrukturatu egin da. Langileriaren eta enpresen jabeen arteko harremana ez da gehiago ulertzen gatazka bat bezala; interes antzekoak dituzten bi aktore ekonomikoen arteko harreman bezala ulertzen da gaur egun, besterik gabe.

Testuinguru berri honetan, beldur horien ondorioz, diskriminazio positiboak ez du leku gehiagorik. Indarrak ez duena laguntzea ez da lehentasuna, norbera pasatzen da lehentasun izatera, ondokoari lagunduko zaio baldin eta norberaren gutxieneko ongizatea ziurtatuta badago; eta musika txikiak dioen moduan, gaur egun ez gaude ziurtasunak edukitzeko.

Testuinguru honetan, euskararen aldeko apustua egitetik, erdararen aldekoa egiten da, nagusiaren aldekoa. Jarrera eta ikuspuntu sinplifikatzaile berrien arabera, demokraziaren oinarria talde nagusiak agintzen duena egitea baita (%50,1ek irudikatzen duena). Jarrera horiek gehiago zabaltzen badira,

etorkizunean euskararen balioa jaitsiko da oposaketetan ([www.erabili.com/zer\\_berri/berriak/1265963235](http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1265963235)), eskoletako curriculumean (2010-02-26) eta leku guztietan. Orain dela gutxi arte diskriminazio positiboaren aldeko jarrerak nagusitzen baziren ere, orain musika txikiak bultzatzen dituen jarrera pragmatikoak ari dira indartzen.

Artikulutxo honetan hainbat inkestetan oinarritutako pertzepzio pertsonal bat aurkezten da, ez da errealitatearen ispilua eta jarreraren bilakaera oraindik ikertzeko dago. Dena den, badirudi euskararen aurkako jarrera berri batzuk indartzen ari direla azken urte hauetan. Badakigu Euskal Herriko edo hobeto esanda EAEko hizkuntza jarrerak euskararen eleaniztasunaren aldekoak direla, baina jarrera berri horiek indartuz doaz.

## **Analisi soziolinguistiko desitxuratua**

Inkestei eta mezu politikoari dagokienez, Nafarroan hasi ziren analisi soziolinguistikoaren erabilera euskararen aurka. Pegenauteren garaian hasi zen soziolinguistika ohikoa ez den modu batean erabiltzen. Erabilera horren arabera, gutxiengo batek erabiltzen duen hizkuntzari lekua ematen bazaio estatuaren instantzietan, gehiengoa diskriminatzen ari gara. Analisi soziolinguistiko horiek erabiltzen ari dira orain euskararen balioa jaisteko oposaketetan, eta ikuspuntu hori gizartean zabaltzen ari da.

Egoera ekonomikoaren ondorioek bere zabalpena errazten dute. Izan ere, etorkizuna ziurtatzeko praktikoa izan behar delako jarrera zabaltzen ari da; horren arabera, hizkuntza bat ikasi behar bada, gizarte mailako ekonomian erabiltzen dena izan behar du: ingelesa. Gainera, ahalik eta gehien aurreztu behar da, bai diru aldetik eta baita esfortzu aldetik ere. Hizkuntza txikiek, beraz, ez dute tokirik, dirua alferrik gastatzea baita, eta euskararen kasuan, gainera, esfortzu handia egin behar baita hizkuntza ikasteko. Hori da behintzat oso zabaldua dagoen aurreiritzia. Gainera, gizartea ge-

ro eta abiadura handiagokoa da eta estresak biderkatzen ari dira; emozionalki balio erantsirik gabeko hizkuntza bat erabiltzea gero eta zailagoa egiten da.

Gainera, euskararen aldeko jarrera edukitzea ez da derri-gorrezkoa, euskarak balio integratzailezik ez duela esateak ez du adierazten kontrako jarrerarik edo epeltasunik, hori da norberak mundua nola ikusten duen adieraztea. Kasu batzuetan egia izan daiteke: Murtzian eta hainbat kasutan Barakaldon ere, euskararen balio integratzailea oso mugatua da, aztertu beharko litzateke ea balio baztertzailerik ez duen. Aldiz, Zarautzen maila orokorrean edo Murtzian biltzen diren Barakaldoko pertsona batzuen artean balio integratzailea izan dezake, zalantzarik gabe.

Euskararen aldeko jarrera ez da naturan berez aurkitzen den zerbait, edo berez norberak (kutsatua izango ez balitz) eduki beharko lukeen balio bat. Euskarak eta euskaldunek aldeko jarrerak irabazi behar dituzte, nahiz eta neurri handi batean kontu etikoa ere baden eta kontrako indarrak handiak eta boteretsuak diren.

## Euskararen alde enpresa mailan

Eskerrak gauzak ez dira hain beltzak. Badira gizarte-indar kementsu batzuk analisi soziolinguistikoko desitxuratu horien aurka joaten direnak eta horien kontrako jarrera batzuk zabalitzen dituztenak. Euskararen aldeko mugimendu sozialak eta elkarteak, noski, baina baita enpresa eta pentsalari interesgarri batzuk ere. Bereziki berritzaile eta interesgarria da enpresaren alorrean Mikel Irizarrek egiten duen lana eta proposatzen dituen ideiak. *Bat* aldizkariaren 65. zenbakian «Hizkuntzak enpresaren kulturaren» artikulua publikatu zuen, eta bertan hizkuntzen kudeaketa enpresen esparru estrategikoa dela adierazten du.¶

## Lularen lilura

Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakari Patxi Lopezek bidaiia egin du Brasilerara udaberri hasieran eta sari loriatsua lortu du bere ahaleginerako, bertako Lula da Silva presidentarekin argazkia. Bide batez, horren politika sozialak interesgarriak eta gurera erakargarriak direla esan du Lopezek.

Brasil, egun, euskal enpresa askorentzako —mundu osokoentzako bezala— inbertitze-gune zinez interesgarria da eta, zentzu horretan, Jaurlaritzak antolatutako bidaiak aspaldiko ereduari erantzuten dio: maila altuko delegazioa osatu (lehendakaria edo kontseilaria, segun eta herrialdea eta jokoan dauden inbertitzeko ahalmenak zein diren, aukeratutako enpresari taldea eta halako bidaiak debalde egitea izugarri maite duten kazetariak, gero «berriemaile berezia» titulu ponpoxoaren azpian euren kronikak sinatuko dituztenak) eta abioia hartu batez ere negozioak egiteko eta negozio aukerak ikusteko, politikariek koipetze lanak egin eta argazki-aukerak bilatzen dituztela.

Orain urtebete arte Jaurlaritzan egondakoek asmatu edo kopiatu zuten ereduak, eta, hori gauzatzeko, munduan zehar —batez ere Hegoamerikan eta euskaldun joankinen komunitateak dauden lekuetan— bulego sare paradiplomatikoa eratu zuten. Lopezek gidatzen duen gobernuak, alta, esan du publikoki sare horren maila apaldu behar dutela, bakkarririk helburu komertzialak betetze aldera eta kutsu diplomatiko hori guztia kenduz. Baina, gaur egun, nork egingo lioke muzin Luiz Inácio da Silvarekin argazkia egiteari, nor ez du harrapatu Lularen lilurak?

Gaiztoren batek esango luke badituela Lulak ezaugarri komunak EAEko gure lehendakariarekin, unibertsitateko ikas-

gelak zapaldu ez izana, alegia, baina egiatan Lularen curriculum Portugaletekoarena baino zati bat sendoagoa da: diktaduraren kontrako borrokalaria, sindikalista saiatua, 1989. urtean hasi zen Hegoamerikako erraldoiaren presidentziarako lehian eta azkenik 2002an irabazi zituen hauteskundeak eta kargurik gorenera heldu. Iraultza baten moduan hartu zen garaipen hori, bigarren aldiz 2006an garaipena errepikatu zuenean kanpaiek ez zuten ozenki jo; orain, bere azken agintaldiaren bukaerako txanpan dagoenean —hurrengo urtean izango dira hauteskundeak eta jadanik ezin du berriro aurkeztu—, balantzea egiteko ordua heldu da eta ez dago zalantzarik estatista moduan pasatuko dela Historiara, Brasilen modernizazioa bultzatu, justizia soziala areagotu eta herrialde handi horrek munduko estatusen izan behar duen itzala goratu duen politikari legez.

Azken zeregin horretan, gainera, Brasilek lidergoa eskaini die globalizazio kapitalistaren garapenean oso protagonismo handia eduki duten hainbat erakundek —batez ere Munduko Merkataritza Erakundea, baina baita Nazioarteko Diru Funtsa edo Munduko Bankua ere— gidatu nahi izan duten hainbat negoziozko erronda eta goi-bilkuretan kontrario lana bete izan duten periferiako hainbat herrialderi. Nekazaritzaren industrializazioa eta liberalizazioa, jabego intelektualaren inguruko akordio-saioak..., nolabait mugimendu alterglobalistaren mamuak izan diren hainbat gaik ez dute ezagutu teoriko neoliberalek asmatua zuten ibilbidea, prozesu honetan oso koalizio ez-egonkor eta ahul batzuek —gizarte mugimenduak kalean eta periferiako hainbat herrialdetako diplomatikoak aretotan— asmo horiek seko galgatu dituztelako. Hor beti agertu da Brasil, herrialde periferikotan indar handiz agertzen ari diren interes ekonomiko berrien defendatzaile, askotan alterglobalismoaren argudioak —apur bat deskafeinatuak akaso— erabiliz.

Ez, Lula ez da izan Fidel edo Chávez bat, baina oso ondo jokatu du horien anaia tenplatuaren papera; eta aldi berean Hegoamerika osoan agertu diren fenomeno politiko ezker-



tiar guztien aitaponte ekonomikoa izaten jakin du, hori bai, beti argi utziz ez diola muzin egingo Brasilen arma nuklearrak garatzeari. Hau da, edozein estatu boteretsuk manea-tu nahi dituen atributuak edukitzea beste edozein mandatarik bezala maite du Lulak.

Alterglobalismoan ikurrik badago, horixe dira Sebastiao Salgado argazkilariak Brasileko lurrik gabeko nekazariei egindako argazkiak. Igitaiak eta aitzurrak astinduz lurjabe handien lursailak okupatu eta lantzen dituzten aktibisten ikonografia exotikoak lokarri zuzen bat du europarrok hainbestetan ikusitako *Novecento* pelikularen eszenografia-rekin, eta horrek oso erraz mugiarazten du iraultzaren mar-ko kontzeptuala. MST, Movimento Sem Terra, oso erakun-de indartsua da Brasilen eta oso garrantzi handia izan zuen Lularen garaipenean, baina gero gobernuan egon denean kritikaririk zorrotzena ere izan da.

Lularen lehenengo gobernuan nekazaritzaren inguruan bi ministerioa egon ziren: batek nekazari erreforma zuen hel-buru, hau da, MSTren eta beste sektore batzuen aldarrikapen historikoei erantzuteko prozesua gidatu behar zuen. Zerbait aurreratu dute, baina lurjabeen boterea, militarra barne, oso handia da zenbait eskualdetan; horregatik MSTk bere kritikak eta eskakizunak zorrotz mantendu ditu gobernuaren aurrean, bitartean segitu dute lurrak okupatzen eta bertan familiak kokatzen, produkzioa antolatzen eta azpie-giturak eta zerbitzuak eratzen; oso ezagunak dira Paulo Frei-teren irizpidetan oinarritutako eskolak eta hezkuntza-siste-ma propioa. Haiek jakingo dute lan autonomo hori gutxi gorabehera *aldeko* den gobernu batekin egitea, *kontrako* ba-tekin garatzea baino errazago edo atseginagoa den ala ez.

Bigarren ministerioa nekazaritza garapenerakoa zen, hau da, konplexurik gabe Brasilek duen potentzial produktiboa baliatu eta garatzeko. Horra hor bioerregaietan ezagutu du-ten loraldia eta bertako ekonomiak bizi izan duen suspe-raldia. Lulak lasai asko esan dezake hazkunde ekonomikoa erabili duela pobrezia gutxitzeko.

## Euroaren tristura

Eta noski, zentzu horretan Patxi Lopezek esan dezake ere Lularen politikak eta euskal sozialistek EAEn garatu nahi dituztenak antzerakoak direla, sozialdemokrazia klasikoaren errezetatik ez direla horrenbeste aldentzen, ez batzuk ez besteak. Arazoa da Lularen politika bipolar horiek lekua dutela Brasilen, hau da, espazio fisiko zabala dagoela han, eta horren lurralde handi eta ez oso populatua —nahiz eta hirietan sekulako metatze larria egon— oraindik posible dela David Harvey-k «irtenbide espaziala» deitzen duena praktikatzeari, hau da espazio berriak erabiltzea kapitalaren zirkulazio eta inbertsiorako, euskal enpresariak ikusi duten moduan.

EAEko sozialistek —eta horretan oso antz handia dute Nafarroako eskuindarrekin eta eurak baino lehen Gasteizko gobernuan egondakoekin— betiko «irtenbide espaziala» proposatu dute berriki lurralde antolakuntzarako estrategia berria aurkeztu berri dutenean: landa eremuetan kalitatezko nekazaritza eta beste motatako negozioak: etxebizitza soilen eraikuntza, turismoa... Ez da, ez, horren estrategia berria, azken urteotan garatu dena baizik. Landa eremuetan oso aldaketa sakonak gertatu dira azkeneko urteotan, baina orain jadanik horren ajea paratzen ari da: har dezagun adibidez orain Urdaibain hain larritzat hartzen den egoera, jende gehienak lanera eskualdetik kanpora joan behar duela, nahiz eta begien bistan dagoen bertan jendea oso ondo bizi dela, maila altukoa dela, txaletak eta *baserri* berriak ikustea besterik ez dago.

Ez, porlanaren garapenean oinarritutako estrategia ez da berria, eta orain Estatu espainiarrean beste inon baino gordinkiago finkatu den krisia hain zuzen ere estrategia horren porrotaren isla baino ez da. Horregatik, Lularen liluraren dirdira Brasilen baloratu beharko da, baina hemen beste estrategiarik ezean euroaren tristurarekin bizitzea geratzen zaigu: Jaurlaritzan dirua ez da heltzen eta nazioarteko kalifikazio agentziak hasi dira kolokan jartzen gobernuak eta

diputazioek emititzen duten zor publikoaren kalitatea; Nafarroan AHTn kosta ahala kosta egin nahi diren inbertsioek kolokan jarriko dute gastu soziala, justu beharrak goraka doazen momentu batean; orain jadanik ekonomista askok esaten du euroarena hanka sartze ederra izan zela hainbat ekonomiarentzat eta Europako txapeldunak, Alemaniak, muzin egiten die bere asmo europazaleei —bere barnean dituen arazoei erantzuteko— bertako intelektual kosmopoliten desesperazioa areagotuz...

## Apocalipsy Now (on The Road)?

Orriotan auzokide dugun Goizalde Landabasok kontatzen zuen aurrekoan *The Road* Cormac McCarthyren nobela apokaliptikoak eragin zion hoztasun eta tristezia. Filma estreinatu dute gero, kontakizun horretan oinarrituta: aita-semea bakarrik daude mundu huts batean, ia janaririk ez dago eta agertzen diren pertsona bakanak pizti gorrotagarriak dira. Ez da jakiten zer gertatu den baina erregairik ez dago apenas. Ezta janaririk ere, esan bezala. Energiarik gabeko mundu bat, alegia, amets gaiztoa.

Krisi garaiotan ugaltzen dira literaturan, zineman, komikian, halako ikuspegi apokaliptikoak. Mike Davis urbanistak orain dela urte batzuk ekarri zigun gogora XIX. eta XX. mendeko idazle batzuek —Richard Jefferies (*After London, or Wild England*, 1886), Jack London (*The Scarlet Plague*, 1921) edo George R. Stewart (*Earth Abides*, 1949)— natur zientzien ezagupenak erabili zituztela hiri modernoak —Londres, San Francisco, Los Angeles— nola desagertuko ziren imajinatzeke. Davisen ustetan, hiria bera jadanik desagertu da gaur egungo planeta metropolizatuan: miseriazko *suburbia* hedatzen da itsasoa bezala, gotortutako auzune aberats batzuk irla moduan agertzen direla.

Baina krisi garaiak omen dira ere ikuskera apokaliptiko horiek eragindako ideia berriak agertzeko abagunerik aproposena, utopiak marrazteko momentua. Manuel Castells so-

ziologo ezagun eta baikor profesionalaren ustetan, Obamarren politika *matxinotan* (*intsurgenteetan*) nabaritu daitezke hurrengo urteetan aldaketak. Azken hilabeteotan etxean osasungintza unibertsalari bultzada eman dio, arma nuklearrak gutxitzeko pauso interesgarriak eman ditu eta Israelgo *belatzei* planto moduko zertxobait egin die. Honako *matxinadak*, Lularenak bezala, al dira politika konbentzionalak eragin dezakeen guztia? Nork bere baikortasuna inbertitu beharko du juzkua egiterakoan. Bitartean jende xehearen matxinadek —gertatzen direnean, eta hori, ai ene! ez dago asmatzerik— segituko dute utopia eta apokalipsiaren arteko marra finean gizateriaren historia eratzen.¶